



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 7a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen irizpeneko konklusioak. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen irizpeneko konklusioak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 67.2. artikularekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2018ko apirilaren 12ko Erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen irizpenari buruzko konklusioak.

Iruñean, 2018ko apirilaren 13an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen irizpena

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde bat sortzea, honako gai hauek ikertzeko:

Iraizotzen (Ultzama) abereen mindetatik elektrizitatea sortzeko planta bat egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioaren prozedura.

Oinarri izan zituen proiektu teknikoak.

Kontzesioa Bioenergía Ultzama SArI laga izana.

Zinegotzi batzuek merkataritza-sozietate horretan parte hartu izana bazkide gisa.

Jardueraren nondik norakoa eta plantaren itxiera.

Nafarroako Gobernuako departamentuek dirulaguntzen bidez emandako funts publikoen erabiler eta xedea.

2017ko maiatzaren 22an Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde horren (hemendik aurrera "Ikerketa Batzordea") osaerari, antola-

ketari eta funtzionamenduari buruzko arauak onetsi zituen. Arau horiek 2017ko maiatzaren 23ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 74. zenbakian.

Ikerketa Batzordea 2017ko maiatzaren 30ean eratu zen, eta foru parlamentari Ramírez Erro jauna hautatu zuen batzordeburu.

Ikerketa Batzordeak bilerak egin ditu 2017ko maiatzaren 30ean, ekainaren 7an, 16an eta 26an, irailaren 8an eta 22an, urriaren 16an eta 20an eta azaroaren 3an, 10ean eta 17an, eta 2018ko urtaririlaren 12an, 19an eta 26an, otsailaren 2an, 9an, 16an eta 20an eta martxoaren 2an, 16an eta 27an, eta zenbait erabaki hartu ditu, Batzordearen dokumentazioaren parte direnak.

Ikerketa Batzordearen bilkura batzuetan zenbait pertsona agertu dira informazioa ematera. Agerraldien emaitza Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkarian jasota dago. Hauek agertu dira:

Asunción Olaechea Estanga andrea, Kontuen Ganberako lehendakaria

Manu Ayerdi Olaizola jauna, Garapen Ekonomikorako kontseilaria

Isabel Elizalde Arretxea andrea, Landa Garapeneke, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria

Ignacio Gil Jordán jauna, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneke, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusia

Pilar Irigoien Ostiza andrea, Sodenako zuzendari kudeatzailea

Juan Pablo Rebolé Ruiz jauna, 2008ko abenduaren 30ean Nekazaritzako Azpiegituren Ataleko buru zena

José Javier Echarte Echarte jauna, 2008ko abenduaren 30ean Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko zuzendari zena

Jesús María Velaz Burgui jauna, 2008ko abenduaren 30ean Abeltzaintzako Azpiegiturei Laguntzeko Bulegoko buru zena

Roberto Rípodas Ezcurra jauna, Landa Garapeneke, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuko nekazaritzako ingeniari teknikoa

Francisco Pérez Arregui jauna, Ultzamako alkate ohia

Francisco Javier Tornaría Iguelz jauna, Ultzamako alkate ohia

Aranzazu Martínez Urionaberrenechea andrea, Ultzamako alkatea

Ignacio Soraluze Arregui jauna, Basaburuko alkate ohia

Alberto José Urdániz Elizondo jauna, Odietako alkatea

Agustín Ancizu Elizondo jauna, Ultzamako Udaleko zinegotzi ohia

Francisco María Iribarren Altuna jauna, Ultzamako Udaleko zinegotzi ohia eta Bioenergía Ultzama SAko lehenengo administrazio kontseiluko kidea

Francisco Javier Berasain Gascue jauna, Ultzamako Udaleko zinegotzi ohia

Mikel Irujo Amezaga jauna, Ultzamako Udaleko zinegotzi ohia (2007-2011) eta gaur egun Nafarroako Gobernuaren ordezkaria Bruselan

Irene Tortajada Fernández andrea, Ultzamako Udaleko idazkari ohia

Alfonso Araujo Guardamino jauna, 2008an Ultzamako Udaleko idazkari zena, eta 2008ko azaroaren 4ko kontratazio mahaiko kidea

Jiri Bezdicek Vondrackova jauna, Bioenergía Ultzama SAko lehenengo administrazio kontseiluko kidea eta Levenger SLren legezko ordezkaria

M. Esther Zubeldía Ermeta andrea, Bioenergía Ultzama SAko lehenengo administrazio kontseiluko kidea

José María Mariñelarena Saralegui jauna, Ultzamako biometanizazio plantaren proiektuen egilea, 2008ko azaroaren 4ko kontratazio mahaiko kidea eta Bioenergía Ultzama SAko lehenengo administrazio kontseiluko kidea

Itziar Cerdán Pascual andrea, Ultzamako biometanizazio plantaren proiektuen egilea eta 2008ko azaroaren 4ko kontratazio mahaiko kidea

Xabier Berruezo Gambarte jauna, Elizalde Berruezo Administradores Concursales SLPren ordezkaria

Jesús Tornaría Lajos jauna, Construcciones Tornaría Bengoetxea SLko kontseilari delegatua

Raquel de la Fuente Delgado andrea, Tindaya Estudios y Proyectosen ordezkaria

Marta Santos Monente andrea, INVAL Ingenieriarren ordezkaria

Alberto de Miguel Itxaso jauna, Albatros 2014 SLko ingeniaria eta kontu-hartzailea 2014an, Bioenergía Ultzama SA zainpean egon zen garaian

Antonio Rabadán Minguez jauna, Paymacotas enpresari eskatutako 2014ko abenduaren 10eko peritu-txostenaren egilea

Ikerketa Batzordeak hainbat agiri igortzeko eskatu du, eta emaitza espedientean jasota dago.

Batzordeak, 2018ko martxoaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Erregela-menduaren 62. artikuluan eta bere arauetatik hamaikagarrenean ezarritakoari jarraituz, behean erantsi den irizpena onetsi du. Bertan azaltzen dira ateratako ondorioak.

1. HITZAURREA
2. BATZORDEAK IKERTUTAKO GERTAE-REN GAINEKO BALORAZIOAK
 - 2.1. ULTZAMAKO MINDEN ARAZOEI BURUZKO AURREKARIAK
 - 2.1.1. Arazo orokorrak.
 - 2.1.2. Abeltzaintzako ITGren 2004ko txostena
 - 2.2. ULTZAMA, BASABURUA ETA ODIETA-KO UDALEN ARTEKO MANKOMUNITATERIK EZA.
 - 2.3. ULTZAMAKO BIOGAS PLANTAREN AURREPROIEKTUA ETA PROIEKTUA AIERDI INGENIEROS SLRI KONTRATATZEA
 - 2.3.1. Kontratazio prozesu administratiborik eza: udal idazkariaren ezezko ziurtagiria 2007an.
 - 2.3.2. Levenger SLren parte-hartzea biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua egiten.
 - 2.3.3. Aierdi Ingenieros SLri egindako lanengatik Levenger SLk Bioenergía Ultzama SAri igorri zion faktura.
 - 2.3.4. 2007an egindako kontratazioari "estaldura formal" emateko 2008an garatutako kontratazio prozedura
 - 2.4. OBRA-ZUZENDARITZA ADJUDIKATZEKO PROZEDURARIK EZA
 - 2.5. MINDAK BILTZEKO ETA ELEKTRIZITATEA SORTZEKO ZERBITZUA UDALEKOTZEKO PROZEDURA.
 - 2.6. ADMINISTRAZIO-EMAKIDA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA
 - 2.6.1. Levenger SL onartu ez izana, proiektuaren idazketan parte hartu bazuen ere.
 - 2.6.2. Levenger SL onartu ez izana kaudimen ezagatik:
 - 2.6.3. Bi enpresa eskaintzaileen gaitasun tekniko desberdinak
 - 2.6.4. Behin betiko bermerik jarri gabe kontratua sinatu izana:
 - 2.6.5. Udalak azpikontratatistak kontrolatu ez izana.
 - 2.6.6. Eskaintzak aurkezteko legezkoa den gutxieneko epea.
 - 2.7. LEVINGER ETA BIOENERGÍA ULTZAMAREKIN SINATUTAKO KONTRATUAK
 - 1.- 2008ko azaroaren 5ean sinatutako kontratua
 - 2.- 2009ko otsailaren 4an sinatutako kontratua
 - 3.- 2010eko ekainaren 11n sinatutako kontratua
 - 4.- 2010eko ekainaren 24an sinatutako kontratua
 - 2.8. BIOENERGÍA ULTZAMA SA MERKATARITZA-SOZIETATEAREN ERATZEA
 - a) Ultzamako Udaleko zinegotziak bazkide gisa.
 - b) Levenger SLk administrazio-emakidaren doako lagatze faltsua egitea.

Jada aipatu dugun Bioenergía Ultzama SAren eratzte-eskirituran, seigarren atalean, honako hau esaten zuen:
 - 2.9. NAFARROAKO GOBERNUAK ULTZAMAKO BIOMETANIZAZIO PLANTAREN PROIEKTURAKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK
 - 2.9.1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emandako diru-laguntzen azterketa: 2008ko diru-laguntzei buruzko aipamen berezia.
 - 2.9.2. Orduko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak emandako diru-laguntzen analisia.
 - 2.9.3. Fakturazio bikoitzaren bitartez biometanizazio plantaren eraikuntza gainfinantzatzea.
 - 2.9.4. Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntzen balioezintasuna, faktura irregularrak erabiltzeagatik.
 - 2.10. TXEKIAR ERREPUBLIKARA EGINDAKO BIDAIA
 - 2.11. LIZENTZIAK IZAPIDETZEARI, OBREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIARI, PLANTAKO INSTALAZIOEN LEGEZTATZEARI, INGURUMEN-BAIMENEI ETA ZEHAPEN-ESPEDIENTEEI BURUZKO ALDERDIAK.
 1. Jarduera sailkatuaren eta obren lizentzia
 2. Obrak aldatzea
 3. Obra-amaierako ziurtagiria
 4. Hasierako irekitze-lizentzia
 5. Jarduera-lizentzia berria
 6. Irekitze-lizentzia
 7. Ingurumen baimen integratua
 8. Zehapen-espeditentek

Ugari izan dira Bioenergía Ultzama SAr irekita-ko zehapen-espedienteak. Txostenean honako hauek aipatzen dira:

2.12. ZINEGOTZIEK PARTE ERABAKIAK HARTZERAKOAN PARTE HARTZEA, HAIEN ABSTENTZIOA BEHAR ZENEAN

2.13. UDALAK PLANTAREN ZAINPE ADMINISTRATIBOA EGITEA ETA JARDUERA ETEA.

2.13.1. Administrazio-emakida zainpean uztea

1. Paymacotasen 2014ko urriaren 31ko txostena: agertoki ekonomiko eta teknikoak; bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa.

2. Paymacotasen 2014ko abenduko txostena: kalteen balorazioa

3. AIN eta GANASaren txostenak, Iruñerriko Mankomunitatearen enkarguz egindakoak: planteatutako agertoki ekonomikoak.

4. Zainpeak iraun zuen bitartean plantako kontu-hartzailea izan zen ALBATROS 2014 SLren txostenak

a) 2014ko abenduaren 10eko txostena, zainpearen hasieran plantak zuen egoera orokorrari buruzkoa

b) 2015eko uztailaren 31ko txostena, plantan operatzeko egin beharreko inbertsioei buruzkoa.

c) 2016ko urtarrilaren 15eko txostena, zainpearen amaieran plantak zuen egoerari buruzkoa.

2.13.2. Biogas plantaren jarduera geratzea.

2.14. ULTZAMAKO UDALAK JASOTAKO LAGUNTZAK EDO DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEKO ESPEDIENTEAK

2.15. BIOENERGÍA ULTZAMA SA LIKIDATZEKO PROZEDURA

2.15.1. Lehiaketaren aurrekoa:

2.15.2. Borondatezko konkurtsoaren eskaera: arrazoiak eta bideragarritasun plana

2.15.3. Enpresa likidatzeko eta jarduera etete-ko eskaera, Bioenergía Ultzama SAr akziodunen Batzar Nagusiak egina.

3. KONKLUSIOAK

1. HITZAURREA

Kontuen Ganberak, 2007ko apirilaren 27an, Ultzamako biometanizazio plantari buruzko fiskalizazio txostena eman zuen. Komeni da konklusioen idazki honen hasieratik gogoan izatea txosten horri amaiera ematen zion gomendioa:

“Txosten honen emaitza ikusirik, Kontuen Ganbera honek beste behin gomendatzen du mota horretako proiektuak, onura publiko eta interes orokorrekotzat jotzen direnak, egoki planifikatu, gauzatu eta kudeatu daitezela, indarra duen arau-esparruari lotuta. Horretarako beharrezkoak dira, batetik, bideragarritasun-plan eta proiektu ahalik eta sakonen eta zehatzenak; eta, bestetik, adjudikatutako kontratuak gauzatzeko moduaren jarraipen eta kontrol egokiak. Horrela saihestuko dira fiskalizazio honetan deskribatutakoa bezalako egoerak”.

2007ko maiatzaren 3an, agiri hau sinatzen dugun taldeok idazki bat aurkeztu genuen Parlamentuko erregistro orokorrean. Bertan ikerketa batzorde bat eratzeko eskatu genuen, Parlamentuko Erregelamenduaren 62. artikulua babesean.

Batzordeak ikergai izan behar zituen “Iraizotzen (Ultzama) abeltzaintzako mindetan oinarritutako elektrizitate-produkzioko planta baterako obra publikoaren emakidarako eta ondoren planta hori ustiatzeko prozedura; horren proiektu teknikoak; emakida Bioenergía Ultzama SAri lagatzea; zinegotziek merkataritza-sozietate horretan bazkide gisa parte hartu izana; jardueraren garapena eta plantaren itxiera, eta Nafarroako Gobernu departamentuek emandako laguntzetatik edo dirulaguntzetatik heldu diren funts publikoen erabilera eta xedea”.

Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Ikerketa Batzordea sortzea erabaki zuen, talde parlamentarioek eskatutako xederako. Batzordea sortzeko erabakia 2017ko maiatzaren 23ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 74. zenbakian.

Hainbat erakunde eta entitateri eskatu zaizkien agiriak aztertu eta talde parlamentarioek eskatu dituzten agerraldiak egin ondoren, bidezkoa da Ikerketa Batzordearen ondorioei buruzko txosten hau egitea.

Beste ezer baino lehen Batzordeak argi utzi nahi du izaera politikoko organoa dela eta inola ere ez dituela ordetzen abian izan litezkeen prozedura judizialak. Idazki honetan aipa daitezkeen erantzukizunak politikoak direla ulertuko da beti, inoiz ere ez dira hartuko zigor edo administrazio

arloko erantzukizun juridikotzat, horrelakoak kasuan kasuko jurisdikzioaren esku daudelako soilik.

Ganbera honetako zerbitzu juridikoek aurtengo martxoaren 7an emandako txostenean –Parlamentuko ikerketa batzordeetan agertzeko deitutako pertsoneri aplikagarri zaizkien betebeharrei buruzko txostena– azaltzen den moduan, Konstituzio Auzitegiak hau adierazi du:

“Parlamentuko batzordeek, ikertzeko eta aztertzeko ahalmenak erabiltzen ari direnean, egokitasun politikoari buruzko iritziak ematen dituzte, dagokien bezala. Litezkeenik sendoen eta funtsatuenak izanda ere, iritzi horiek juridikoki ez dira egokiak prozesu judizialak bakarrik berma dezakeen ziurtasun uste osoa ordetzeko» (KAre 46/2001 Epaia, otsailaren 15ekoa, 12. zuzenbideko oinarria). Ikerketaren emaitzari ez ezik, Parlamentuko ikerketa batzordeen jardura osoari aplikatu behar zaio bereizketa hori, batzordeei ezin baitzaie eskatu organo jurisdikzionalak berezkoa duten objektibotasun eta inpartzialtasunik”. (KAre 39/2008 Epaia, martxoaren 10ekoa, 7. zuzenbideko oinarria”.

Beraz, hasieratik argi utzi nahi dugu ikerketa batzordeak ezin direla organo judizialekin parekatu, baizik eta, zalantzarik gabe, motibazio politikoak eta helburu politikoak dituzten ikuskapen organoak direla, eta ikuspegi horretatik aztertu behar dela konklusioen idazki honen edukia.

Aipatu beharrekotzat jotzen dugu, halaber, Batzordeak ezin izan duela bere lana erabat osatu pertsona batzuek uko egin diotelako beraren aurrean erantzuteari. Zehazki, uste dugu Batzordeak ikerketaren puntu batzuk hobeki argitu ahalko zituzkeela zenbaitek deklaratu izan balute: Francisco Pérez Arregui jaunak (Ultzamako alkate ohia) Francisco Tornaría Iguelz jaunak (Ultzamako alkate ohia eta Bioenergía Ultzama SAko administrazio kontseiluko kide izandakoa), Jiri Bezdicek Vondrackova jaunak (Levenger SLko eta Anza Mantenimiento SLko administratzaile solidarioa, eta Bionergía Ultzama SAko administrazio kontseiluko burua, sortu zenetik 2013ra arte), eta Francisco Iribarren Altuna jaunak (Ultzamako Udaleko zinegotzia eta Bionergía Ultzama SAko bazkidea) eta Agustín Ancizu Elizondo jaunak (Ultzamako Udaleko zinegotzia eta Bionergía Ultzama SAko bazkidea).

Deklaratzeari uko egin dioten pertsona horiek, batez ere Ultzamako Udalean kargu publikodun gisa erantzukizunak izan zituzten –batzuek karguan segitzen dute, Pérez Arregui jauna adibide– eta prozedura penalean ikertuta ez zeuden horiek,

Batzordearen ustez, mespretxu egin diete Nafarroako Parlamentuari eta esleituak dituen eginkizunei, kontu publikoak kontrolatzea baita eginkizun horietako bat.

Batzorde honek justifikaziorik eta inolako balio etikorik gabekotzat jotzen ditu kargu publikoa duten edo izan duten pertsona horiek erabilitako argudioak, ikertu diren egitateen larritasunagatik. Agertu duten jarrera opakua kudeaketa publikoaren gardentasunaren guztiz aurkakoa da. Hain zuzen ere gardentasun hori nagusitu behar zatekeen Batzordean egin dituzten agerraldietan.

Hori guztia gorabehera, Batzorde honek txosten honetan jasotako konklusioak formulatu ahal izateko behar adina elementu erabili ditu ezagutzaren eta informazioaren aldetik.

Konklusioei buruzko txosteneko hitzaurre honetan Batzordeak Kontuen Ganberari eskertu nahi dio Ultzamako biometanizazio plantari buruz egindako lan guztia, hala fiskalizazio txostena nola erakunde horretako lehendakariak gerora eman

dituen argibideak, ikertu den prozesu osoaren irregulartasunetako asko atzematea ahalbidetu baitute.

Aldiz, gaitzetsi egin nahi du Agrupación de Ultzama taldeak –kudeaketaren eta erabakien urteetan gehiengoa zuen udal taldea– izandako jokabidea, bi aldiz ere abstenitu zelako osoko bilkuretan, Kontuen Ganberak bere fiskalizazio lana egin ahal izateko beharrezkoa zen udal erabakia galaraziz. Txosten honetan esaten direnak ikusirik, adierazgarri gertatzen da artean alkate zen eta geroago zinegotzi izanen zen Tornaría jaunak bi osoko bilkura haietan adierazitakoa.

2014ko abenduaren 10ekoan hau adierazi zuen bere taldearen abstentzioa justifikatzeko: “(...) Zuzenbidearen arabera jokatu dela uste dute, eta ez dute zalantzarik egiten dena behar bezala egin dela eta legeak zorrotz bete direla. 2015eko azaroaren 25eko bilkuran hau esatera iritsi zen: “(...) jakin behar zenuketenez, Kontuen Ganberak ezin du esku hartu enpresa pribatuetan”.

2. BATZORDEAK IKERTUTAKO GERTAE-REN GAINEKO BALORAZIOAK

2.1. ULTZAMAKO MINDEN ARAZOEI BURUZKO AURREKARIAK

2.1.1. Arazo orokorrak.

Abereen minden kudeaketa beti izan da arazo Ultzaman eta udalerrri mugakideetan, bai haien bolumenagatik, bai haien tratamenduaren inguruko arazoengatik.

Abere ustategien titularrei dagokie sortzen diren hondakinak egoki kudeatzeko betebeharra, eta erakunde publikoen ardura da kudeaketa hori errazteko tresna egokiak garatzea eta, halaber, ingurumen kontroleko lanak egitea, araudi aplikagarriaren urratzeak eta urratze horien ondoriozko kalteak ekiditeko.

2.1.2. Abeltzaintzako ITGren 2004ko txostena

Horren haritik Nafarroako Abeltzaintza Kudeatzeko Institutu Teknikoak 2004ko abenduan egindako lan bat aipatu nahi du Batzordeak: “‘Ultzamako hariztietako BILa’ izendatutako lurraldean abeltzaintzako hondakinak, mindak eta simaurrak kudeatzeko diagnostikoa eta jarduketa-proposamenak”.

Azterlanak xede hauek zituen:

Ultzamako hariztietako BILaren barruan abeltzaintzako jarduera kuantifikatzea, hondakin organikoak (mindak eta simaurrak) sortzearen ikuspuntutik.

148/2003 Foru Dekretuan jasotako ingurumen araudia Ultzamako hariztietako BILeko lurraldean dauden abeltzaintzako ustategietan aplikatzearen ondorioak aztertzea.

Eremu horretako abeltzaintzako hondakin kudeaketaren inguruko arazoetarako irtenbideak proposatzea.

Azterlanean zenbait jarduketa-proposamen bildu ziren, batera edo banaka aplikatuta minden kudeaketaren arazoa konpontzen lagun zezaketanak. Ingurumen araudia betetzera, hondakin gutxiago sortzera eta minden kudeaketan laguntzera bideratutako neurriak ziren.

Aipatu behar da neurri horien artean ez zegoela elektrizitatea ekoizteko biogas planta mankomunitaturik. Bazegoen neurri bat (3.3 neurria) udalen eta BILeko kudeaketa entearen arteko mankomunitatea sortzea aipatzen zuena, “lurrak kudeatu ahalko dituen, eta mindak zabaltzeko makina bereziak eskuratu”. Konpostajea ere aipatzen zen, baina hau adierazten zen: “Konponbide konplexua

da, hasierako inbertsio handia behar duelako, baina inguruan zur industria batzuk izatea du bere alde. Errentagarritasuna ere zalantzazkoa da, eta beraz, beharrezkoa litzateke erakundeen laguntza”.

Konklusioen atalean (12. konklusioan) hau adierazten zen: “Jakirik banakako konponbideak ezegonkorragoak direla (batez ere klimaren gora-beherengatik), komenigarria litzateke CUMA gisako egitura edo mankomunitate bat sustatzea abeltzain talde baten hondakinak kudeatzeko eta abeltzainok kudeaketa horretatik askatu ahal izateko”.

Azterlanaren amaieran gogoeta hau egiten zen (13. gogoeta): “Ultzamako BILa leku aproposa izan daiteke administrazio guztiek babesutako proiektu pilotu bati ekiteko, zeinean hondakin eta lurren kudeaketarako sistema komun bat saiatuko bailitzateke”.

Azterlan horren haritik, Ultzamako BILeko abeltzainen eta lurraldea BIL horren barnean duten erakundeen artean mugimendu bat hasi zen, abereen minden kudeaketa egokiagoa ahalbidetuko zuen konponbide bateratuaren bila.

Minden kudeaketa ingurumenaren aldetik egokia izateko ez da ezinbestekoa ezaugarri horiek dituen planta bat. Beraz, esan beharra dago ez dela egia biometanizazio planta baten beharra dagoela ingurumena zaintzeko. Biometanizazio plantan tratatu ondoren, mindak larreetan isuri behar dira beti bezala. Ultzamako plantan –eta energia berriztagarrietarako diru-laguntzen ezantaren garaian sortu ziren beste askotan– tratamenduak helburu ekonomiko soila izan zuen: Espainiako Estatuan ematen ziren sariak kobratzea.

Biometanizazio bidezko tratamendua tarteko tratamendua da, eta ez du aldatzen hondakineta-ko nitrogenoaren eta metal astunen kopurua. Benetako tratamendua landan aplikatzea da, larreetan barreiatzea: tratamendu finalistat jotzen da eta beraren ondoren jada ez dago hondakinik. Minden kudeaketa egokiaren oinarria da minda-putzu nahiko handiak edukitzea, minda une egokian eta baldintza klimatologikoen mende egon gabe zabaldu ahal izateko belardi landuetan, alde batera utzita biometanizazio planta dagoen ala ez. Hori guztia, jardunbide egokiei buruzko eskuliburuaren arabera.

Batzordeak ezin izan du zehaztu zein egun edo unetatik aurrera planteatu zen minden tratamendurako tarteko fase bat, biometanizazioa, eta noiz erabaki zen eredu horrek ezinbestekoa zuela

elektrizitatea sortzeko biogas planta baten eraikuntza.

Hori bai, egiaztatu da 2006. urtean zehar eta 2007. urtearen hasiera aldera zenbait bilera egin zituztela Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalen ordezkariak eta instalazioak udalerrri horietan zituzten abeltzainek, ukitutako alderdi guztien arteko konponbide bateratu hori sakonago aztertzeko. Bilera horietako batean edo batzuetan Levenger SLren ordezkari Jiri Bezdicek Vondraczkova jaunak parte hartu zuen, eta berak azaldu zien bildutako komeni zela biogas planta baten eraikuntzaren bidezko kudeaketa kolektiboa hautatzea, huraxe zelako aukera egokiena. Partehartze hori berretsita dago Basaburuko alkate ohi Soraluze Arregui jaunak eta Mariñelarena jaunak egindako adierazpenen bidez. Azken horrek Batzordearen aurrean hauxe esan zuen: “Zenbait bilera egin ziren abeltzainekin, eta gogoan dut bilera batean Jiri jauna egon zela (...) biometanizazio prozesua nolakoa zen azaltzen”.

Une honetan komeni da azpimarratzea pertsona horrek (“txekiarra” esaten ziotena) biogas plantak eraikitzen dituen Vitkovice Power Engineering AS enpresa txekiarraren interesak ordezkatzeko zituela Espainiako Estatuan.

Abeltzainek egindako jarduketan artean nabarmentzekoa da 2007ko otsailaren 21ean egin zutena:

“(…) gehienak Ultzamako Udalarari zuzendu zitzaizkion eskaera-idazki batean, zeinean adierazten baitzuten, ‘Ultzamako Udalak, abeltzainen batzordeak eta Nafarroako Gobernuak Nekazaritza eta Ingurumen departamentuek ustiatzeko kudeaketaren ingurumen-eraginei buruzko egungo araudia jakitun, eta, bereziki Ultzama eta Basaburuko BILeko ukituak direlako, beren hondakinatarako konponbide global bat bilatu nahian, minden kudeaketarako zerbitzu bateratua martxan jartzeko behar den guztia egiteko eskatzen diotela Ultzamako Udalarari”.

Ildo beretik adierazgarria da 2007ko ekainaren 7an “Patxi Perez”ek orduan Auzako Kontzejuko lehendakari zen “Iñaki Goñi”ri bidali zion faxa. Bertan hau adierazi zion:

“Telefonoz komentatu dugun bezala, honekin batera BAIMENAREN EREDUA bidali dizut, zure kontzejuko NPE barruko lurzatiak abeltzaintzako hondakinak kudeatzeko proiektu MANKOMUNATU berriaren eraginpean gera daitezkeen baimentzeko. Jada entzuna izanen duzunez, PRESA HANDIA DAGO, eta horregatik eskatzen dizugu sinatu eta faxez itzul diezaguzula edo zuk zeuk

ekar dezazula, bihar (2007ko ekainaren 8a, ostirala) baino lehen, Ingurumen Departamentuan izapidetzen ari den diru-laguntza lortu ahal izateko”.

Eredu horretan esaldi hau jarri behar zela adierazi zitzaion kontzejuko horri eta inguruko gainerako kontzejuei: “Ados nago Ultzama, Basaburua eta Odietako udalek abeltzaintzako hondakin kudeaketarako sistema mankomunatu sortzeko sustatutako proiektuarekin”. Ez zen kudeaketa mankomunatu horri buruzko beste zehaztasunik erantsi, ezta hura biogas planta baten bitartez garatuko ote zen ere, nahiz eta –gero azalduko denez– 2007ko apirilko aurreproiektuan, beste aukera batzuk aztertu eta alboratu ondoren, konponbiderik onentzat planteatzen zen biogas planta mankomunatuaren bidezko kudeaketa kolektiboa.

Auzako Kontzejuko lehendakari Goñi jaunari bidalitako faxean adierazi zen “Ingurumen Departamentuan izapidetzen ari den diru-laguntza” lortu nahi zela idazkiaren bitartez; baina nabarmendu behar da egun hartan, 2007ko ekainaren 7an, artean ez zegoela ezer izapideturik. Izan ere Ultzamako alkateak ez zuen 2008ko ekainaren 19ra arte formalki erregistratu diru-laguntza horren eskaera Landa Garapeneko Departamentuan. Horrek agerian jartzen du diru-laguntza eskatzeko idazkia formalki aurkeztu aurretik Ultzamako Udalak harremanak izan zituela Landa Garapeneko Departamentuarekin diru-laguntza lortze aldera, eta zalantzarik gabe harreman horietan Ultzamako Udalarari gomendatu zitzaion beste udal batzuekin “mankomunatu” eskaera aurkez zezala, puntuazio hobea lortzeko eta horrela diru-laguntza handiago baterako aukera izateko.

Batzordeak daukan dokumentazioan honako hau azaltzen da aurreproiektuko oroitidazkian:

“Mindak kudeatzeko eredu mankomunatu ustiatzeko bakoitzak bere mindak kudeatzearen ordezkari aukera gisa planteatzen da. Jada azaldu den bezala, sistema horrek minden kudeatzaile bakarra sortzera behartzen du. Figura hori zehaztuz joanen da sortzen diren aukeren arabera, baina argi ikusten da gutxienez % 50eko partaidetza izanen dutela ukitutako abeltzainek eta udalek”.

Batzordeak egiaztatu du kudeaketa eredu hori ez zela inoiz ezarri, nahiz eta 2008ko urriaren 15eko “Biogás La Ultzama” negozio planean (4. zirriborroa) “talde sustatzaile” bat planteatzen zen, hainbat arlotako enpresaburuek osatua. Bakoitzak bere ezagutzen eta proiektua sustatzeko gaitasunaren arabera ekarpena egin behar zuen.

Talde sustatzaileko kideak Biogás Navarra SL sozietatea, Ultzamako abeltzainak eta Ultzamako Udala ziren, eta proiektuaren aldeko faktore bul-tzatzaile hau nabarmendu zen, besteak beste: “elkarren osagarri diren eta antzeko proiektuen ezarpenean lehendik esperientzia duten hainbat profitek bat egitea talde sustatzailean”. Agiri berean, forma juridikoari buruzko atalean, jarduera Biogás Ultzama SL sozietatearen bitartez eginen zela adierazten zen, eta hauek zirela partaideak: “Biogás Navarra SL sozietatea, Ultzamako abeltzainak eta Ultzamako Udala”.

Horrek guztiak agerian uzten du, Batzordearen ustez, zerbitzua udalekotzeari buruzko edozein erabaki hartu baino lehenagotik Ultzamako Udaleko Alkatetzan lanean ari zirela enpresa jakin batek gara zezan jarduera, eta enpresa horretan Udalak berak parte hartu behar zuela. Ezin izan da egiaz-tatu Biogás Ultzama SL eta Biogás Navarra SL enpresak bazirenik, ezta nor izan zitekeen haieta-ko partaide edo bazkide ere.

2.2. Ultzama, Basaburua eta Odietako udalen arteko mankomunitaterik eza.

Batzordearen eskura dauden agirietan eta egin diren agerraldietan argi gelditu da, Ultzama, Basaburua eta Odietako udalen arteko “mankomunitate” bat hainbat aldiz aipatu den arren, inoiz ez zela halakorik izan.

Batzordeak eskatuta, Ultzamako Udaleko idazkariak ziurtatu du (toki erakundeak bidalitako 19. agiria) ustezko mankomunitate horren estatuturik ez dagoela udaltxean.

Basaburuko Udalak 2007ko apirilaren 27an hartutako erabaki baten ziurtagiria besterik ez dago Batzordearen espediente osoan. Ultzamako Udaleko alkateak urte bereko apirilaren 26an igorritako eskaera –“hilaren 27an eginen duzuen osoko bilkuran Ultzamako udal honekin bat egin dezazuela minden kudeaketa mankomunatuari eta biogas planta baten balizko sorrerari begira”– aintzat hartuz, Basaburuko Udalak bat egitea erabaki zuen eskaeran adierazten zen bezalaxe.

Egiaz, zenbait toki erakunderen arteko “kudeaketa mankomunatu” aurrera eramanez zela erakutsi nahi izan zen, Toki Garapeneko Departamentuan diru-laguntzak batera eskatu ahal izateko. Horrela, departamentuan eskaerak haztatzeko orduan, haienak puntuazio handiagoa jaso ahalko zuten.

Ultzamako Udalak diru-laguntza bere kabuz eskatzearen eta “kudeaketa mankomunatu” baliatuta eskatzearen arteko aldea funtsezkoa

zen, eta Ultzamako Alkatetza horretaz jabetuta zegoen.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduak, 2008-2013 aldian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onetsi zuenak, 3. artikuluan honako hau zioen diru-laguntzaren zenbatekoari buruz:

“1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak laguntza hauek banatuko dizkie foru agindu honetako baldintzak betetzen dituzten entitate eskatzaileei:

a) Mendialdean dauden toki entitateak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 2002ko maiatzaren 15ean emandako Foru Aginduan ageri direnak, edo, bestela, foru agindu honen V. eranskinetako gainbehera doazen herrien zerrendan ageri direnak: diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 60.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 100 km²-tik gorako toki entitate bakoitzeko 250.000 euro izanen da, eta 100 km²-tik beherako entitate bakoitzeko 180.000 euro.

b) Gainerako toki entitateentzat, diruz lagundu daitekeen gastuaren % 40. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 100 km²-tik gorako toki entitate bakoitzeko 80.000 euro izanen da, eta 100 km²-tik beherako entitate bakoitzeko 50.000 euro.

c) Zenbait toki entitatek inbertsioak mankomunitatean egiten badituzte eta mankomunitateko lurren % 50 baino gehiago mendialdean edo gainbehera doazen udalerrietan badaude, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 60. Halakoetan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.000.000 euro izanen da”.

Laguntzen eskaera aurkezteko orduan bi aukeren arteko aldea 750.000 eurokoa zen, eta horregatik Ultzamako Udalak bere esku zegoen guztia egin zuen “mankomunitate” bat zegoela pentsarazteko une oro: 2006an eta 2007an zehar egindako aurretiazko bileretan, enkargatutako proiektuetan, Landa Garapeneko Departamentuari aurkeztutako dokumentazioan, administrazio-ema-kida adjudikatu zitzaion enpresarekin sinatutako kontratuetan... Hori guztia helburu argi baterako egin zuen: jaso zezakeen diru-laguntzaren zenbatekoa handiagoa izatea lortzeko; eta Alkateak bazekien, jakin ere, azken helburua zela diru-laguntza eskualdatzea azken onuradunari, hau da, diru-laguntza eskualdatzea bestela halakorik jaso

ezin zezakeen enpresa bati, gero aztertuko den bezala.

2.3. ULTZAMAKO BIOGAS PLANTAREN AURREPROIEKTUA ETA PROIEKTUA AIERDI INGENIEROS SLRI KONTRATATZEA

2.3.1. Kontratazio prozesu administratiborik eza: udal idazkariaren ezezko ziurtagiria 2007an.

Batzordeak ez du batere zalantzarik egiten: biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua zuzenean eta kontrataziorako inolako administrazio-prozedurarik gabe adjudikatu zitzaizkion Aierdi Ingenieros SL enpresari. Adjudikazio hori irregulartasun larria izan zen, bai eta orduan indarrean zegoen Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen ez betetze nabarmena ere.

Batzordeak ongi aztertu ditu garai hartan Ultzamako Udaleko idazkaria zenak egin dituen bi agerraldiak, eta gure konklusioa da agerraldi horietan egindako adierazpenak ez direla egiazkoak. Ez dira egiazkoak zenbait arrazoiengatik:

- lehenik eta behin, bere adierazpenak egokitu joan zelako lehenengo agerralditik bigarrenera, halako moldez non argi geratu baitzen ez zela kontrataziorako inolako prozedurarik argitaratu kontratazio atarian, ez dagoela inon jasorik horretarako abiarazi edo izapidetu behar ziratekeen administrazio espedienteen berririk –nahiz eta faxez edo posta elektronikoz izapidetu omen ziren–, eta ez dagoela Udalaren sarrera-erregistroan inongo enpresak edo ingeniaritzak aurkeztutako eskaintzaren dokumenturik.

- bigarren, ez dagoelako, kontrakoa kategorikoki baieztatu den arren, 2007. urtean zehar emandako Alkatetzaren ebazpenik biogas plantaren aurreproiektua edo proiektua Aierdi Ingenieros SLri adjudikatzeari buruzko inolako erabakirik onartzen duenik.

- hirugarren, badirelako Ultzamako egungo udal idazkariaren bi ziurtagiri honako hau diotenak: “Ez dago jasorik Udalaren Osoko Bilkurak inongo ebazpen edo erabakirik onartu zuenik 2006 eta 2007 bitartean AIERDI INGENIEROS enpresari enkargatzeko Ultzaman biometanizazio planta bat eraikitzeari eta horren bideragarritasunari buruzko aurreproiektua, gasa eta elektrizitatea sortzeko planta mankomunatu baten obra-proiektuak eta planta horretako obra zibila eta hobien eraikuntza”.

Badago jasorik bi dokumentu horiek, aurreproiektua eta proiektua, ingeniaritza enpresa horrek egin zituela 2007ko apirilean eta ekainean,

hurrenez hurren. Izan ere, haietako lehenengoa jendaurrean jarri zen jarduera sailkaturako lizentzia lortzeko prozesuaren barruan, eta, gainera, bi dokumentuen kopiak igorri dira, eta orduko data dute.

Aurrekoari Mariñelarena jaunaren adierazpenak gehitu behar zaizkio. Bere agerraldian esan zuen Udalarekin harremanetan jarri ondoren haiek eskaintza bat egin zutela, eta gero “(...) aurrera, ekin diezaiegun lanei” esan zutela, baina ez zuen gogoratu 2007an edo 2008an inongo prozedurarik egin zenik, nahiz eta lan horiek 2007an egin izana aitortu zuen.

2.3.2. Levenger SLren parte-hartzea biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua egiten.

Halaber Batzordeak egiaztatu du Levenger SLk biogas plantaren administrazio-emakidaren eta obren kontratua adjudikatu aurreko prozesuan parte hartu zuela, eta ez soilik gorago aipatutako aurretiazko bileretan, zeinetan Berdicek jaunak protagonismo nabarmena izan baitzuen.

Gainera, zuzenean parte hartu zuen aurreproiektua prestatzen, eta, zehazki, aztertutako aukeren artetik hautatu zen konponbidea prestatzen. Hain zuzen ere berak idatzi zuen aurreproiektuaren 1. eranskina, “Digestio anaerobikoa egiteko eta biogasa ekoizteko sistemaren deskribapena” izenburukoa. Dokumentu hori, hala aurreproiektuan nola proiektuan, plantan biogasa ekoizteko ereduari buruzko erreferentzia tekniko nagusia da. Ez da digestio anaerobikoko prozesuaren deskribapen informatzailea, aurreproiektuaren atal banaezina baizik, eta bertan Ultzamaren zuzeneko aipamenak daude, Ultzamarenak soilik.

Dokumentuaren 49 orrialdeetan zehatz-mehatz azaltzen dira digestio prozesua bera, tratatu beharreko hondakinen ezaugarriak eta hautatutako konponbide teknikoak. Ultzaman eraiki beharreko plantaren xehetasunak deskribatzen dira, fase guztiak azalduz: harrera, konbi-kudeaketa, tratatutako minden metaketa, kogenerazioa, higienizazioa eta solidoen bereizketa.

Joseba Sagastibeltza Juantorena industria ingeniari teknikoak egin zuen eranskin hori. Garai hartan, hau da, 2007ko apirilean, jada Levenger SLn lan egiten zuen. Bioenergía Ultzama SArean eraketa-eskritura egin zenean, Levenger SLko administratzailea, Zubeldia andrea, halakotzat agertu zen, sozietate eratu berrian Levenger SL ordezkaturako zuen pertsona fisiko gisa Sagastibeltza jauna izendatzeko.

Eranskin teknikoak ez ezik, ordea, Levenger SLren zigorak zeukaten bi plano ere erantsi ziren – horietaz ari zen Kontuen Ganbera, “barnean hartzen du ekoizpen plantaren eskema bat, adjudikazioa egokitu zitzaion enpresak sinatua” esan zuenean (12. or.)–, agerian jartzen dutenak enpresa horrek zuzenean parte hartu zuela biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua prestatzen. Bi planoak ingeniari berak sinatu zituen, Sagastibeltza jaunak, eta honako ohar hauek jaso ziren “Ekoizpen plantaren eskema” izenekoa: “Bezeroa: Ultzama”, “Proiektua: 05-abe”, “1. berrikuspena: 07-api”.

Levenger SLko ingeniariak idatzitako eduki teknikoak eranskin hori gehitu zitzaion bai biogas plantaren 2007ko ekaineko proiektuari zein 2007ko urrikoari eta orobat 2008ko ekainean egin zen proiektuari, zeinak egindako aldaketa guztiak biltzen baititu, bai eta obren emakidaren kontratazioan lizitatutako behin betiko aurrekontua ere. Hura 6. eranskin moduan aurkeztu zen Landa Garapeneko Departamentuan. Informaziorako erreferentzia soilak izan balitz –agerraldietan baten batek esan zuen moduan, hura jaso izanari larritasuna kendu nahian–, ez litzateke agertuko 2007ko proiektuaren edukian eta, bereziki, 2008an egindakoaren edukian. Informazio xederik ez zuenez, aitzitik, biogas plantarako hautatutako konponbidearen euskarri teknikoak zenez, prestatutako proiektu eta aldaketa guztietan zehar mantendu zen.

Ultzaman gasa eta elektrizitatea sortzeko planta mankomunatuaren aurreproiektua idazteko laguntza Europar Batasuneko publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatutako klausula administratibo eta ekonomikoen agiriak berretsi egiten du eranskin horren garrantzia. Klausulen agiri hori 2008ko martxoan onetsi zuen alkateak, Pérez jaunak, gero deskribatuko den modu irregularrean. Bertan, “prestazioaren edukia” ezarri zenean, aurreproiektuaren kontratazioaren xede ziren lanen artean hauek jaso behar zirela adierazi zen: oroitidazkia, “digestio anaerobikoa egiteko eta gasa ekoizteko sistemaren deskribapena”, obraren plana eta kronograma, planoak eta aurrekontuak. Alegia, Levenger SLk egina zuen lana funtsezkotzat jotzen zen aurreproiektuan, eta proiektuan ere bai.

Aurrekoa esanda, Batzordeak arreta jarri nahi dio inguruabar honi: biogas plantaren administrazio-emakidaren eta exekuzioaren kontratazio prozeduran Levenger SLk aurkeztu zuen eskaintzan Sagastibeltza jaunak sinatutako txosten bat sartu zen, eta horren edukia bai proiektuan bai aurreproiektuan jaso zen txostenekoaren berdin-berdi-

na da. Inguruabar horrek agerian uzten du, Batzordearen aburuz, irregularitasun oso larri bat. Izan ere, proiektu teknikoaren zati garrantzitsu baten diseinuan parte-hartze erabakigarri eta zuzena izan zuenak jaso zuen geroago biogas plantaren administrazio-emakidaren eta obrak egiteko kontratuaren adjudikazioa. Dokumentuaren beste atal batean berriro aipatuko da inguruabar hori, kontratazio prozeduran garrantzi handia izan bide zuelako.

2.3.3. Aierdi Ingenieros SLri egindako lanengatik Levenger SLk Bioenergía Ultzama SAri igorri zion faktura.

Aurrean azaldutako gogoetak direla eta, Batzordeak aipatu behar du Levenger SAK Bioenergía Ultzama SAri 2009ko ekainaren 25ean faktura bat igorri ziola, 27.500 eurokoa BEZik gabe, “Proiektuak prestatzeko aholkularitza teknikoak Aierdi Ingenieros SL enpresarentzat” kontzeptuarengatik. Izan ere, uste dugu faktura horrek agerian eta nabarmen utziko lukeela, berriro ere, Levenger SLren eta Aierdi Ingenieros SLren arteko harremana izan zela biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua idazteko orduan. Horrela berretsiko litzateke aipatutako plantaren administrazio-emakida eta obren exekuzioa kontratatutako prozeduran adjudikazioa jaso zuen enpresak izandako lankidetzaren harreman erabakigarria. Harritzekoa ere bada emakidaren lehenengo adjudikazio-hartzaile izan zenak, Levenger SLk, faktura bat igortzea berak emakida hori laga zion enpresari, Bioenergía Ultzama SAri, hirugarren baten zat, Aierdi Ingenieros SLrentzat, egindako lanengatik.

Lan horiek, Batzordearen ustez, aurreproiektua eta proiektua idazteko hasierako lankidetzaren horri egiten diote erreferentzia. Izan ere, bai Mariñelarena jaunak bai Cerdán andreak gai horri buruz eman zuten azalpena sinesgaitza izateko bezain iluna izan zen. Batez ere, faktura hori egin zen eta biogas plantaren eta kogenerazio instalazioaren kontratua gauzatu zen garaian Bioenergía Ultzama SAK bi laguntza tekniko jasotzen zituela kontuan hartuta.

Bata proiektuaren egileak berak ematen zion, obraren zuzendaritza fakultatiboa zeukanak, Aierdi Ingenieros SLk –Ultzamako Udalak ordaintzen zituen haren ordainsariak eta gero Bioenergía Ultzama SAri kobratzen zizkion–; bestea, berriz, Nafarroako Industriaren Elkartek (AIN) ematen zion: jabetzaren laguntzarako ingeniari-lanengatik 24.800 euro fakturatu zizkion, eta, beste alde batetik, biogasaren kogenerazio instalazioaren proiektuarengatik 37.200 euro.

Ez zuen beste laguntza tekniko bat ordaindu beharrik. Beraz, aipatutako fakturak estaldura eman zion biogas plantaren aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketan 2007. eta 2008. urteetan zehar Levenger SLk Aierdi Ingenieros SLri eskainitako parte-hartze eta lankidetzari.

2.3.4. 2007an egindako kontratazioari “estaldura formal” emateko 2008an garatutako kontratazio prozedura

Beste atal batean esan dugun bezala, 2007. urtean zehar, orduan Ultzamako Udaleko alkate zenak, Pérez jaunak, biogas planta mankomunatuaren aurreproiektua eta proiektu teknikoa idazteko eskatu zion Aierdi Ingenieros SLri, Mariñelarena jaunaren bitartez, kontrataziorako inolako administrazio-prozedurarik gabe.

2008. urtean jada, dokumentazio egokia Landa Garapeneko Departamentuan ekainean zehar aurkeztu beharko zela eta, Udalak “formalizatuta” eduki behar zuen 2007. urtean inolako kontratazio prozedurarik gabe egina zuen adjudikazioa.

Ultzamako Alkatetzarentzat arazoa ez zen ustezko faktura, (kontratutako ingeniari-tza enpresari ordaindu behar zitzaiona, udal idazkariak adierazi zuenez, eta Udalak igorritako dokumentazioan inondik inora agertzen ez dena), bai zik eta, Nafarroako Gobernuak goian aipatutako departamentuak egin behar zuen deialdian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak eskatu nahi baziren –alkateak, Pérez jaunak, bazuen lehendik deialdi horren berri–, eta ematen ziren diru kopuruak kobratu eta gero, ziurtatu egin beharko zela –udal idazkariak ziurtatu ere– proiektua idazteko laguntza teknikoaren kontrataziorako prozeduran kontratazio publikoari buruzko xedapen indardunak bete zirela. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen indarrez eskatzen zen hori, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduaren 9.1.c) artikuluan gauzatuko zen (lege horrek 2008-2013 aldian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri zituen eta 2008ko deialdia onetsi zuen).

Alegia, udal idazkariak, egoera horren jakitun zela, alkatearen jarraibideei eutsiz –bera izan baitzen orain hizpide ditugun Alkatetzaren ebazpenak sinatu zituen–, hiru kontratazio prozedura egin zituen. Prozedura horien elementu deigarrienak nabarmenduko ditugu, prozeduraren exekuzioan egin ziren irregulartasunak agerian jartzen dituztenak:

a) Udal idazkariak, espediente guztietan, kontratatatu beharreko lanen justifikazio eta deskriba-

pen faltsuak planteatu zituen aurretiazko txostenean:

“Ultzamako Udala, Odietako eta Basaburuko udal mugakideekin alde aurretik ados jarrita, planta mankomunatu bat ezartzeko aukera aztertzen ari da, inguruko ustiategi multzo bateko munda isurketetatik abiatuta gasa eta elektrizitatea sortzeko”.

Proiektuaren bideragarritasuna aztertze aldera, orain planteatzen da etorkizuneko instalazioaren aurreproiektua enkargatzea [plantaren eraikuntzaren proiektua bigarren kasuan eta obra zibilarren eta plantako biltegitarte hobien eraikuntzaren proiektua hirugarren kasuan], haren ezaugarri teknikoak, aurreikus daitekeen kostua, erabilgarritasuna, bideragarritasuna, ekoizpena, mantentzea eta abarreakoak ezagutzeko”.

Justifikazio horiek gezurrezkoak dira, lan horiek guztiak eginda zeudelako kontratazio prozedura egin zenean. Hala, bada, Udalak eta, ondorioz, Alkatetzak, jada aztertua zuten planta ezartzeko aukera, eta haren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen ari zen, kostua ezaguna zen... Beraz, espediente haiek onetsi zirenean argi eta garbi zegoen lehendik egindako adjudikazio bartzuei “estaldura formal” ematea beste helbururik ez zutela izan.

b) Baldintza-agiri guztietan hau ezarri zen: “Adierazitakoa baino prezio handiagoa aurkeztu duten eskaintzak baztertu egingen dira”. Hala ere, hiru prozeduretan, Aierdi Ingenieros SLk ez, beste bi ingeniari-tza enpresek aurkeztutako eskaintzek –halakotzat har badaitezke–, hots, Tindaya SLk eta Inval Ingeniería SLk aurkeztutakoek, lizitazioko prezioa gaintzen zuten eta ez ziren baztertu; aitititik, onartu eta baloratu egin ziren.

c) Hiru kontratazio prozeduretatik batean ere ez dago jasorik inolako kontraturik sinatu zenik Aierdi Ingenieros SLrekin Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 94.1 artikuluan aurreikusitako eran, udal idazkariak aurretiazko txostenean baieztatu zuen bezala.

d) Dagozkien espedienteetan ageri diren hiru eskaintzek, zergatik ez dakigula –ezin izan da egiazkoak direnik berretsi–, 2007ko data dute (martxokoa aurreproiektuaren kasuan eta uztailakoa plantaren proiektuaren eta hobien proiektuaren kasuetan), eta haietatik bakar batean ere ez da ageri zein egunetan sartu ziren Udalaren erregistroan (inoiz sartu baziren), ez eta nork aurkeztu zituen ere. TINDAYA Estudios y Proyectos ingeniari-tza enpresaren izenean Batzordearen aurrean agertu zen ordezkariak, De la Fuente Delgado andreak, hau esan zuen: “Behin ere ez

ginen jabetu kontratazio prozesu batean parte hartzen ari ginela. Ez genuen baldintza-agiririk izan, ez genuen daturik izan. Ez ginen joan hara. Ez ziguten deitu. Ez gintuzten ezagutu (...), guk ez genuen ezer eraman udaletxera. Erregistratu ere ez genuen ezer erregistratu (...) Iritsiko zitzairen, eta behin iritsita ez dakigu zer egin zuten harekin". Bestalde, INVAL Ingeniería enpresaren ordezkari Santos Monente andreak hau adierazi zuen: "Ez genuen eskaintzarik aurkeztu, ez hasitako administrazio-prozedura batean, ez lehiaketa batean, ez horrelako ezertan ere (...), ez genuen inolako baldintza-agiririk ezagutu".

e) Alkatetzak erabaki zuen, kontratazio organoa zen aldetik, proiektuaren idazketarako kontratazio proiektu bakarra egin ordez –proiektua zen diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko beharrezkoa zen dokumentua– hiru kontratazio prozedura egitea. Batzordeak egiaztatu du horren bidez kontratuaren xedea zatikatu nahi izan zela, haren zenbatekoa murrizteko eta publizitateari buruzko betekizunak edo zegokiokoen prozedura, hau da, prozedura irekia, saihesteko. Era horretara bai Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 22. artikulua bai 73.3.d) artikulua urratu ziren. Izan ere, zatikatu gabeko zenbatekoak 90.000 eurotik gorakoa izanzen zen eta, ondorioz, galarazi eginen zuen kontratazioa egitea jarraitu omen zen prozeduraren bidez, hots, Europar Batasuneko publizitatearik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

f) Ez da egiaztatuta geratu hiru espedienteetan aipatzen den kontratazio mahaia eratu zenik. Mahai horren existentzia zalantzan jartzeko arrazoi oso sendoak daude. Izan ere, hiru espediente-etako akta guztiak udal idazkariak soilik sinatuta daude, eta ez da inon ageri mahaian parte hartu behar zuketzen pertsonen sinadurarik.

g) Behar bezala formalizatuta ageri dira, aldiz, Alkatetzaren 74., 75. eta 76. ebazpenak, 2008ko apirilaren 24koak. Horien bidez Aierdi Ingenieros sozietateari adjudikatu zitzaizkion, hurrenez hurren, Ultzaman gasa eta elektrizitatea sortzeko planta mankomunatuaren aurreproiektua eta proiektua eta planta horretako hobien obra zibilarren eta eraikuntzaren proiektua: guztira 145.000 euro, BEZa barne.

Hiru ebazpen horietan adierazten da onetsi egiten dela adjudikazio-hartzailearekiko kontratuzko harreman hori arautuko duen laguntza-kontratua, baina kontratu horiek sekula ez ziren sinatu.

Garai hartan alkate zen Pérez jaunaren jokabidea, Batzordearen iritziz, egitate larria da. Izan ere, kontuan hartu behar da kargu publikodun

horrek jakin bazekiela urtebete lehenago, gutxi gorabehera, ingeniaritza enpresa horri berari adjudikatu zitzaiola aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketa, inolako kontratazio prozedurarik bete gabe. Forma hutsezko hiru prozedura horiek egin ziren 2008an, kontratazioari buruzko araudia bete-tearen itxurak egiteko asmo soilarekin, horrela aipatutako proiektua aurkeztu ahalko baitzen Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak emateko egin zitzakeen deialdietan, eta formalki frogatu ahalko baitzen aipatutako araudia errespetatu zela.

Pérez jaunaren jokaera hori Zigor Kodearen 404. artikuluan aurreikusten den prebrikazio delitu jarraitua izan liteke, Batzordearen ustez. Batzordeak uste du Alkateak gerora –biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua adjudikatu eta urtebetetera– egin zuena, hau da, hiru prozedura negoziatu izapidetzea publizitatearik gabe eta atzeraeraginezko ondoreekin, alkateak berak ezagutzen zuen egoera irregular bat estaltzeko ahalegina izan zela, zeinean albora utzi baitzen ezarritako prozedura.

Ustez prebrikazio delitu hori osatzen duten egitateen deskribapenik onena udal idazkari Araujo jaunak eskaini zuen, honako hau adierazi zue-nean:

"Bistan da proiektua eta aurreproiektua kontraturik zeudela, zeren nolabait ere uztaileko data baitzuen (...) Proiektu horiek udaletxean zeuden, proiektu horiek Nafarroako Gobernura eraman ziren jarduera sailkaturako lizentzia lortzeko. Eranskinak egin ziren. Alegia, proiektu horiek kontraturik zeuden. Une jakin batean, udalean hila-bete pasatxo generamala (...), faktura bat ordaindu beharra zegoen, eta orduan, une hartan, planteamendu korapilatsua izan zen. Faktura honek euskarriren bat izan behar du. Horrekin batera, baziren 2007. urteko eskaintza batzuk ere. Orduan, nolabait ere, euskarri hori egitea erabaki zen, zeinaren bidez ordaindu ahalko zen faktura, bistan baita hura lehendik hitzartuta zegoela, ezin baitzuzen kontratatu jada eskuan daukazun zerbait. Espediente hori garaiz kanpoko konponbidea da, garaia zenean egin behar zen baina hilabete batzuk geroago egin zen, ezinbestez ordaindu beharrek faktura baten ordainketa justifikatzeko. (...) Egitezko egoerarik, batere ez. Kontraturik zegoen. Faktura baten ordainketa justifikatu zen, faktura ordaindu izan ez balitz izugarritzko nahastea izanzen zelako. (...) proiektua hortxe bazegoen, bistan da proiektu hori aurretik kontratatu zela".

Batzordearen iritziz, adjudikazio-prozedura horietan ebazpenak arbitrariotzat jotzeko benetan axola duena ez da edozein irregulartasun gertatu

izana, baizik eta gertatu ziren irregulartasunen xedea kontratazio publikoari buruzko araudiaren kontrolak saihestea izatea. Kasu honetan aipa dezakegu, adibidez, kontratuak zatikatu izana beren publizitatea saihesteko eta ezarritako prozedurei jarraitu gabe haiek adjudikatzeko, eta alde aurretik aukeratutako kontratista bati adjudikatzeko, bai eta, halaber, prozedurarik egin ez izana ere, kontratua borondate hutsaren oinarriaren gainean adjudikatzeko, Pérez jaunak 2007. urtean egin zuen moduan, partikularren arteko kontratazio bat balitz bezala. Alegia, Batzordeak uste du kasu honetan prozedura baliatu egin zela, alde aurretik pentsatutako plan bat ezarri, kontratua lizitatzailerak jakin bati adjudikatzeko helburu zuena.

Kontratazio administratiboko prozesu batean egindako prebarikazio delitu bati buruz Auzitegi Goreneko Bigarren Salak 2015eko apirilaren 30ean eman zuen epaiaren zuzenbideko oinarrietatik hamaikagarrena ekarri dugu, Batzordeak egiaztatutako egitateekin duen antzekotasunarengatik:

“(…) 1995eko Zigor Kodeak delituaren tipo objektiboa argitu du, jurisprudenziazko doktrinak jada adierazten zuena jasoz, prebarikazio delitu diren ebazpenak “arbitrarioak” direla adierazi baitu, hau da, justiziaren, arrazoien eta legeen kontrako egintzak, borondate eta apeta soilez eginak (urtarrilaren 27ko 61/1998 Epaia, apirilaren 6ko 487/1998 Epaia edo ekainaren 9ko 674/1998 Epaia, eta Auzitegi Gorenaren 2004ko apirilaren 22ko 1590/2003 Epaia, Intelhorce auzian). Sala honek maiz errepikatutako jurisprudenzia (Auzitegi Gorenaren azaroaren 26ko 1021/2013 Epaia eta urriaren 11ko 743/2013 Epaia, besteak beste) azaldu duenez, prebarikazio delitua hautemateko, beharrezkoa izanen da: 1) agintari edo funtzionario batek ebazpen bat ematea afera administratibo batean; 2) objektiboki zuzenbidearen kontrakoa izatea, hau da, legez kontrakoa izatea; 3) zuzenbidearen edo legearen aurkako izaera hori –zeina eskumen falta erabatekoan, prozedurako funtsezko izapideen omisioan zein ebazpenaren funtsezko edukian bertan ager baitaiteke– hainbestearainokoa izatea non ez dagoen hura azaltzerik gutxieneko zentzua duen arrazoibide tekniko-juridiko baten bidez; 4) dakarren emaitza materialki bidegabea izatea; 5) agintari edo funtzionarioak bere borondate partikularra gauzatzeko helburuarekin eta zuzenbidearen kontra ari dela jakinda emandako ebazpena izatea. Oraingo kasuan baldintza horiek guztiak betetzen dira. Lehenik eta behin, ez da zalantzan jartzen akusatuak agintaria eta funtzionarioa direla, hurrenez hurren, eta errekurtsogileak zenbait ebazpen eman dituela afera administratibo batean, zehazki

kontratazio administratiboko prozedura batean, zeinak diru publikoak konprometitzen baititu. Bigarrenik, ezin da zalantzan jarri aipatutako ebazpenak objektiboki zuzenbidearen kontrakoa zirela, bi zentzutan: lehenengo, hornidura-kontratu bat zatikatu zelako, zenbateko txikiagoko hiru kontratutan zatituz, prozedura negoziatua saihesteko xedearrekin, azken horixe baitzen zuzenbidez erabili beharreko prozedura, kontratuaren jatorrizko zenbatekoaren arabera. Horrela urratu egin zen Estatuaren Kontratuei buruzko Legearen 74. artikuluan xedatutakoa. Hain zuzen ere honako hau xedatzen da: “Ezin dira kontratuak zatitu beren zenbatekoa gutxitzeko, publizitate-baldintzak edota adjudikazio-prozedurari dagozkionak saihestearren”. Eta bigarren, adjudikazioa kontratu txikien prozedurara bideratu eta gero, prozedura hori ere aldrebestu egin zelako, beraren eskakizun mugatuena, interes publikoa une oro babesteko ezarritakoak, iruzur baten bitartez urratuz. Izan ere, nahierara aukeratutako kontratista bakar bati eskatu zitzaion hiru aurrekontu ezberdin aurkezteko, enpresa banaren aurrekontuak itxuraz, eta aurrekontu horietan, nahierara aukeratutako kontratistak simulatu behar zuen berak eskaintzen zizkiola baldintza onuragarrienak Administrazioari, adjudikazioa beretzat izanen zela ziurtatzeko. Zuzenbidearekiko kontraesana ageri da bai prozedurako funtsezko izapideen omisioan bai ebazpenen funtsezko edukian bertan, eta hainbestearainokoa da non ez baitago hura azaltzerik gutxieneko zentzua duen arrazoibide tekniko-juridiko baten bitartez, legez kontrakotasuna biribila eta agerikoa delako. Komeni da nabarmentzea legez ezarritako prozeduraren omisioa gertaerak delitutzat kalifikatzeko bide eman dezakeen arrazoitzat onartu izan dela, kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura izapidetzeko ezarritako arauak arbitrarioratasunaren eta Zuzenbidearekiko kontraesanaren arriskuak urruntzea baitute helburu”.

Egindako prozedura osoari egiazkotasun eta legezkotasun itxura handiagoa eman nahian, Alkatezaren hiru ebazpenak espedienteetan prozedurako parte-hartzaile gisa ageri ziren hiru enpresei jakinarazi zitzaizkien, nahiz eta adjudikaziorik jaso ez zuten bi enpresen ordezkariak adierazi zuten ez zutela inongo prozeduratan parte hartu, ez zutela eskaintzarik aurkeztu eta Aierdi Ingenieros SLri, Mariñelarena jaunari zehazki, beren zerbitzuak eskaintzeko idazki bat aurkeztu besterik ez zutela egin. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bat arautzeko baldintza-agiririk ere ez zuten ez ikusi ez ezagutu.

2.4. OBRA-ZUZENDARITZA ADJUDIKA-TZEKO PROZEDURARIK EZA

Egiaztatu da ez zela inolako prozedurarik bete obra-zuzendaritza adjudikatzeko. Hala ere, egiaztatuta dago Aierdi Ingenieros SL arduratu zela obra-zuzendaritzaz. Ultzamako Udalak kontzeptu horrengatik 63.681,94 euro ordaindu zituen BEZik gabe. Mariñelarena jaunak, obren zuzendaritza kontratatzeke administrazio-prozeduraz galdetu ziotenean, “ez dut gogoratzen” erantzun zuen.

Udalak diru kopuru hori kobratu zion Bioenergia Ultzama SAri, Aierdi Ingenieros SLren fakturak ere fakturazio gurutzatuko sistemari sartu baitziren (geroago xehetasunez arituko gara sistema horretaz). Alegia, Bioenergia Ultzama SAk Udalaren bitartez ordaintzen zion ingeniarietako enpresa horri; Udalak, aldez aurretik, ingeniarietako enpresaren fakturak biltzen zituen faktura igortzen zion Bioenergia Ultzama SAri.

Udalak igorritako dokumentazioan obra-zuzendaritzari buruz dagoen aipamen bakarra honako agiri honetan dago: Biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestiorako planta mankomunatuaren zerbitzu publikoa administrazio-emaikidaren bidez kudeatzeko kontratuaren adjudikazioa eta geroko ustiapena gidatu behar dituzten klausula arautzaile bereziak. Lehenengo klausulan hau azaltzen da:

“Aierdi Ingenieros SL ingeniarietako estudioak egindako proiektu teknikoaren edukiaren arabera eginen dira obrak, eta estudio hori arduratuko da obren zuzendaritzaz”.

Inolako dudarik gabe, proiektuaren idazketaren kontratazioak ez zuen inondik inora ere barnean hartzen obra-zuzendaritzarena, bi laguntza-kontratu ezberdin baitziren. Baldintzen agirian egiten den aipamen soila ezin da hartu kontratazio-ko administrazio-prozedura gisa, kontratazio hori jakintzat ematen baita, nahiz eta ez den inolako prozedurari jarraituz egin; ez dago inongo berrespen juridikorik baldintzen agirian jasotako aipamen horretan. Kasu honetan, Kontuen Ganberak aurre-proiektuaren eta proiektuaren kontratazioari buruzko txostenean esan zuen bezala, ez zen izan “aldez aurretik egindako kontratazio irregular baten estaldura formalik”, baina egia da zuzeneko adjudikazio hori, erakunde beraren hitzetan, “ezarritako prozedura albora utzita eta kontratazioaren oinarritzeko printzipioak –publizitatea, gardentasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza– errespetatu gabe” egin zela.

Zuzeneko kontratazioa, inongo administrazio-prozedurarik gabekoa, Batzordeak egiaztatutako beste irregulartasun larri bat da, eta kasu honetan

Pérez alkate jaunaren jokabidea ere beste prebikazio delitu bat izan daiteke.

2.5. MINDAK BILTZEKO ETA ELEKTRIZITATEA SORTZEKO ZERBITZUA UDALEKOTZEKO PROZEDURA.

Ultzamako Udalak, 2008ko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

“Lehenengoa.- Honako jarduera hau egitea: “Elektrizitatea eta gasa sortzea eskualdeko abereustategietatik abeltzaintzaren hondakinak (mindak) jaso eta tratatzea abiapuntu hartuta”; izan ere, onura publikoko eta interes sozialeko jarduera bat da udal honentzat.

Bigarrena.- Jarduera edo zerbitzu hori baldintza hauen arabera gauzatu beharko da:

1.- Monopoliorik gabeko araubidean garatuko da.

2.- Kudeatzeko modua administrazio-emaikida izanen da.

3.- Zerbitzuaren/jardueraren emakida jasoko duen enpresa hautatzeko eta kontratatzekeo prozedura egokia beteko da. Horrela, baldintza egokiak biltzen dituen enpresari adjudikatuko zaio.

4.- Enpresa emakidadunak erantzukizun mugatuko sozietate bat eratu beharko du berariaz, eta sozietate horretan Ultzamako Udalak ere parte hartu ahalko du; inguruabar hori mugatu eta zehaztu eginen da zerbitzua/jarduera adjudikatzeko baldintzak ezartzeko orduan, berariaz eginen den adjudikazio-prozeduran.

5.- Instalazioak Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalerrietan kokatutako ustategietako mindak erabiliz funtzionatu beharko du”.

Batzordeak horri buruzko informazioa eskatu zion Ultzamako Udalari, eta Udaleko idazkariak ziurtagiri bat eman zuen, honako hau azaltzen zuena:

“Lehenengoa.- Ultzamako Udalak garatzekoa zen jarduera ekonomikoa udalekotekeo prozedura izapidetu zuen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 209. artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 86. artikulua eta horrekin bat datozen gainerakoek xedatzen dutenarekin bat etorritik, eta bertan eskatutako legeko izapide guztiak bete dira.

Hala, bada, Udal Idazkaritzaren urriaren 3ko txostenean jasota dagoen moduan (txosten hori espedientearen ageri da), hau egin zen:

– Osoko Bilkurak erabaki bat hartu zuen legez ezarritako gehiengoarekin (Udalbatzako kideen gehiengo osoarekin) eta bertan ezarri zen zerbitzu hori sortzea erabaki zela, MONOPOLIZATU GABEKO zerbitzua izanen zela, eta zeharka kudeatuko zela, administrazio-emakidaren bitartez.

(...)

Bigarrena.- Ultzamako Udalaren egoitzetan dagoen dokumentazioa ikusirik, EZ DAGO JASORIK aipatutako izapideak egin direnik, izapide horiek zerbitzua udalekotzeko prozesua gauzatzeko legezko beste prozedura bati dagozkiolako (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 205. artikulua) eta kasu zehatz honetan prozedura hori EZ zela aplikagarria iritzi zitzaiolako behinola”.

Batzordeak uste du jarduera udalekotzeko jarraitutako prozedura juridikoa, Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 8ko bilera hartan onartutakoa, legez ez zela bidezkoa eta bestelako egoerarako aurreikusitako beste prozedura bat erabili zela, beherago azaltzen diren arrazoiengatik.

Batzordeak uste du Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 205. artikuluan aurreikusitako prozedura erabili behar zela, eta ez 209. artikulukoa. Batzordearen azterketa puntu honetatik abiatzen da: udalekotu behar zen jarduera (“elektrizitatea eta gasa sortzea eskualdeko abere-ustiategietatik abeltzaintzaren hondakinak (mindak) jaso eta tratatzea abiapuntu hartuta”) ez da “toki entitateentzat erreserbatutako” jarduera edo zerbitzu bat, aipatutako 209. artikulua eskatzen duen bezala, artikulua hori Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 5/1985 Legearen 86. artikulua edukiarekin (2008an indarrean zegoen testuarekin) batera interpretatu behar baitzen.

Artikulu horrek honako hau xedatzen zuen 2008ko urrian:

“1.- Toki-erakundeek, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientearen bidez, jarduera ekonomikoak egiteko ekimen publikoaz balia daitezke, Konstituzioaren 128.2 artikulua arabera.

2.- Lehia askeko araubidean burutzen bada jarduera, korporazioko osoko bilkurari dagokio behin betiko onarpena ematea; berak erabakiko du zerbitzuaren kudeaketa-modu zehatza.

3.- Toki-erakundeek alde gordetzen dira funtsezko jarduera edo zerbitzu hauek: uraren hornidura eta arazketa; hondakinak bildu, tratatu eta aprobeztatzea; gasa eta berokuntza hornitzea; hilt-

tegi, merkatu eta lonja nagusiak; bidaiarientzako garraio publikoa. Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, berdin gorde ditzakete beste jarduera eta zerbitzuak ere lege bidez”.

Artikulu horren irakurketa soiletik ondoriozta daiteke elektrizitatea eta gasa sortzeko jarduera – udalekotu behar zen jarduera ekonomikoa – ez dela toki entitateentzat gordetzen diren horietakoa, eta abeltzaintzako hondakinak bildu ere ez duela batere zerikusirik 2008ko urrian indarrean zegoen 25.2.l) artikuluan aipatzen zen “hondakinak bildu eta tratamendu” horrekin. Eta ez du batere zerikusirik –nahiz eta idazkariak hala interpretatu zuen bere txostenean, erabakia hartu aurretik eman zuen txosten juridikoa justifikatzeko–, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 4.3 artikulua, udalekotzeko erabakia hartu zenean indarra zuenak, hau ezartzen zuelako:

“Toki entitateek hiri hondakinak kudeatzeko eskumena izanen dute, Legean ezarritako baldintzei eta, kasua bada, autonomia-erkidegoek ezartzen dituztenei lotuta. Udalei dagokie, nahitaezko zerbitzu gisa, hiri hondakinak bildu, garraiatu eta, gutxienez, ezabatzea, kasuan kasuko ordenantzek ezartzen duten moduan”.

“Hiri hondakinak” artean inoiz ez da interpretatu etxeetan sortutako bestelakorik dagoenik. Izan ere, abeltzaintzako instalazioetan sortutako hondakinak bildu eta tratatzea beti izan da haien titularren ardura eskklusiboa. Adierazi beharra dago, gainera, goian aipatutako 5/1985 Legearen 26. artikulua ere bat etorri, Ultzamako Udala ez legokeela hiri hondakinak tratatzeko zerbitzua ematera beharturik, zerbitzu hori 5.000 biztanletik gorako udalerrietzat gordetzen delako. Gainera, ezin da ahaztu garai hartan Udalak eskumen horiek Iruñerriko Mankomunitateari lagata zeuzkalla, eta abeltzaintzako hondakinak bildu ez zegoela haien artean.

Beraz, Batzordearen iritziz, egiaztatuta dago udalekotzeko erabili zen prozedura juridikoa irregularrak eta okerra izan zela.

Ulertu ahal izateko zergatik hautatu zen Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 209. artikuluan aurreikusitako udalekotze prozedura eta ez 205. artikulukoa, Batzordeak gogoeta hauek egin ditu:

a) Ultzamako Udalak 2008ko ekainaren 19an laguntzen eskaera aurkeztua zuen Nafarroako Gobernuko zegoen departamentuan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduaren baze-

sean; foru agindu horrek 2008-2013 aldian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onetsi zuen.

b) Deialdi horren 9.2 artikuluan hau ezarri zen: “Lehenbiziko urteko gastuak laguntza ematen den urteko abenduaren 20a baino lehen frogatu behar dira”.

c) Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 205. artikuluan aurreikusten den udalekotze prozedura errespetatu izan balitz, hau eginen zen:

– Udaltzaren Osoko Bilkurak hasierako erabakia hartu. Aldez aurretik, berariaz izendatutako batzorde batek oroitidazki bat egin behar zuen eta bertan azaldu jardueraren alderdi sozial, finantzario, tekniko eta juridikoak, negozio forma, balizko irabaziak eta jarduera bukatzearen kasuak.

– Jendaurrean azaldu, gutxienez hilabeteko epean, erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izateko.

– Udaltzaren Osoko Bilkurak proiektua behin betiko onetsi, kideen gehiengo osoaren quoruma-rekin.

Batzordearen iritziz, Ultzamako Udalak, edo bertako gehiengo politikoak behintzat, artikulua horretan legez ezarritako prozedura ez errespetatzea erabaki zuen, jakin bazekielako errespetatzeak ezinbestez ekarriko zuela, hasierako onespina eman ondoren, hilabetean gutxienez jendaurrean azaldu behar izatea, aldizkari ofizialean argitaratzea, eta, alegazio edo erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik egonez gero, behin betiko onestea, eta hori guztia ezin izanen zela bete maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduan ezarritako epean. Alegia, Ultzamako Udalak ezin zezakeen 2008ko abenduaren 20a baino lehen aurkeztu plantan obraren bat egin izanaren justifikaziorik.

Ultzamako Alkatetza ondorio horretaz eta 197/2008 Foru Aginduaren edukiaz jabeturik zegoen. Foru aginduan xedatutakoaren arabera, “agindutakoa baino inbertsio txikiagoa egiten bada, emandako laguntzari zati bat kenduko zaio, benetan egindako inbertsioari egokitzeko. Inbertsio txikiagoa ezin izanen da inoiz konpentsatu hurrengo urteko inbertsioa handituz. Egin gabe geratu dela ulertuko da eta urteko diru-laguntzatik kenduko da egin gabeko inbertsioari dagokion zatia”. Epe horretan ezin zitekeen inolako obrarik justifikatu, emakidarako eta obrak egiteko prozedurarik ere ezin zitekeelako garatu.

Aipatu beharra dago, halaber, Udalak ez zuela inolako asmorik gorago aipatu diren alderdi guz-

tien gaineko oroitidazkia egin behar zuen batzordea sortzeko, beste premia batzuk zituelako.

Azken batean, Ultzamako Udalak Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 205. artikuluan ezarritako prozedura ez betetzea erabaki zuen 420.000 euro jaso gabe ez geratzeko, horixe baitzen Landa Garapeneko Departamentuak emandako diru-laguntzaren lehen urteko zenbatekoa. Egitate hori, Batzordearen ustez, beste irregulartasun larri bat da.

2.6. ADMINISTRAZIO-EMAKIDA ADJUDIKA-TZEKO PROZEDURA

Ultzamako Udalak 2008ko urriaren 8an egindako osoko bilkuran onetsi ziren “Biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestiorako planta mankomunatuaren zerbitzu publikoa administrazio-emakidaren bidez kudeatzeko kontratuaren adjudikazioa eta geroko ustiapena gidatu behar dituzten baldintza arautzaile bereziak”.

Gasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestiorako planta mankomunatu eraiki eta ustiatzeko administrazio-emakida arautzen duen dokumentu hori Nafarroako Gobernuaren kontratazio atarian argitaratu zen. Ez zen argitaratu kontratua definitzen zuen edo plantaren xehetasun nagusiak azaltzen zituen beste agiririk (proiektua, planoak, bidegararritasun azterlanak, mindak kudeatzeko plana...). Eskaearak aurkezteko epea 2008ko urriaren 10ean hasi eta urriaren 27an bukatu zen; hau da, legezko gutxieneko epea ezarri zen, 18 eguneko.

Emakidarako baldintzen agiri hori ARPA Abogados-Consultores enpresak idatzi zuen. 2008ko abenduaren 9an 3.828 euroko faktura igorri zen (BEZa barne), eta faktura hori 2010eko apirilaren 13an ordaindu zen.

Agiriak aztertu eta agerraldiak baloratu ondoren, Batzordeak gogoeta batzuk azaldu nahi ditu, planta eraikitzeke eta ustiatzeko administrazio-emakidaren prozeduran egindako aurreikuspenen betetzeari buruz.

2.6.1. Levenger SL onartu ez izana, proiektuaren idazketan parte hartu bazuen ere.

Lehenago ere aritu gara gai honetaz, gure ustez agerian jartzen baitu une hartan Ultzamako Udaleko gehiengo politikoak nahi zuela enpresa horrek jasotzea kontratuaren adjudikazioa.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 20. artikulua, “Bateraezintasunak eta haien ondorioak” izenburuaren pean, 3. apartatuan hau xedatzen du:

“Ezin izanen dute lizitazio prozeduretan parte hartu kontratuen zehaztapen teknikoen ezarpenean esku hartu duten enpresek, ez eta horiei lotutako enpresek ere”.

Batzordeak uste du Levenger SLren esku-hartzea zuzeneko ia zela energia elektrikoa sortzeko biogas plantak izan behar zituen zehaztapen teknikoak ezartzeko eta zehazteko orduan. Levenger SLk aurkeztu zuena berariazko teknologia zela adieraztera iritsi zen Aierdi Ingenieros SL, behien mindak bakarrik erabilita lor zitekeela digestio anaerobikoaren bitartez energia elektrikoa ekoiztea, eta horregatik erabaki zutela proiektuan teknologia hori sartzea.

Alkatetzak –Levenger SLren administratzailearekin batera parte hartu zuelako enpresa horrek bere teknologia eta plantaren proiektua abeltzain eta udalei azaltzeko bileretan– eta Aierdi Ingenieros SLren bi ordezkariak –Levenger SLren laguntza teknikoa eskatu zutelako proiektuaren atal hori idatzi ahal izateko–, kontratazio mahaiaren bilkuretan, inguruabar horren berri eman behar zieten mahaiko gainerako kideei, Levenger SL lizitatzailerak gisa lehiaketatik kanpo utz zezaten.

Illo horretan haien jokabidea gaitzesgarria da. Izan ere, entitate lizitatzailerak baten bateraezintasun egoera hori ezagutu arren, ez zioten jakinarazi kontratazio mahaiari, txosten juridiko bat bederen eska zezan, kasuaren inguruabarrak aintzat hartu eta erabaki egokiak hartzeko. Horren ordez, Levenger SL enpresaren interesen aldeko isiltasun konplizea egon zen, interes publikoak zaindu beharrean enpresaren interesei mesede egiteko jarrera erakusten duena. Interes publikoak zaintzeko, kasu honetan, kontratazio publikoaren oinarritzako printzipioak defendatu behar ziren, besteak beste gardentasunez jarduteko printzipioa, hainbat aldiz aipatu dugun 6/2006 Foru Legearen 21.1 artikuluan jasoa.

Batzordearen iritziz, ikuspuntu juridikotik nahiz etikotik onartezina da elektrizitatea sortzeko biogas plantaren proiektuaren baldintza teknikoak zehazten eta abeltzaintzako hondakinak jarduera horretarako tratatzeko eredia definitzen parte hartu zuen enpresa bat izatea, azkenean, planta hori eraikitzeko eta ustiatzeko administrazio-erakundearen kontratuaren adjudikazioa jaso zuena. Gogoeta horrek Batzordeari pentsarazten dio Udaleko arduradun politikoei eta proiektua idatzi zuen ingeniariak enpresak kontratazio prozedura zuzendu eta kontrolatu egin zutela, enpresa jakin batek, Levenger SLk, jaso zezan proiektuaren adjudikazioa.

Batzordea horretaz sinetsita dago, kontratazio mahaiko kide guztietatik Alkatetzak eta Aierdi Ingenieros SLren ordezkariak bakarrik ezagutzen zituztelako Levenger SLren bateraezintasuna eragiten zuten gertaerak eta inguruabarrak, kontratazio prozeduran parte hartzea eragozten ziotenak, eta hala ere, mahaiaren bilkuretan jakinarazi ordez, ezkutatu egin zituztelako, jakin bazekiten arren bateraezintasun horren ondorioz nahitaez baztertu behar zela enpresa horrek aurkeztu zuen eskaintza.

Aurrekoa gorabehera, Batzordeak uste du, halaber, kontratazio mahaiko kide izan ziren Aierdi Ingenieros SLko bi pertsonak, Mariñelarena jaunak eta Cerdán andreak, Levenger SL enpresa prozeduran parte hartzen ari zela jakin zutenean, mahaiaren eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeari utzi behar ziotela gutxienez ere, lankidetzako profesionaleko harreman zuzenak izan zituztelako enpresa eskaintzailerak batekin, Levenger SLrekin, zeinak proiektu teknikoaren idazketan parte hartu baitzuen haiekin batera.

Inguruabar horren ondoriozko beste gogoeta juridiko batzuk direla eta, aurreko ataletan jada adierazitakoari eusten diogu.

2.6.2. Levenger SL onartu ez izana kaudimen ezagatik:

Baldintza arautzaile ekonomiko-administratibotatik hirugarrenean, emakidaren adjudikazioa jasoko zuen enpresak izan behar zuen kaudimena zehazten zen:

“(…) adjudikazio-hartzailearen baliabide propioak ez dira izanen berak kontratuko obretarako eskainitako inbertsio-aurrekontuaren (BEZa barne) % 20 baino gutxiagokoak”.

Enpresa lizitatzailerak egin behar zuten eskaintza ekonomikoa, baldintza arautzaile horien arabera, deialdia egin zuten udalei ordaindu nahi zioten kanon finkoa zehaztera mugatzen zen. Beraz, kaudimena kalkulatzeko oinarritzat hartu behar da obra-emakidaren kontratuaren lizitazioko prezioa, hau da, 4.883.012,53 euro (BEZa barne).

Kaudimenaren atalasea zehazteko, bi enpresa lizitatzaileraren baliabide propioak lizitazioko prezioaren % 20arekin konparatu behar ziren eta zenbaterako horretara iristen ziren ala ez begiratu. Eskaintzaile bakoitzak aurkeztutako datuak hartzen baditugu, konklusioak honako hauek dira:

Finkatutako gutxieneko atalasea 976.602 eurokoa da (lizitazioko prezioaren % 20).

– Levenger SLren kasuan, haren kapital soziala une hartan 139.519,21 eurokoa zen, eta haren

baliabide propioak 2007ko martxoaren 26an (azken datu eskuragarria) 60.562,54 eurokoak ziren, hau da, lizitazioko prezioaren % 1,24 besterik ez.

– Singular Energías Renovables SLk 1.833.330 euroko kapital soziala zuen, eta haren funts propioak 2008ko irailaren 30ean 7.252.643 eurokoak ziren, hau da, lizitazioko prezioaren % 148,53.

Batzordearen iritziz, udal idazkariak emandako justifikazioa ez dator bat ez baldintza arautzaileen edukiarekin ez interpretazioarekin

Datu horiek ikusirik, Batzordeak uste du Levenser SLren eskaintza ez zela onartu behar, ez zela-ko iristen baldintza arautzaileetan ezarritako kaudimen atalase horretara. Kontratazio mahaiak ez zuen hala jokatu, eta horregatik uste dugu beste irregulartasun bat egin zela kontratazio prozeduran.

2.6.3. Bi enpresa eskaintzaileen gaitasun tekniko desberdinak

Levenser SLk, gaitasun teknikoa frogatzeko, kogenerazio ekipamenduak, galdarak, instalatzeko lanen ziurtagiriak aurkeztu zituen, baina ez zuen esperientziarik biogas planten kudeaketan, eta makinaren handizkako salmenta izan zuen helburu soziala 2007ko apirilaren 11ra arte. Beraz, ez dugu ongi ulertzen zergatik ez zen kontuan hartu egoera hori gaitasun teknikoa egiaztatuta zegoen ala ez baloratzeko orduan.

Singular Energías Renovables SLren xede soziala, aldiz, jatorri biologikoko iturri berriztagarrietan, besteak beste, erabat edo zati batean oinarrituta energia elektrikoa ekoizteko plantak eta beste produktu energetiko batzuk sustatu, kudeatu eta ustiatzea zen. Bazuten esperientzia sektore fotovoltaikoan eta biomasaren aprobetxamendu energetikoaren arloan.

2.6.4. Behin betiko bermerik jarri gabe kontratua sinatu izana:

Baldintza arautzaile ekonomiko-administratibetatik hamabigarrenean (“Emakidaren formalizazioa”) ezarri zen administrazio-kontratu batean formalizatuko zela emakida, hamabost egun naturaleko epean, adjudikazioari buruzko erabakia adjudikazio-hartzaileari jakinarazten zitzaionetik hasita. Hau ghitzen zen:

“Kontratua formalizatu baino lehen eta adjudikazioari buruzko erabakia jakinarazi eta hurrengo zazpi egun naturalen barruan, adjudikazio-hartzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– Hurrengo klausulan aipatzen den behin betiko bermea aurkeztu izanari buruzko frogagiria.

– Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza. Aseguratutako kapitala, Udalaren iritziz, estalduraren xede den arriskua bete beharko du.”

Hamahirugarren klausulan finkatu zen behin betiko bermearen zenbatekoa: obren exekuzioaren prezioaren zenbatekoaren % 4. Enpresa adjudikazio-hartzaileak, hau da, Levenser SLk, berme hori jarri behar zuen.

Beraz, jarri behar zen behin betiko bermearen zenbatekoa 195.320,50 euro zen, hots, 4.883.012,53 euroko adjudikazio-prezioaren % 4.

Batzordeak egiaztatu duenez, Ultzamako Udalaren eta administrazio-emakidaren adjudikazioa hartu zuen Levenser SL enpresaren arteko kontratuak 2008ko azaroaren 8ko data du, hau da, adjudikazioari buruzko erabakia hartu zen eguneko. Hala ere, espediente osoan ez da inon ageri enpresa adjudikazio-hartzaileak aurreikusita zegoen behin betiko bermea eman zuenik 6/2006 Foru Legearen 95. artikuluan ezarritako moduetako batean ere.

Behin betiko bermerik jarri gabe ez zen sinatu behar administrazio-emakidaren kontraturik, bermea aurretiazko betekizuna delako, alegia conditio sine qua non bat delako, administrazio-kontratu sinatu baino lehenagokoa. Ordena publikoko klausula da, eta Administrazioak ezin du bete gabe utzi; adjudikazio-hartzailearen erruagatik bermerik jartzen ez bada, Administrazioak kontratua ofizialki suntsiarazita dagoela deklaratu behar du.

Kasu honetan, Ultzamako Udalak, eta batez ere Alkatetzak, adjudikazioaren kontratua sinatzerakoan Udalaren ordezkaria zen aldetik, ez zuen bete legezko betebeharrak hori eta lau kontratu ere sinatu zituen emakidaren adjudikazioa jaso zuen enpresarekin eta adjudikazio hori laga zitzaion enpresarekin, berme hori eskatu gabe. Planta kudeatu zuten bitartean ere enpresa horiek ez zuten behin betiko bermerik eman.

Batzordeak uste du Pérez alkate jaunaren jarduketara hori irregularra dela eta gaitzesgarria ere bai edozein ikuspuntutatik, bazekielako legezko eta kontratuzko betebeharrak zela adjudikazio-hartzaileari behin betiko bermea jarrez eskatzea –batez ere, adjudikatutako kontratuaren zenbateko ekonomikoa kontuan hartuta–, eta bere ardura zelako berme hori eskatzea.

2.6.5. Udalak azpikontratatistak kontrolatu ez izana.

Klausula arautzaileek aurreikuspen zuten eskaintzaileek obraren eraikuntzari buruz aurkeztu behar zuten dokumentazio teknikoaren barruan hau agertu behar zela: "Azpikontratatisten zerrenda (obraren % 100 azpikontratatuzeko aukera dago), eta bakoitzak kontratuaren zein zatitan esku hartuko duen".

Levenger SL enpresak, aurreikuspen hori betetz, zerrenda bat aurkeztu zuen, obraren % 100 honako enpresa hauei azpikontratatatu zitzaizela erakusten zuena:

- Digestio plantaren hornidura: Vitkovice Power Engineering AS enpresa txekiarrari

- Motor-sorgailuen hornidura: TEDOM s.r.o. enpresa txekiarrari

- Obra zibila egitea: AZYSA Obras y Proyectos SLri

Kontuen Ganberak bere txostenean (14. or.) hau azaldu zuen gai horri buruz:

"Ez da inon ageri esleipendunak eta lagapen-hartzaileak egindako azpikontratazioak kontrolatu izana edo Udalarri jakinarazi izana. Azpikontratazioak, kontratua prestatzeari eta adjudikatzeari dagokionez, Kontratuari buruzko Foru Legearen pean daude".

Hain zuzen ere, Batzordeak uste du berriro ere urratu egin zela kontratazioari buruzko araudia. Horren ildotik adierazi beharra dago 6/2006 Foru Legearen 151.3 artikulua aurreikuspen argiak dituela, Levenger SL enpresa adjudikazio-hartzaileak eta lagapen-hartzaile gisa kontratuan haren lekua hartu zuen Bioenergía Ultzama SA enpresak ez zituztela bete aurreikuspen horiek, eta Udala ez zela gai izan bere kontrol-eginkizunak betetzeko.

Aipatutako foru legearen 151.3 artikulua honako hau zehazten du:

"Emakidaren xede diren obrak egiten ari diren bitartean, azpikontratazioa 110. artikuluan ezarritakoari lotuko zaio. Hala ere, 110.2 artikuluan araututako kasuan eta kaudimenaren egiaztagiriek batera aurkezten den zerrendako azpikontratatistak ordeztzen diren kasuetan, azpikontratatista foru lege honetan ezarritako lizitazio prozeduretako baten bidez aukeratu beharko da".

Adjudikazio-hartzaileak, Levenger SLk, eta horren lagapenaren hartzaileak, Bioenergía Ultzama SAK, kaudimena frogatzeko unean iragarria zuten enpresa azpikontratatista aldatu egin zuten

lizitaziorako beren eskaintza aurkeztu zuten unean. Izan ere, AZYSA Obras y Proyectos SLren ordezkariak José Luis Tornaría Bengoetxea SLk egin zuen obra zibila. Horretarako, 2009ko urtarrilaren 15ean Bioenergía Ultzama SAK azken horrekin kontratu bat sinatu zuen planta mankomunatuak harguneak, obra zibila eta urbanizazio lanak egiteko, 1.639.780,91 euroko prezioan; unean uneko administrazio lanetarako prezio unitarioak gehitu ziren.

Azpikontratatisten aldaketa honek berekin ekarri beharko zuen adjudikazio-hartzaileak edo lagapen-hartzaileak obra zibilaren lizitazio-prozedura bat egin behar izatea; halakorik ez zen izan, ordea. Obra zibilaren zenbatekoa zela eta, orduan indarrean zen 6/2006 Foru Legearen 73.2.c) artikuluan obra-kontratuak publikitateari gabeko prozedura negoziatuaren bitartez izapidetzeko muga bezala ezarritako 750.000 euroko kopurutik gorakoa baitzen, araudia errespetatzeko jarraitu beharko zen prozedura, ordea, prozedura irekia zen, zeinean lehia askea baita ezaugarri nagusia.

Halakorik ez zen egin, eta obra zibila zuzenean egin zuen zinegotzi batekin, Tornaría jaunarekin, familia-lotura garrantzitsuak zeuzkan enpresa batekin; izan ere, Tornaría jauna Ultzamako Udaleko alkatea izan zen 2012an, Bioenergía Ultzama SAKo bazkide sortzailea izateaz gainera – enpresa horretan zinegotzi-idazkariaren eta Batzorde Exekutiboko kidearen karguak bete zituen –, eta bera izan zen merkataritza-sozietate horren ordezkaria obra-kontratu azpikontratatista berriarekin sinatzeko unean.

2.6.6. Eskaintzak aurkezteko legekoa den gutxieneko epea.

Kontratazioari iragarkia Nafarroako Kontratazioaren atarian argitaratu zen, eta eskaintzak 2008ko urriaren 10etik 27ra aurkez zitezkeen; hau da, horretarako lege ezar daitekeen gutxieneko epea ezarri zen. Bitxi gertatzen da hain konplexua den proiektu batean, zeinean aztertze dokumentazio ugari baitago eta lizitazio prezioa hain altua den, 18 egun natural baizik ez ematea interesa izan zezaketen enpresek beren eskaintzak aurkezteko. Ahaleginak egin ziren eskura zegoen informazioa ahal zen txikiena izan zedin, zeren eta interesdunei ez baitzitzaien eman pleguaz besterik. Alabaina, Levenger SLk urtebete baino gehiago lehenagotik aurreproiektua eta proiektua bazeuzkan, haiek egiten parte hartu baitzuten.

Kontratuari buruzko foru legerian ezarritako gutxieneko epea finkatzeari buruz arrazoirik ez zen eman, alkate ohi Pérez Arregui jaunak Kontuen Ganberaren txostenari aurkeztutako alegazioetan

adierazi zuen bezala: “minden hondakinen arazoei konponbidea eman behar izateagatik eta deialdian aurkezteko asmoagatik”. Beste behin gezurra dio Pérez jaunak, zeren eta bai baitzekien ezen bai 2008ko ekainean, bai urte bereko irailean berak aurkeztuak zituela laguntzetarako bi eskaera, bata Landa Garapeneko Departamentuan Udalaren izenean, eta bestea Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan “eratze bidean zegoen sozietate” baten izenean. Legez eman zitekeen eperik laburrena finkatzeko egiazko urgentziak bi arrazoi zituen:

– lehena, kontrataziorako prozedura irekiarekin zerikusia zuena, Levenger SLri lehia eginen zion ahal den enpresa gutxien aurkez zedin lortzen ahalegintzeko.

– bigarrena, Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko kontseilariaren maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduan ezarritako epeekin lotutakoa – 2008-2013 aldian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onesten du–, zeren eta epe horiek betetzea ezinezkoa izanen baitzen epea luzeagoa izatekotan. Arestian ere aipatu dugu nola biogas bidez elektrizitatea sortzeko jarduera udalekotezko prozedura nola aldarazi zen, helburu berarekin proiektua jendaurrean hilabetez jartzea saihestuz; hori dela eta, legezko eperik laburrena finkatzea ezen araudia berriz ere ez urratzeko egin zitekeen bakarra.

Horrekin batera, nabarmendu beharra dago eskaintzak egin zituzten bi enpresek informazio desberdina eduki zutela, eta horrek horietako bat, Singular Energías Renovables SL, eraman zuela bere eskaintzan argipenak beharko zirela jasotzera “proiektua antolatzeko”; are gehiago, eskaintza ekonomikoa egiterakoan adierazten zuen emandako informazioan ez zegoela dena zuzen jasota:

“Ikusita adjudikazioko “Baldintza arautzaile ekonomiko-administratiboan” puntu batzuk maila juridiko eta teknikoan modu konplexuan islatuta zeudela, bai eta irekita gelditzen ziren puntuak ere, logistikoak, teknikoak, ekonomikoak, juridikoak eta eskatutako diru-laguntzak jasotzeko formula bideragarriak egituratzekoak; izan ere, adostu beharrekoak izanen dira horiek guztiak emakidadunaren eta adjudikazio-hartzailearen artean (...)”

Batzordea ados dago Kontuen Ganberak gai horri buruz egiten duen balorazioarekin:

“Publizitatea eta lehiaketa librearen irizpideak murrizturik gelditu ziren: batetik, kontratazio atarian erantsitako informazioa eskasa zelako; bestetik, adjudikazio-hartzailearen eta proiektuaren egi-

learen arteko harremanengatik, azken hori kontratazio mahiko kidea baitzen. Honek guztiak kontratazio publikoaren irizpideen aurkako prozedura islatzen du, legeak aginduriko prozeduraren oinarritzko kontuak ez baitziren aintzakotzat hartu.”

2.7. LEVINGER ETA BIOENERGÍA ULTZAMAREKIN SINATUTAKO KONTRATUAK

Kontratazio-prozeduraren amaiera moduan eta kontratuei buruzko foru araudiak horri buruz ezartzen duena betez, Ultzamako Udalak lau kontratu sinatu zituen; haien azterketa ondotik datorrena da:

1.- 2008ko azaroaren 5ean sinatutako kontratua

Kontratu horrek honako izenburu hau darama: “Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko poligonoko 159. lurzatiko A azpilarzatan– eta munda digerituak biltegitatzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren gero-ko ustiaketaren emakida-kontrata.”

Honako hauek sinatu zuten: orduko alkatea zen Francisco Pérez Arreguik, bere burua ordezkatzuz, “sustatzaile edo kontratatzaile” moduan, eta Jiri Bezdicek Vondrackova jaunak, Levenger SL ordezkatzuz, “adjudikazio-hartzaile eta emakidadun” moduan. Kontratuaren data bat dator Udaleko Osoko Bilkurak emakida Levenger SLri adjudikatzeko datarekin.

Kontratu horretan argi gelditzen da Levenger SL emakida-kontratu baten adjudikazio-hartzailea dela eta horregatik haren emakidadun bihurtzen dela eta aipatzen diren kontratu-agirietatik (administrazio-baldintzen pleguan, preskripzio teknikoan plegua, obraren proiektu tekniko eta adjudikazio-hartzaileak egindako adjudikazio-proposamenean jasotako baldintzak) datozen betebeharrak bere gain hartzen dituela; halaber, aipatzen da obrak eginen direla aipatzen diren agiri eta xedapenetan xedatutakoari jarraituz.

Deigarri gertatzen da hartan honako hau esatea: “Emakidadunak urtero udalei honako zenbaterako hauek ordaindu beharko dizkio emakidaren kanonaren kontzeptuan”. Deigarri gertatzen dela diogu zeren eta hori ez baitzen sekula hala jaso, agiri ugaritan planta aipatzerakoan “planta mankomunitatea” esaten bada ere edo diru-laguntzak “Ultzama, Basaburua eta Odietako udaletako Mankomunitatearentzat” eskatu arren; izan ere, mankomunitate hori ez da berez sekula existitu. Kanona soilik Ultzamako Udalak jaso zuen, emakidadunak ordaindu zuen urteetan.

2.- 2009ko otsailaren 4an sinatutako kontratua

Aurreko kontratuaren izen bera badu ere, azken hau Udalak, Levenger SLk eta Bioenergía Ultzama SAK sinatu zuten Udalaren Osoko Bilkurak 2009ko otsailaren 4an emandako baimenaren ondorioz, eta horrekin ikusonespena eman zitzaion “Levenger SLk aipatutako planta berriaren emakida Bioenergía Ultzama SArI lagatzeari, eta azken horrek onartu egin zuen lagapen hori”.

Batzordearentzat deigarri den lehenengoa da aipatutako bi merkataritza-sozietate horiek zer dela-eta agertzen diren. Levenger SL “adjudikazio-hartzaile” gisa agertzen da (uste izatekoa da emakida-kontratuaren adjudikazio-hartzailea esan nahi dela). Bestalde, Bioenergía Ultzama SA “emakidadun” gisa agertzen da; hala eta guztiz ere, bai aipatu behar zen “lagapen-hartzaile” gisa agertzen zela, zeren eta lagapena eta kontratu horren sinatzea baimentzen zuen udal akordiotik aurrera, aipatutako merkataritza-sozietatea ordura arte lagatzaileak zeukan posizioan subrogatzen baita; hau da, administrazio-emakidaren adjudikazio-hartzaile bihurtzen da.

Juridikoki eusten ezinezkoa da “adjudikazio-hartzailearen” eta “emakidadunaren” arteko bereizkuntza hori, zeren eta adjudikazio-hartzaile suertatu zena lagapen baten hartzaile suertatu baitzen. Bada hori, Batzordearen ustez, ez zen hutsaren hurrengoa izan, zeren eta hala egin baitzen kontratuan bertan jasoko zen fakturazio gurutatuko sistemari forma eman ahal izateko.

Izan ere, “Emakidaren xede diren obra publikoak eraikitzeak finantzaketa”ri buruzko baldintza ekonomiko-administratiboen 5. klausulan jasotakoaren edukia azaldu ondoren –haren bidez, Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalek “horien artean horretarako izenpetutako hitzarmenean jasotako terminoetan” (halako hitzarmenik ez dago ordea) lagundu behar baitzuten “obra publikoaren eraikuntzaren finantzaketan, Nafarroako Gobernuak eta gainerako entitate publikoek emandako laguntza ekonomikoen kopuruaren arabera, konpromisoa hartuz horretara ahal den laguntza ekonomiko gehien bukatzeko”–, kontratuan, bigarren akordioan, “plantaren eraikuntzaren finantzaketa artikulatzeko modu bat” finkatu baitzen, zeinak adjudikazio-hartzailearen eta emakidadunaren arteko bereizkuntza artifical hori eskatzen baitzuen.

Ikus dezagun bigarren akordio horren edukia:

a) “Faktura bat igorriko da, Ultzamako Udalaren izenean, obren adjudikazio-hartzaileak egin dituen obren zenbatekoa dela eta (...)”. Horrek esan nahi zuen ezen, emakida-kontratuaren laga-

pena baimentzeko udal akordioan xedatutakoa aldatuta –bai eta lagapen horretatik heldutako ondorio juridikoak ere–, Levenger SLri obren adjudikazio-hartzailearen izaera erreserbatzen zitzaion, Udalaren kontrako faktura bat egin ahal izateko; izan ere, Udalak faktura hori erabiliko zuen hirugarren batek harentzat egindako obra batzuen exekuzioa Nafarroako Gobernuan justifikatzeko.

Faktura hori existitu izan ez balitz, Udalak ezin izanen zuen sekula Landa Garapeneko Departamentuan egiaztatu obren exekuzioa eta jada 2008ko ekainerako aurkeztua zuen diru-laguntzen eskaera; eta, horrenbestez, ez zituen haiek sekula jaso izanen. Gainera, gai honen analisisa egiterakoan ezin da ahaztu ordurako, 2008ko abenduan, Levenger SLk jada Ultzamako Udalari fakturak eginak zizkiola obra batzuentatik, eta azken horrek faktura ori aurkeztua zuela lehenengo urtekoaren kobrantza justifikatzeko; 2009ko urtarrilean gauzatu zen hori. Batzordeak larritzat jotzen du Udalaren eta Pérez jaunaren jarduketa hori, zeren eta bai baitzekiten zer ondorio zituen.

Levenger SLk, lagapen-kontratua sinatu zutenetik, utzi zion Ultzamako Udalarekin lotuko zuen inongo harreman juridikorik izateari, zeren eta haren posizio juridikoa, emakidaren adjudikazio-hartzailearena, Bioenergía Ultzama SAK bete baitzuen. Ez da ahaztu behar lagapena oinarritzko kontratua (kontratu administratiboa) lagapen-hartzaileari zuzenean eta berariaz transmititzera bideratutako negozio juridiko bat dela, eta hori, horrenbestez, gertatzen dela kontratistaren ordezkatzeko juridikoaren lagapenean, eta ezin dela inongo ahalmenik gorde lagatzailearen alde.

Nolanahi ere, administrazio-hartzailearen eta emakidadunaren arteko bereizkuntza hori ez da juridikoki onargarria. Kontratu horretan fakturazio gurutatuko artifizio juridiko bat baliatu zen, zeinak helburu bakarra baitzuen Ultzamako Udalak Nafarroako Gobernutik jasotzea bestela lortzerik izanen ez zuen diru-laguntza bat; hartara, izan ere, ezin izanen zizkion funts horiek merkataritza-sozietate pribatu bati eskualdatu. Benetako legeiruzur baten aurrean gaude, zeren eta Udalak, toki entitate gisa, Landa Garapeneko Departamentuaren 2008rako deialdi bat erabili baitzuen funts publikoak transferitzeko, horretarako erabiliz legez bidezkoak ez ziren faktura batzuk –faktura horiek existitzea ezinbesteko baldintza zen Udalak enkargatu gabe zituen obra batzuk justifikatu ahal izateko; izan ere, haien exekuzioa emakidaren adjudikazio-hartzailearen kontratuzko betebeharra zen hain zuzen–.

b) “Aurrekoa eginda, Udalak, enpresa emakida-hartzaileari, hau da, Bioenergía Ultzama SAri, faktura bat igorriko dio, jasotako fakturaren zenbateko berarekin. Enpresa emakidadunak faktura ahal den azkarrena ordainduko du; betiere hura igorri eta hilabete igaro baino lehen”. Fakturazio gurutzatuaren bigarren atal hori “adjudikazio-hartzailearen” eta “emakidadunaren” arteko bereizkuntza artifizialaren ondorio logikoa da; izan ere, Udalak entitate baten faktura bat onartu behar bazuen harekin inongo harreman juridikorik eduki gabe eta hari inongo obraren exekuziorik enkargatu gabe, faktura horren zenbateko osoa “emakidadunari” eskualdatu behar zion, azken horrek hura bere kargura hartzeko. Ordurako, “adjudikazio-hartzailearen” faktura jada erabilia izana zen diru-laguntza emateko prozeduran, Landa Garapeneko Departamentuari diru-laguntza hori eskatu zitzaionean, eta bere egitekoa betea zuen.

c) “Behin kontzesio-hartzailearengandik dagokion fakturaren ordainketa jasota, Ultzamako Udalak bere burua behartzen du ziurtatutako lanak direla-eta adjudikazio-hartzailearengandik jasotako fakturak ordaintzera”. Hartara, Levenger SLk osorik jasotzen zuen bere fakturaren zenbatekoaren ordainketa. Aurrerago faktura batzuen zenbatekoa xehetasun guztiekin aztertuko badugu ere, aurreratzen dugu Levenger SLk –fakturazio gurutzatuko sistema horretatik kanpo– zenbatekoa Bioenergía Ultzama SAri itzultzen ziola azken horrek haren kontra aurkeztzen zuen beste faktura bat ordainduz.

d) Ultzamako Udalak, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jaso ondoren, haien zenbatekoa igorriko dio enpresa kontzesio-hartzaileari”. Hartara, bete egiten zen sistema horren helburua; hain zuzen ere, Bioenergía Ultzama SAK Nafarroako Gobernutik eskura zitzala berez eta beste bide batzuetatik lortzerik izanen ez zituen funts publikoak.

Batzordeak uste du fakturazio gurutzatuaren sistema honekin Ultzamako Udalak eta, bereziki, bere alkatetzak bere burua eskaini zutela fikzio juridiko hori sortzeko, helburu bakar batekin: funts publikoak eskualdatzea haiek lortzea ez zegoen merkataritza-sozietate bati. Inongo errealitate ekonomikori erantzuten ez zion faktura bat zirkulazioan jarri zen (zeren eta ezin baitugu ahaztu plantako obra teknologikoa Viktovice Power Engineering ASk egin behar zuela eta obra zibila, berriz, Construcciones José Luis Tornaría Bengoetxea SL egiten ari zela, Bioenergía Ultzama SAren enkarguz) eta horrekin aukera eman zen fikzio ekonomiko eta juridiko bat sortzeko, diru-laguntza hori 2008an eta 2009an lortzeko gai zena.

Emakidaren adjudikazio-hartzaileak –hasiera batean, Levenger SL eta gero Bioenergía Ultzama SA– ezin izanen zuen sekula lortu Ultzamako Udaletik Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntzen eskualdatzea –izan ere lortu egin zuen–, bi baldintza horien artean existitzen ez zen bereizkuntza hori egin izan ez balitz: adjudikazio-hartzailea, batetik, eta “emakidaduna”, bestetik.

Bioenergía Ultzama SA orduko Berrikuntza, Industria eta Enplegu Departamentuak egiten zituen laguntzen edo diru-laguntzen deialdietara aurkez zitekeen –eta aurkeztu ere aurkeztu zen–, eta zegozkion laguntzak eskuratu zitzakeen –eta eskuratu ere eskuratu zituen–.

Kontratu honen sinadurarekin hainbestearino fikzioa sortu zen, non 2009ko otsailan estaldura formala eman nahi izan baitzitzaien 2008ko abenduan gertatutako egitate bati, horrekin agerian utzita fakturen trama hori guztia. 2008ko abenduaren 19an –xehetasun gehiagorekin aztertuko da hori beste atal batzuetan, aurrerago– Levenger SLk 2008-392 faktura egin zion Ultzamako Udalari, atxikitze anaerobioko biltegien hornidurarengatik, 709.920 euroko zenbatekoan (BEZa barne), eta hori Landa Garapeneko Departamentuari aurkeztuko zitzaion 1. ziurtagiria egiteko oinarri gisa baliatu zen. Handik egun gutxitara, zehazki 2008ko abenduaren 31n, Ultzamako Udalak, bere aldetik, beste faktura bat egin zuen Bioenergía Ultzama SAren kontra, 1. ziurtagiri horren zenbatekoa jasoz.

Zalantzan jarri dugu jada eta gure buruari galdetu diogu zein betebeharrak izan ziren Ultzamako Udalak sekula enkargatu ez zituen lan batzuen faktura bat bere gain hartzeko; hain zuzen ere, emititzen zuen hark berak exekutatu behar zituen lan batzuegatiko faktura; baina, zein harreman juridiko-administratibotan oinarrituta egin zion Ultzamako Udalak faktura hori 2008ko abenduaren 31n Bioenergía Ultzama SAri? Merkataritza-sozietate horrek zein betebeharrak juridiko zuen hura ordaintzeko? Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuak –zeina indarrean baitzegoen faktura horiek emititzeko unean– honako hau uzten zuen argi hitzaurrean: “Faktura merkataritzako eragiketa edo kontratuak egin edo burutu direla adierazteko agiria da, merkataritzako trafikoari loturiko egintza bat egin dela egiaztatzen duena. Fakturak ondasunen hornidura edo zerbitzu-emate bat justifikatzen du (...)”. Zalantzarik gabe ez Levenger SLk egindako faktura, ez Ultzamako Udalak egindakoak ez zioten horrelako ezeri erantzuten, baizik eta toki entitatearen inber-

tsio batzuk justifikatu ahal izateko tresna formala izateari.

Batzordearen ustez, faktura horiek argi uzten dute Ultzamako Udaleko alkatetzaren, Levenger SLren eta 2008ko abenduaren 12an Bioenergía Ultzama SA eratu zutenen arteko alde zuzeneko aurretiko plangintza bat zegoela, azken horrek lortu ahal zezan, azken hartzaile gisa, bestela egokituko ez zitzaien diru-laguntza bat. Gainera, agerian gelditzen da fakturazio gurutzatuaren sistema aurrera eraman zela forma eman zioneko emakidaren lagapen-kontratua sinatu arte itxaron gabe ere – hain zuzen ere, 2009ko otsailaren 4ko kontratu hori, zeina alde zuzeneko aurretik planifikatuta baitzegoen –, eta zitzaiela axola izan, ezta ere, formak zain-tzea, azken data horretara itxaron eginez.

3.- 2010eko ekainaren 11n sinatutako kontratua

Kontratu horretan berriz ere agerian gelditzen da 2009ko otsailaren 4ko kontratuan egindako fikzio hori hain zuzen ere fikzio hutsa zela. Kontratu honetan Bioenergía Ultzama SA berriz ere agertzen da, 2008ko azaroko jatorrizko kontratuan Levenger SL agertu zen bezala, “adjudikazio-hartzaile eta emakidadun” gisa.

Berriz esan beharra daukagu Ultzamako Udalak “edo, zehazkiago, udal horren eta Basaburuko eta Odietako udalen artean osatutako kudeaketa-erakundeak konpromisoa hartzen duela laguntza edo diru-laguntza publikoen ahal den kopururik handiena kudeatzeko eta lortutako diru-zenbatekoak Bioenergía Ultzama SAri eskualdatzeko, plantako emakidadun gisa (...)”. Ez kudeaketa-erakunde hori, ez eta beste dokumentuek aipatzen duten mankomunitatea ere ez ziren existitzen oraindik ere 2010eko ekainean.

Hirugarren akordioan aipatzen da ezen “Bioenergía Ultzama SAK, egin beharreko obra publikoaren eta elektrizitatea ekoizteko planta berriaren ustiatetaren emakidadun gisa, konpromisoa hartzen duela Ultzamako Udalarekin ituntzeko izapidetu beharreko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak, eta bere burua behartzen duela jasotako diru-laguntzen baldintzetan zehazten diren jarduketak materialki gauzatzera. Bai eta Bioenergía Ultzama SAren eskumenekoa den beste edozein kudeaketa administratibo ere. Udalak konpromisoa hartzen du itundutako diru-laguntzak behar den denboran eta moduan izapidetzeko.

Zaila da ulertzea kontratu bidezko akordio horren edukia, zeren eta Udalari egokituko litzaizkiokeen diru-laguntzak –halakorik egokitu gero– ezin baitziren izan emakidadunarekiko itun edo transakzio baten xedea; izatekotan, eskualda-

tu egin beharko litzaizkioke. Aldeek zer norainoko eman nahi izan zioten akordio horri? Batzordeak ez daki, baina bai nabarmendu beharra dago Ultzamako Udalak, kontratua sinatzeko datarako, jada Landa Garapeneko Departamentuak eman zizkion laguntza guztiak eskatuak zituela, eta azken eskaera 2010eko apirilaren 27an aurkeztu zuela.

Kontratuaren hirugarren akordioan, ia premoniziokoa den aurreikuspen batean, honako hau adierazi zen: “Bioenergía Ultzama SA, Ultzamako Udalari emandako laguntza ekonomikoen edo diru-laguntzen azken hartzaile gisa, behartuta egonen da balizko diru-laguntzak edo diru-laguntzen aurrerapenak itzultzeraz, baldin eta erakunde emaileek edozein arrazoiengatik haiek deuseztatzen badituzte. Diru-laguntzaren itzulketa diru-laguntzaren baldintzei eta jasotako ebazpenari jarraituz egiten da.” Esan beharra daukagu ezen akordio hori gero gertatu denaren ia premonizio bat badela, zeren eta Batzordearen espedientean jasota baitago Landa Garapeneko Departamentuak espedientea ireki duela hain zuzen ere 2010eko deialdian emandako diru-laguntzak itzularazteko; hori dela eta, Ultzamako Udalak klausula hori aplikatu ahal du Bioenergía Ultzama SArekin aktiboak eta bidezko diren ordainak baloratzeko prozesuan; horren guztiaren izapidetze administratiboa egiten ari da gaur egun.

Kontratu horretan berriaz esaten da ezen bera aurrez sinatutakoen eranskin baten gisara hartu beharra dagoela; 2008ko azaroaren 5ean eta 2009ko otsailaren 4an sinatutakoei buruz ari da.

4.- 2010eko ekainaren 24an sinatutako kontratua

Azken kontratu horretan berriz esaten da Bioenergía Ultzama SAK “adjudikazio-hartzaile eta emakidadun” gisa jarduten duela, berriz aipatzen da “udal horren eta Basaburuko eta Odietako udalen artean sortutako kudeaketa-erakundeak”, eta Ultzamako Udalak onartzen du plantaren ustiatetari lotutako baltsak kokatzeko eremuen lagapen-hartzaile edo erabiltzaile gisa; halere, baltsa horiek “emakida administratiboari atxikiko zaizkio, halako moduz non uneoro bermatuko baita haiek ustiatetarekin lotuta egotea, edozein dela ere une bakoitzean emakidadunaren izaera duen enpresa”. Horrela, Bioenergía Ultzama SAK baltsetatik heldutako kostu eta erantzukizunak hartu zituen bere gain, bai erabilerei zegozkienak, bai eraikuntzari eta mantentzeari eta proiektu teknikoei zegozkienak ere, eta berriz ere ezarri zen merkataritza-sozietate horri egokituko litzaiokeela “inguruabar horren edozein ondorio, jada emanda-

ko edo emateko diren laguntzen edo/eta diru-laguntzen emakidari, harrerari, ordainketari, itzulketarako betebeharrari eta abarrei dagokiez”.

Halaber, beste behin esaten da kontratu hori aurrez sinatutakoen eranskin baten gisara hartu beharra dagoela.

2.8. BIOENERGÍA ULTZAMA SA MERKATARITZA-SOZIETATEAREN ERATZEA

Beste atal batzuetan jada aipatu dugun bezala, Negozio Planean –zeina administrazio-baldintzen plegua bezala ARPA Abogados y Consultores enpresak egin baitzuen– ezartzen zen planta kudeatuko zuen sozietatean bai ekimen pribatuak, bai eskualdeko abeltzainek bai Ultzamako Udalak berak hartuko zutela parte. Horretarako, merkataritza-sozietateen izenak ere aipatzen ziren (Biogás Ultzama SL edo Biogás Navarra SL), zeinek plantaren kudeaketan parte hartuko baitzuten.

Planta mankomunatuaren kudeaketaren emakida administratiboa kontratatzekeko prozeduran Levenger SLk aurkeztutako eskaintzan, zehazki “Ustiaketa ekonomiko-finantzarioaren Plana” izenburuko atalean, proiektuaren Talde Sustatzailea ezartzen zen, AZYSA Sk, Levenger SLk berak –eskaintza-egilea–, abeltzainek eta udalak osatua.

Proiektua kudeatzeko eratuko zen sozietate hori ez zen sekula gauzatuko, eta arestian aipatutako eragileek parte hartuko zuten sozietate emakidadun bat eratu beharrean, merkataritza-sozietate bat eratu zen –zertan eratu ere ez zegoen, hasieran Levenger SLri egindako emakidaren hasierako adjudikazioak balioa izaten jarraitzen baitzuen–, zeinean Udalak ez baitzuen inongo parte-hartzerik, nahiz eta adjudikazio-hartzailearen eskaintzan parte-hartze hori jasota egon.

Hartara, Bioenergía Ultzama SA eratu zen. Merkataritza-sozietate hori iraupen mugagabeko sozietate bat da, Iruñeko notario José Javier Castiella Rodríguez jaunak 2008ko abenduaren 12an baimendutako eskrituran eratua, bere protokolo arrunteko 2922. zenbakiarekin. Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1441. liburukiko 198. folioko H orriko NA-28648 Y zenbakiarekin eta A-31980956 IFZrekin. 1.000.000 de euroko kapital soziala dauka, 100 euroko 1000 akziotan banatua. Osorik harpidetu eta ordaindu zen.

Batzordeak aipatu nahi du –Kontuen Ganberak egin duen bezala– Udalaren espediente osoan ez dagoela inongo txosten ez juridikorik, ez ekonomikorik Ultzamako Udalak udalekotu zuen jarduera

edo zerbitzu-ematea administrazio-emakida baten bidez egin beharra justifikatzen duenik. Justifikazio hori Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 206. artikuluan exigitzen da, ordea; honako hau dio, izan ere:

“Udalekotutako zerbitzuak merkataritza-sozietateen edo kooperatiben bidez emanen dira lehentasunez. Sozietateen kasuan, toki entitateek erabat nahiz partzialki parte hartuko dute haien kapitalean.”

Udalekotutako zerbitzuak –foru araudi horren arabera– toki entitatearen parte-hartze eskusiboa edo partziala duen merkataritza-sozietate baten bitartez, lehentasunez, egin behar badira, edo kooperatiba baten bidez, “lehentasunezkoa ez den” beste formula baten alde egiten denean, toki entitateak justifikatu egin beharko luke zergatik egiten duen hori. Ultzamako Udalak administrazio-emakidaren formularen alde egin zuen, eta ez zuen parte hartu sozietate emakida-hartzailean, ez gehiengoarekin ez eta partzialki ere. Hori guztia, justifikaziorik eman gabe.

a) Ultzamako Udaleko zinegotziak bazkide gisa.

Batzorde honentzat deigarri gertatzen da sozietate horren eraketan parte hartzea, adjudikazio-hartzaile suertatu zen enpresaz –Levenger SL– gainera, Ultzamako udalbatzako kide Francisco Tornaría Iguelz, Agustín Ancizu Elizondo eta Francisco M^a Iribarren Altuna jaunek, bai eta Aierdi Ingenieros SLko administratzaile bakar José M^a Mariñelarena Saralegui jaunak ere. Horiek guztiek aurrez parte hartuak ziren edo udalekotzeari eta jardueraren, edo elektrizitatea sortzeko biogas zerbitzuaren adjudikazioari buruzko udal erabakietan, edo jarduera horretarako planta egiteko proiektuaren erredakzioan.

b) Levenger SLk administrazio-emakidaren doako lagatze faltsua egitea.

Jada aipatu dugun Bioenergía Ultzama SAren eratze-eskrituran, seigarren atalean, honako hau esaten zuen:

“Levenger SL merkataritza-sozietateak (...) doan lagatzen dio eskritura honen IV. azalpenzatian aipatutako emakida osoa, hari datxezkion eskubide eta betebeharrak guztiek, Bioenergía Ultzama SA konpainiari (...)”

Levenger SLren ordezkari Bezdicek jaunak eskritura ematerakoan egindako baieztapen hori gorabehera, Batzordeak 20.000 euroko zenbatekoa (BEZik gabe) duen faktura bat badu, merkataritza-sozietate horrek egina Bioenergía Ultzama SA eratu zen egun berean –faktura hori

behar bezala kontabilizatuta du sozietateak bere kontuetan– honako kontzeptu hau dela eta:

“Biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunatuaren zerbitzu publikoaren administrazio-emakida bidezko kudeaketa-kontratuaren adjudikazioaren eta geroko ustiaketa-aren lagapena”.

Batzorde honen ustez, Berdicek jaunaren jarduketara –Levenger SLren administratzaile gisa– engainu bat izan zen agertutako gainerakoentzat; horien artean zeuden merkataritza-sozietateko gainerako bazkideak eta Udalaren ordezkaria bera. Berasain jaunak jada baieztatu zuen Ultzamako Udalak merkataritza-sozietate horri emandako administrazio-emakida doan lagatzen ziola, baina egun hartan bertan faktura bat egin zion sozietateari; hain zuzen ere, lagapen horren ondorioz administrazio kontseiluko buru bera izendatuko zuen sozietateari.

2.9. NAFARROAKO GOBERNUAK ULTZAMAKO BIOMETANIZAZIO PLANTAREN PROIEKTURAKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Ezaugarri hauek dauzkan proiektu batean, egin beharreko inbertsioek eskatzen zuten erakunde publikoek ekarpen ekonomiko bat egin behar izatea, hain zuzen ere proiektua bideragarria izan zedin. Batzordeak eskuratu duen dokumentaziotik eta agerraldia egindakoen lekukotzaren batetik baieztapen hori ondoriozta daiteke inongo zalantzarik gabe. Bioenergía Ultzama SAREN konkurtso-administratzaile Berruezo jaunaren hitzetan, horrelako inbertsioak egiteko beharrezkoa zen itzuli beharrik gabeko diru-laguntza publiko “handiak” izatea, gisa horretako proiektuek bideragarritasun ekonomikoa izan zezaten.

Hori dela eta, Ultzamako biometanizazio plantaren prozesu osoa diseinatu zutenek, hasierako planetik eta negozio-planetik hasi eta kudeaketa-aren hasierara arte, zalantzarik gabe jaso zuten finantzaketaren atal oso garrantzitsu gisa Nafarroako erakundeetatik, bereziki Nafarroako Gobernutik, jaso zitezkeen diru-laguntza eta laguntza publikoak.

Laburbilduz, eta Batzordean dagoen dokumentazioari jarraituz, aipa dezakegu ezen, diru-laguntzen kopuru ahal den handiena lortzeko, prozesu hau gidatu zutenek –Udaleko arduradunek, proiektua erredaktatu dutenek eta enpresa-proiektuan parte hartutakoek, nola baitira abeltzainen eta Levenger SL– sistema edo egitura bat diseinatu zuten obra edo inbertsio bakar batengatik Nafarroako

Gobernuko departamentu desberdinen gainfinantzaketa bat lortzeko.

Horrela, bi diru-laguntza kobratzeko plangintza egin zuten, teorikoki xede desberdinetarako, baina inbertsio berari buruzkoak. Diru-laguntzak bi departamentu desberdinetan eskatzeaz gainera, haietan aurkeztutako dokumentazioan kontzeptu desberdinak ere erabili ziren inbertsio berari buruz hitz egiteko. Adibide gisa, aipatu nahi dugu bi departamentuetan aurkeztutako dokumentazioan sartu zirela, Aierdi Ingenieros SLk erredaktatutako proiektuan, bere bi teknikarien sinadurarekin, Mariñelarena jauna eta Cerdán andrea, “Aurrekontuaren laburpen” bana, zeinetan honako hau jasotzen baitzen:

a) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztutakoan: “Atxikitze anaerobikoko biltegiak”, 1.350.909 euroko zenbatekoarekin.

b) Orduan Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua zenean aurkeztutakoan: “Biogas produktzioko instalazioa”, zenbateko berarekin, 1.350.909 euro.

Agerraldia egindakoei galdetu zitzaizenean ea kontzeptu tekniko horiek inbertsio berari buruzkoak ziren, inolako zalantzarik gabe erantzun zuten baietz, inbertsioa bera zela. Mariñelarena jaunak, proiektuen egile eta laburpen ekonomiko horien erredaktorea zenak, horri buruz galdetu zitzaizenean, inbertsio beraren izendapenaren aldaketa hori justifikatu nahi izan zuenean adieraz zuten “gai hau aztertu behar duten teknikariek hitz egiten duten hizkuntza erabili nahi izan zela”, baina aitortu zuten, “bai, noski” adierazgarri batekin, gauza berari buruz hitz egiten ari zela, “biogas planta” eta “digestio anaerobioko biltegiak” gauza bera zirela.

Batzorde honen eskura dagoen dokumentazioan egiaztaturik geratu da ezen proiektu honetarako diru-laguntzak eman zitzaizkien inbertsioek, gainfinantzaturakotzat jotzen direnek, jatorri bikoitza izan zutelara:

1.- Orduko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Ultzamako Udalarari eman eta ordaindutakoak, abeltzainen tokiko azpiegituren hobekuntza diruz laguntzera bideratutakoak.

2.- Orduko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Bioenergía Ultzama S enpresari eman eta ordaindutakoak.

Inbertsio berarengatik diru-laguntza bikoitza eskatu ahal izateko egindako plangintzaren barruan, ezarri zen lehenbizi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari zegozkionak

eskatu behar zirela –zeinak, gainera, hasieran aurreikusitakoak baitziren–; izan ere, hala jokatu zen 2008an, eta gero 2009an Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuarena eskatu zen. Azken horrek 2010ean eman zuen diru-laguntza. Hartara lortu zen aurrekontu-ekitaldi desberdinetan eta departamentu desberdinetan diru-laguntza bikoitza lortu ahal izatea inbertsio bera egin ahal izateko.

Aipatu beharra dago, horrenbestez, bi departamentu desberdinen laguntzak lortu nahi izan zirela –eta lortu ere lortu zirela– deialdi desberdinetara aurkeztuta. Gainera, laguntza horietako batean toki entitateak baizik ezin ziren aurkeztu; hori dela eta, merkataritza-entitate pribatu bat zuzenean onuradun izaterik ez zegoenez, modua bilatu zen Ultzamako Udala aurkezteko, baina aldi berean aurkeztuz entitate pribatuetara zuzendutakoetara, zehazki, enpresa-inbertsiorako laguntzetara.

Horrela lortu zen gainfinantzaketa hori, Kontuen Ganberak egiaztatu duen bezala; izan ere, konprobatu du digestio anaerobioko biltegiei buruzko faktura batzuk badaudela, 965.900 euro (obra horren kostu osoaren % 65i dagokio) eta 1.486.000 euro (biltegien kostuaren % 100) egiten dutenak, bi enpresa desberdinek eginak; hau da, % 165eko gainkostua finantzatu zen.

Alderdi horiek xehetasunez aztertuta, Batzordeak ondorioztatzen du kontzeptu berarengatik hornitzaile desberdinen fakturak erabili zirela, eta haiek urte desberdinetan ordaindu, kontabilitzatu eta aurkeztu zirela, diru-laguntzak lortzeko egiaztagiri gisa.

Xehetasunei erreparatuta, honako hau aipatu behar dugu:

a) Ultzamako Udalak 965.900 euroko fakturak (BEZik gabe) aurkeztu zituen gastuaren justifikazio gisa, Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntza bat lortzeko. Faktura horiek Levensger SL enpresak igorri zizkion Ultzamako Udalari, eta azken horrek, aldi berean, zenbateko berarengatik fakturatu zion Bioenergía Ultzama SAr, eta Udalak merkataritza-sozietate horretatik kobratzen zuenean, Levensger SLri ordaintzen zion.

b) Bioenergía Ultzama SAr Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari aurkeztutako fakturei dagokienez, Vitkovic Power Engineering AS enpresak igorri zituen, 2.500.000 euroko zenbatekoarekin; kopuru horretatik, 1.486.000 euro (1.350.909,00+ % 10eko gastu orokorrak eta mozkin industrialak) digestio anaerobioko biltegien kontzeptuari dagozkio, eta 1.014.000 euro, berriz, kogenerazioko instalazioaren kontzeptuari (921.818,18+ % 10eko gastu orokorrak eta mozkin

industrialak). Horixe ondorioztatzen da Batzordearen esku dagoen dokumentaziotik, zeinean baieztatu baitaiteke Garapen Ekonomikorako Departamentuak “makineria” gisa aurkeztutako zenbatekoa –2.500.000,00 euro– bat datorrela 2009ko maiatzaren 15eko kontratuaren –“Bioenergía Ultzama” sozietateak eta “Vitikovic Power Engineering AS” enpresak sinatutako kontratuaren– zenbatekoarekin, eta bat dator, halaber, “01.01 Biogasaren produktiorako instalazioa” eta “01.03 Kogenerazioko instalazioa” kontzeptuen pean Garapen Ekonomikorako Departamentuaren aurrean 2008ko ekainean aurkeztutako aurrekontuan ageri den zenbatekoari % 10 (gastu orokorren eta mozkin industrialaren kontzeptuan) gehituta ateratzen den zenbatekoarekin.

Vitikovic Power Engineering AS enpresak egindako fakturak, berriz, lagapen-hartzailearen eta teknologia emailearen arteko kontratuan daude oinarrituta. Azken horrek biogas plantaren instalazioa eta muntaketa egin eta martxan jarrita emateko konpromisoa zuen, “giltza eskura” hornidura kontratutzat. Faktura horiek Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari aurkeztu zitzaizkion, gastuaren justifikazio gisa, eta inbertsio industrialerako % 30eko diru-laguntza bat eragin zuten.

Ondoriozta daiteke, horrenbestez, Batzorde honen iritziz, enpresa desberdinek “digestio anaerobioko biltegiak” kontzeptu berarengatik bi aldiz fakturatu eta kobratu zutela, zehazki % 165.

Azterketa bera egin daiteke Landa Garapeneko Departamentuan Levensger SLren fakturekin eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan beste faktura batzuekin –bakarra ere ez Levensgerrena edo Ultzamako Udalarena– justifikatutako obra zibilarri dagokionez.

Nolanahi ere, argi utzi behar da fakturazio bikoitza ez dela gertatzen Levensger SLren eta Ultzamako Udalaren eta Bioenergía Ultzama SArren artean ezarritako zirkuituan –zeina diseinatu baitzen Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntzak kobratzeko; izan ere, Batzorde honek zalantzan jartzen du haien jatorria–, baizik eta zirkuituaren hiru partaideen artean egindako fakturen eta Vitkovic Power Engineering AS enpresak Bioenergía Ultzama SAr egindako fakturen artean.

Konklusio horietara iritsi da Batzordea hurrengo ataletan xehetasunez jasotzen diren honako egitate hauek aztertu ondoren.

2.9.1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emandako diru-laguntzen azterketa: 2008ko diru-laguntzei buruzko aipamen berezia.

2009ko otsailaren 4an, kontratu bat sinatu zen hiruren artean –Ultzamako Udalaren, administrazio sustatzaile gisa, Bioenergia Ultzama SAren, entitate lagapen-hartzaile gisa eta, horrenbestez, emakidadun berri gisa, eta Levenger SLren artean, azken hori emakidaren hasierako adjudikazio-hartzaile eta lagatzaile gisa–, abereen mindean oinarritutako elektrizitate-produkzioarako planta berri baten obra publikoaren emakida garatzeko eta ondoren planta hori ustiatzeko. Kontratu horretan, besteak beste, toki entitateak konpromisoa hartzen zuen emakidadunari ordaintzeko Nafarroako Gobernutik jasotzen zituen diru-laguntzak, egin beharreko obren finantzaketan laguntzearen kontzeptuan eta haiek itzultzeko beharrik gabe.

Kontratu horren ondorioz, Udalak diru-laguntza horiek eskatzeko hautua egin zuen, aurrerago adieraziko den eran. Itundutakoa betetzeko, kontratuan fakturazio gurutzatuko sistema bat diseinatu behar izan zen, zeinak aukera emanen baitzion Ultzamako Udalari (diru-laguntzaren onuraduna) inbertsioaren egiaztagiriak aurkezteko, nahiz eta haren ordaintzailea ez izan. Ultzamako Udalak kontraprestazio ekonomikorik ez zuten fakturak egin zituen, zeinak berariaz sortu baitziren existitzen ez zen harreman juridiko-ekonomiko bati itxura emateko; hori guztia xede bakar batekin: obra batzuk egin izana justifikatzea kasuko diru-laguntza jaso ahal izateko.

Horretarako Udala hornitzaileen artean kokatu zen (batetik, (Levenger SL eta Aierdi Ingenieros SL, eta, bestetik, Bionergia SA), bere izenean zeuden faktura batzuk lortzeko –bestela ezin izanen baitzituen lortu–, hain zuzen ere faktura horiekin egindako inbertsioa justifikatu ahal izateko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurrean, eta gero faktura horiek igorri ahal izateko une horretan emakidaduna zen enpresari, Bioenergia Ultzama SAri, zeinak faktura horien zenbatekoa ordaindu baitzion Udalari. Fakturak emakidadunari igortzeko bigarren fase hori Udalak egin zuen, Departamentuak horren berri izan gabe.

Batzorde honi igorri zaizkion Landa Garapeneko Departamentuaren espedienteko dokumentuekin bat, diru-laguntza horri buruzko honako egitate hauek aipatu behar dira:

a) 2008ko ekainaren 19an, Ultzamako Udalak laguntzen eskaera aurkeztu zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maia-

tzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduaren babesean; foru agindu horrek 2008-2013 aldiaren abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onetsi zuen.

Oinarrien 3. artikulua argi aipatzen du diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz laguntzeko den inbertsioaren % 60 izan ahalko dela.

Eta 12. artikulua, diru-laguntzaren bateragarritasunari buruzkoak, honako hau dio:

“Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izanen dira toki entitateak xede bererako jasotzen ahal dituen beste batzuekin, betiere 1698/2005 EE Erregelamenduaren itzalpean ematen ez badira. Zenbatekoak, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide propio batzuekin batera, inoiz ez du gainditu behar diruz lagundutako jarduketaren kostua.”

b) 2008ko uztailaren 24an, Ultzamako Udalak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuan honako dokumentu hau aurkeztu zuen: “Iraizotzen (Ultzama) biogasa eta elektrizitatea sortzeko mindean digestioko planta mankomunatu egiteko proiektuaren eranskina”.

Eranskin horren 2. dokumentuan aurrekontua jasotzen da: 5.174.416,13 eurokoa da guztira.

Aipatutako aurrekontuan honako partida hauek ageri dira:

I. fasea- 2008. urtea	1.741.042,30€
01.01 azpikapitulua.	
Atxikitze anaerobioko biltontziak	1.350.909,00€
01.02 azpikapitulua.	
Digestio-plantaren obra zibila:	390.133,30€
II. fasea- 2009. urtea	2.086.870,03€
02.01 azpikapitulua.	
Kogenerazioarako instalazioa	921.818,18€
02.02 azpikapitulua.	
Digestatoaren fase likidorako biltegi-iratzeko hobiak	816.908,94€
02.03 azpikapitulua. Obra zibila	348.142,91€
Exekuzio materiala, guztira	3.827.912,33€
% 6, gastu orokorrak.....	299.674,74
% 4, mozkin industrialak	153.116,49
Gastu orokorrak gehi mozkin industrialak	382.791,23 €
Zerga-oinarria, guztira	4.209.493,56€

BEZaren % 16a 673.712,57€

**KONTRATAREN AURREKONTUA,
GUZTIRA 4.884.416,13€**

Ingeniaritzako ordainsariak

Proiektua 125.000,00€

BEZa 20.000,00€

Proiektuko ordainsariak, guztira 145.000,00€

Obra zuzendaritza 125.000,00€

BEZa 20.000,00€

Zuzendaritzako ordainsariak, guztira 145.000,00€

**INGENIARITZA ORDAINSARIAK,
GUZTIRA 290.000,00**

**AURREKONTU OROKORRA,
GUZTIRA 5.174.416,13€**

c) Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaren bidez – urriaren 3ko 1664/2008 Ebazpenaren bidez eta azaroaren 6ko 1860/2008 Ebazpenaren bidez aldatu zen– Ultzamako Udalarari 1.400.000 euroko inbertsio lagungarri bat onetsi zitzaion, eta bi ekinalditan, 2008an eta 2009an, ordaintzekoa zen 840.000 euroko laguntza bat eman zitzaion (420.000 euro 2009ko urtarrilean kobratu ziren eta 420.000 euro 2010eko urtarrilean), tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko obrak diruz laguntzeko.

Hori baino lehen, 2008ko urriaren 16an, Ultzamako Udaleko alkateak Alkatetzaren 184. Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez, laguntzen deialdiaren oinarriak eta, bereziki “obren zati bat 2008ko abenduaren 20rako amaitzeko eta justifikatzeko betekizuna” ikusita, erabaki baitzen “guztira 160.000 euroko kopuruari ezezkoa ematea –zenbateko hori proiektuaren 2008ko eta 2009ko urteko ordaintzetarako aurreikusitako laguntza ekonomikoari dagokio– azaldutako arrazoiengatik”. Udalak horrela onartu egiten zuen obraren zati handi bat ezin izanen zuela burutu 2008ko deialdian eskatutako datarako.

d) 2008ko abenduaren 20ko data hori baino lehen, Aierdi Ingenieros SLk “Biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestiorako planta mankomunatuaren obra-ziurtagiria” eman zuen.

Hartan, “Obraren exekuzioa” atalean, aipatzen zen “enpresa adjudikazio-hartzaileak ekipamenduen eskaera egina ziola teknologia mota horren fabrikazioan aditua zen enpresa bati. Eskaera egiteko unean, diru-zenbateko bat aurreratu beharra

dago materialen hornidurari eta tailerreko lanei aurre egin ahal izateko”.

“Atxikitze anaerobioko biltegiak” unitateari buruzko ziurtagiri berean, aipatzen da honako honen ziurtagiria ematen zela: “erabat amaitutako partidaren guztizko zenbatekoaren % 41ari dago-kion partida bat, fabrikaziorako eta muntaketarako dokumentazio teknikoa egiteko, tailerreko fabrikaziorako materialen hornidurarako eta tailerreko fabrikaziorako alde zurretiko ordaintzetaren kontzeptuan”.

Horri buruz, Batzordeak dio sinetsita dagoela ziurtagiri hori egin zela soil-soilik helburu batekin: ez galtzea 2008ko urteko ordaintzetari zegokion diru-laguntzaren 420.000 euroko kopurua. Bestalde, Batzordea sinetsita dago jarduera edo zerbitzua udalekotezko legezko prozedura ere urratu egin zela; hain zuzen ere, arrazoi hauengatik:

– ziurtagirian bertan aipatzen denez, kontua zen “alde zurretiko ordaintzeta” bat justifikatzea, ez Iraizozko lursailean obra egiteagatik, baizik eta tailerreko ustezko lan batzuegatik eta “fabrikaziorako eta muntaketarako dokumentazio teknikoa egiteko”.

– Batzordeak daukan dokumentazioan jaso dago biltegi-tako lanen exekuzioa kontratatu zuena ez zela Levenger SL izan –zeina obren adjudikazio-hartzaile gisa agertzen baitzen ziurtagirian, nahiz eta hura ez sinatu–, baizik eta Bioenergia Ultzama SA, zeinak ez baitzuen Vitkovece Power Engineering ASrekin kontratua sinatu 2009ko maiatzaren 15era arte; hau da piezak fabrikatzen ari omen ziren data baino bost hilabete beranduago arte.

Gainera, ziurtagiri horren edukia eta Mariñelarena jaunaren lekukotza ezeztatzeko –azken horrek esan zuen Txekian ikusia zuela piezak nola fabrikatzen ari ziren, eta horregatik egin zuen ziurtagiria–, kontratu horren edukitik ondorioztatzen da ezen plantarako hornitzailea zen enpresa txekiarrak biltegiak fabrikatzen eta hornitzen has-teko konpromisoa kontratua sinatu eta bederatzigarren asterako zela, hau da, 2009ko uztailaren hirugarren asterako. Horixe egiazta daiteke kontratuan, ikusita zein ziren Vitkovece Power Engineering ASk bere gain hartutako lanen faseak, eta zehazki kontratuaren IV. atalean “Exekuzio epea”, non ezartzen baitzen kontratua sinatu eta lehenengo hilean entregatuko zela obra zibilaren proiekturako dokumentazioa eta atal teknologikoaren exekuziorako dokumentazioa, horren barnean zirela exekuzio-proiektuak, kontratua sinatu eta hiru hilabeteko epean.

Zentzu berean, 2. eranskinean, non grafikoki irudikatzen baita kontratuaren exekuzioaren kronograma, egiazta daiteke fabrikazio hori 2008ko abenduan ez zela egiten ari. Azkenean, aipatu beharra dago Vitkovice Power Engineering ASk ez zuela bere lanengatik 1. faktura egin 2009ko abuztuaren 17ra arte, honako kontzeptu honen pean "Makineria eskuratzea eta ekipamenduak"; hori dela eta, nekez gerta daiteke Levenger SLk 2008ko abenduan faktura erreal bat aurkeztea ekipamendu horiek berak hornitzeagatik.

Azkenean, ziurtagiri horren eta hartan biltegiak direla-eta aipatzen diren lanen errealitateari dagokienez, ezin ezezta daitekeen beste datu bat badago: Bioenergía Ultzamaren Negozio Planari buruz ari gara, hain zuzen ere ARPA Abogados-consultores 2009ko irailean egin zuena eta erantsitako dokumentu gisa sartu zena Rural Kutxa eta Nafarroako Kutxa banku-entitateek emanen zituzten maileguetarako abalak lortzeko NAFINCON aurkeztutako eskaeran. Dokumentu horretan (13. orrialdean), proiektuaren exekuzioaren egoera aztertzen zen, eta jada eginda zeuden faseak aipatzen ziren, baina "digestioko eta kogenerazio-ko teknologia erosteari" dagokionez, aipatzen zen berehala eginen zela, esanez gauzatutako mugarririk bakarria "kontratua sinatuta egotea" zela. Horrenbestez, 2009ko irailean egindako gauza bakarria bazen aipatu dugun kontratua sinatzea eta teknologia berehala erosi behar bazen, ondorioztatuta beharra daukagu 2008ko abenduan ezer ere ez zegoela exekutatu, eta biltegiatarako inongo teknologia ez zegoela erositakoa. Horrenbestez, ingeniari Mariñelarena jaunaren ziurtagiria ez da egiazkoa.

Batzordeak uste du Levengerren faktura horrek ez diola inongo merkataritza-errealitateari erantzuten, eta berriz diogu berariaz sortu zela aipatutako xede horrekin, alegia, Landa Garapeneko Departamentuan inbertsio bat egin izana justifikatzea 2008ko abenduaren 20a baino lehen; izan ere, merkataritza-sozietate horrek ez zuen inoiz inorekin kontratatu atxikitze anaerobioko biltegien


hornidura, eta hori guztia inbertsio berarengatik bi diru-laguntza lortzeko –eta, gainera, kostuaren % 165ean– egindako iruzurrezko amarruaren zati bat zela.

Horren froga da Batzordean jasota dagoela hortik haratago –berari egitea ez zegozkion inbertsio batzuk egitea eta ordaintzea justifikatu ahal izateko Udalak itundutako fakturazio gurutzatuko sistematik kanpo– egindako faktura bat badagoela, zeina sortu baitzen merkataritza-sozietate guttiz pribatu batek, eta definizioz irabazi asmoa zuenak, Bioenergía Ultzama SAK, bestela sekula jasoko ez zituen diru-laguntza batzuk eskuratu ahal izan zituzten, zeren eta diru-laguntza horiek toki entitateei baizik ezin baitzitzaizkien eman.

Faktura hori Bioenergía Ultzama SAK egin zuen 2008ko abenduaren 31n Levenger SLren kontra, eta haren kontzeptua azken merkataritza-sozietate horrek 2008ko abenduaren 19an Ultzamako Udalari fakturatu zion bera zela; hain zuzen ere, aipatzen aritu garen hori bera eta 1. obra-ziurtagiria egiteko oinarria izan zena. Bi faktura horien kontzeptua, diogun bezala, berdin-berdina da: "atxikitze anaerobioko biltegiak hornitzea". Eta, gainera, bi fakturretan ezaugarri tekniko berak daude. Aldea prezioan baizik ez dago: Levenger SLk Ultzamako Udalari 612.000 euro (BEZik gabe) fakturatu zizkion (Udalak Bioenergía Ultzama SAKi fakturatu zion gastua), eta Bioenergía Ultzama SAK, berriz, Levenger SLri 572.000 euro fakturatu zizkion, alegia, 50.000 euro gutxiago. Batzordeak uste du 50.000 euro horiek izan daitezkeela Bioenergía Ultzama SAK Levenger SLri egindako ordainketa, Udalari bere faktura egiteagatik; izan ere, faktura horrek inongo errealitatearik ez zuen, zeren eta ez baitzuen atxikitze anaerobioko inongo biltegirik hornitu.

Faktura horien katea itxi zen Ultzamako udalak Bioenergía Ultzama SAKi 1. ziurtagiria zela-eta egindako fakturarekin, zeinean jasotzen baitzen Levenger SLk aipagai dugun toki entitateari egindako faktura, zeina ordaindu egin baitzen.

1. ziurtagiriari dagokionez, faktura horiek zirku-lu moduko bat osatu zuten; honako hau, hain zuzen:



Beltzez dauden geziak fakturen igorlea seinalatzen dute.

Urdinez dauden geziak fakturen ordainketen hartzailea seinalatzen dute.

Berdez dagoen geziak laguntza edo diru-laguntza publikoaren azken hartzailea seinalatzen du.

Ingeniaritza finantzario oso bat da, beraz, diru-laguntza bat kobratzeko egindakoa; hain zuzen ere, Batzordearen ustez, diru-laguntza bikoitza, beste Departamentu batetik lortutakoari esker, aurrerago aztertuko dugun bezala.

Nabarmendu beharrekoa da, halaber, praktika horiek argiago uzteko, Bioenergía Ultzama SAK faktura horiek modu irregularrean kontabilizatu zituela, inbertsioak zirela kontuan hartuta:

– Udaletik jasotakoa, 737.000 euro (612.000 euro biltegiengatik gehi 125.000 euro ingeniari-tzako ordainsariengatik), ez zen inbertsio gisa kontabilizatu ibilgetuan, baizik eta emaitzen kontuko hornikuntza gisa.

– Levenger SLren kontra egindakoa, 572.000 eurokoa, salgaien salmenta moduan kontabilizatu zen.

Hartara, Bioenergía Ultzama SAK, zeina 2008ko abenduaren 12an eratu baitzen eta 2009ko otsailaren 4ra arte ez baitzuen emakidaren lagapena jaso, 2008ko abenduaren 31n 572.000 euroko negozio-zifra zeukan. Oso ere harrigarria da hori da jarduerarik ez zuen merkataritza-sozietate batentzat.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren urtarilaren 21eko 138/2009 Ebazpenaren bitartez, diru-laguntzaren lehenengo urtekoa ordaindu zen, 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura –tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko obrei dago-kie–; izan ere obra horiek 2008rako deialdian sartu ziren, 420.000 euroko zenbatekoarekin. Kopuru hori Ultzamako Udalak kobratu zuen eta Bioenergía Ultzamari transferitu zion.

e) Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren urtarilaren 22ko 161/2010 Ebazpenaren bitartez, diru-laguntzaren bigarren urtekoa ordaindu zen, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura –tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko obrei dago-kie–; izan ere obra horiek 2008rako deialdian sartu ziren, 420.000 euroko zenbatekoarekin. Diruz laguntzekoa den inbertsioaren zatiak, 2009ko ekitaldian egindakoak, 700.000 euro suposatzen du, BEZa barne. Bigarren urteko ordainketa hori ere egiteko, Ultzamako Udalak egindako lanen fakturak aurkeztu zituen: 645.737,75 euro egiten dute, BEZa barne. Hain zuzen ere, honako hauek egindako fakturak aurkeztu ziren:

– Levenger SL: 2009-630 faktura, 610.937,75 euroko zenbatekoa duena (BEZa barne), 2009-11-20koa; kontzeptua: materialen hornidura eta atxikitze anaerobioko biltegien muntaketa. Guztizkoaren % 65eko exekuzioa dagoela jotzen da.

– Aierdi Ingenieros S: 09132 faktura, 34.800 eurokoa (BEZa barne), 2009-11-19koa; kontzeptua: 2009ko obra-zuzendaritzaren ordainsariak. Obra Ultzaman biogas eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunatu bat egiteko proiektuari dagokio.

Obra horien ziurtagiriaren laburpenean, honako hau ageri da:

01 I. fasea, 2008. urtea	1.035.307,07€
01.01 Atxikitze anaerobioko biltontziak	878.090,85€
01.02 -Digestio-plantaren obra zibila:	157.216,22€
Exekuzio materiala, guztira	1.035.307,07€
% 6, gastu orokorrak	62.118,42€
% 4, mozkin industrialak	41.412,28€
Gastu orokorrak gehi mozkin industrialak	103.530,70 €
Kontrataren exekuzio osoa	1.138.837,77€
2008ko ziurtagirian kentzekoa	-612.167,31€
2009ko ziurtagiria, guztira	526.670,46€
% 16, BEZa	84.267,27€
2009ko ziurtagiria, guztira	610.937,73€

Laguntzen eskaeraren inbertsioa egiaztatzen duten fakturen eta ziurtagiriaren zerrendan, honako hau aipatzen da: “Materialen hornidura eta atxikitze anaerobioko biltegien muntaketa. Guztizkoaren % 65eko exekuzioa dagoela jotzen da. Digestio-plantaren obra zibila”.

Diru-laguntzaren amaierako ordainketa egin baino lehen, organo kudeatzaileak tokian tokiko bidezko egiaztapenak eginak zituen jarduerak guztiz exekutatuta egoteari buruz; horixe dago jasota 2009ko abenduaren 23ko obra-ikusketzaren aktan. Alabaina, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko funtzionarioek ez zekiten inolaz ere inbertsio horiek ez zituela Levenger SLk egin, baizik eta Bioenergía Ultzama SAK.

f) Udalak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan egindako inbertsioetarako aurkeztutako fakturek 1.500.851,83 euro egiten dute, BEZa barne.

Horietatik, 1.320.857,75 euro atxikitze anaerobioko biltegiengatik eta obra zibilarengatik fakturazioari dagozkie. Kopuru hori bat dator Kontuen Ganberaren txostenean, Udalak atxikitze anaerobioko biltegien eta obra zibilaren kontzeptuan ordaindutako faktura gisa, adierazitakoarekin (965.900 +172.770+% 16ko IVA= 1.320.857 euro).

Era berean, atxikitze anaerobioaren kontzeptuan ordaindutako fakturek (965.900 euro, BEZik gabe) kontzeptu horretarako proiektuaren aurrekontuan ageri zen zenbatekoaren % 65 dira. Izan ere, proiektuan 1.350.909,00 € ageri ziren, eta horri gastu orokorren eta mozkin industrialaren % 10 gehituta, 1.485.990,90 euro ateratzen dira.

Diogun bezala, balorazio ekonomikoa bat dator, zeren eta 1.485.999,90 euroko % 65 965.900 euro baita.

g) Xehetasunez azaldu den bezala, aurreko d) eta e) ataletan, behin Ultzamako Udalak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren diru-laguntzaren kontzeptuan aipatutako zenbatekoak kobratuta, horiek Bioenergia Ultzama SL emakidadunaren izenean zegoen banku-kontu batean ingresatu zituen.

2.9.2. Orduko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak emandako diru-laguntzen analisia.

Batzordeak eskuratu duen dokumentazioari begiratuta, honako egitate hauek nabarmendu behar dira –ondoren baloratuko dira–

a) Ultzamako Udaleko alkate Pérez Arregui jaunak 2008ko irailaren 26an, “eratzte bidean zen sozietate baten” izenean, inbertsio industrialerako laguntzetarako eskaera aurkeztu zuen. Egin beharreko inbertsioa 3.027.331 eurokoa zela ezarri zuen. Batzordeak uste du alkatearen jokabide hori guztiz irregularra dela, honako hauek direla eta:

– merkataritza-sozietate pribatuei zuzendutako laguntza batzuk ziren; hori dela eta, ezin da azaldu zergatik udal batek edo haren alkateak interesa izan zezakeen nor zen ere ezagutzen ez zen sozietate baten agintari gisa.

– eskaera hori aurkeztu zen egunean, Udalak ez zuen inongo erabakia harturik zerbitzua udalekotzeari buruz, ez eta haren kudeaketa-moduari buruz ere, eta administrazio-emakidarako inongo prozedura ez zegoen abiatu. Merkataritza-sozietate baten interes pribatuak ezagutu eta haien partaidea zen batek baizik ezin zuen jardun 2008ko irailean alkate Pérez jaunak jardun zuen bezala. Eskaeraren sinadurak eta “enpresan” harremanetarako pertsona bera izateak agerian uzten dute alkateak ezagutzen zuela eta bere garaian administrazio-emakida lortzeko eta ahal ziren diru-laguntza publiko gehien lortzeko, baita diru-laguntza bikoitza ere, egindako plangintza hori, eta hartan partaidea zela.

– Egiaztatu dugu Pérez jaunak plangintza hori ezagutzen zuela eta hartan partaidea zela, zeren eta eskaeran soilik Levenger SLk eman zezakeen

informazioa erabiltzen baitu. “Instalazioaren ezau-garriak” atalean jasotakoari buruz ari gara; izan ere, bertan, alkateak zehaztu zuen digestore anaerobikoak “VITROVICE”k fabrikatuko zituela –Viktovice merkataritza-enpresaren aipamen okerra– eta energia sortzeko motorrak, berriz, “TEDOM”ek fabrikatuko zituela. Hau da, alkateak 2008ko iraileko data zeraman esakeran jarri zuen soilik hilabete bat geroago Levenger SLk bere azpikontratisten zerrendan jarriko zuen gauza bera; eta enpresa horiexek izanen ziren, hain zuzen ere, plantaren exekuzio-lanak eginen zituztenak eta Bioenergia Ultzama SArI motorrak hornituko zizkietenak.

Egitate hori, Batzorde honen ustez, Perez jaunaren beste jarduketa larri eta irregular bat da, zeren eta agerian uzten du zuzeneko lankidetzan ari zela Levenger SLren interesen alde eta azken horrek Espainiar Estatuan ordezkartzaren eskusiba zeukan enpresen alde egiteko gauzatutako plangintza osoan. Levenger SL zen datu tekniko horiek ezagutzen zituen bakarra, eta merkataritza-sozietate horrek beste inork ezin izan zizkion datu horiek alkateari eman. Zer interes izan zezakeen alkateak enpresa horien alde egiteko? Zergatik hark Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari egindako eskaeran adierazitako datuak izan ziren Levenger SLk gero Udalean egin zuen eskaintzan aurkeztu zituen berak? Zergatik izan ziren gero bi enpresa txekiar horiek lan horiek egin zituztenak edo ekipamendu horiek hornitu zituztenak? Pérez jaunak ez zuen Batzordean deklaratu nahi izan, eta bere jarduketatik datozen galdera horiei edo beste batzuei erantzun ziezakekeen. Nolanahi ere, Batzordeak uste du Levenger SL merkataritza-sozietatearen interesekiko elkar-hartzeta eta haien aldeko jokabide argiak gertatu zirela.

Guztira, 3.027.331 euroko diru-laguntzak eska-tu ziren honako kontzeptu hauengatik:

1) Lursailak, eraikinak eta obra zibila, 527.331 euroko zenbatekoan: biltegien obra zibilari eta urbanizazio orokorrari dagozkio.

2) Makineria, instalazioak eta lanabesak, 2.500.000 euroko zenbatekoan: biltegiei eta kogen-erazioko instalazioei dagozkie.

Laguntza horiek enpresa-inbertsiorako laguntzen araubidean sartzen dira. Araubide hori Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren azaroaren 10eko 488/2009 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Haren oinarri arautzaileak, berriz, Enpresako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2603/2009 Ebazpenaren bidez onetsi ziren.

2603/2009 Ebazpenaren bidez onetsitako oinarrien 10. oinarri arautzailearen 3. apartatuan, honako hau ezartzen da: “RGECaren arabera salbuetsitako laguntza bat bateragarria izanen da erregelamendu beraren arabera salbuetsitako beste laguntza batekin, edo 1998/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen dituen de minimis laguntza batekin, edo diruz laguntzen ahal diren kostu berei osorik edo partzialki dagokien Europar Batasuneko beste finantziazio batekin, baldin eta metaketa horrek ez badu gainditzen erregelamendu honen arabera laguntza horri aplikatu dakiokkeen portzentaje handiena edo zenbateko handiena”.

Kasu honetan, Bioenergía Ultzama SAr eman dako laguntzek laguntzen araubide honetarako baimendutako intentsitate handienagatik emandakoak ziren; hori dela eta, aipatutako oinarriarekin bat, ez dira bateragarriak beste laguntza batzuekin. Horixe adierazi zuen eta egoki argitu zuen Garapen Ekonomikorako kontseilariak Batzorde honetan egindako agerraldian; hori dela eta, ez da inolaz ere onargarria Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik jasotako diru-laguntzen bateragarritasuna aldezte.

Deigarri gertatzen da, aldi berean, alkate Pérez jaunak sinatutako eskaerak deklarazio bat jasotzea, zeinean aipatzen baita ez dela bestelako laguntzarik eskatu; izan ere, hark berak eskatua zuen, kasu horretan Udalaren izenean, Landa Garapeneko Departamentuaren beste laguntza bat, ekipamendu eta obra zibil berengatik. Hori nahikoa ez eta enpresa emakidaduna izan zen, Bioenergía Ultzama SA, azkenean departamentu horrek Ultzamako Udalari eman zizkion diru-laguntzak kobratu zituen, eta departamentu horrek Udalari eman zizkion lehen laguntzak 2008ko irailaren 1ean onetsi ziren. Horrenbestez, eskaera horren beraren sinatze-datan, 2008ko irailaren 26an, alkateak egitateen jakinararen gainean zegoen, eta hala eta guztiz ere erantzukizunpeko adierazpena sinatu zuen, honako hau esanez: “ez dut beste administrazio publikoren edo erakunde pribatu edo partikularren, nazionalen zein nazioartekoaren, beste inongo diru-laguntzarik eskatu”.

2009ko otsailaren 4an, Bioenergía Ultzama SA sozietateak beste eskabide bat aurkeztu zuen, zeinean honako hau eranstean baitzuen: “Industria-inbertsiorako laguntzen eskabidearen inprimakia-Beste laguntza batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena”. Hartan adierazten zuen ez zuela eskatua haren xedearekin loturiko inongo diru-

laguntzarik, eta ezkututzen zuen bera izanen zela Nafarroako Gobernuko beste departamentu batek Ultzamako Udalak inbertsio berengatik lortuko zituen laguntzen azken hartzailea. Zehazki, 2009ko otsailaren 18an, eskaera egin eta 14 egun geroago, Bioenergía Ultzama SAr 420.000 euro jaso zituen, Udalak Landa Garapeneko Departamentutik kobratutakoak.

Halaber, 2008ko ekaineko data zuen aurrekontu bat aurkeztu zen, Aierdi Ingenieros SL sozietatearena, zeinean honako xehetasunak zituen laburpen bat jasotzen baitzen:

01. Biometanizazio planta eraikitzea

01.01 Biogas produkzioaren instalazioa	1.350.909,00 €
01.02 Biometanizazio plantaren obra zibila	389.033,30 €
01.03 Kogenerazioaren instalazioa	921.818,18 €
01.04 Instalazioaren urbanizazioa	90.358,22 €
02. Produktu digeritua kudeatzeko eraikinak	
02.01 Digestatoaren fase likidorako biltegitratzerako hobiak	816.908,94€
02.02 Digestatoaren fase solidoa biltegitratzeko simaurtegia	257.784,69€

Aurrekontuaren xehetasunetan, aipatzen da “01.01 Biogas produkzioaren instalazioa” izendapenaren pean “Atxikitze anaerobioko biltegiak” kontzeptua sartzen dela, 1.350.909,00 euroko zenbatekoarekin.

“01.01 Biogas produkzioaren instalazioa” eta “01.03 Kogenerazioko instalazioa” partidetan aipatutako zenbatekoen baturak 2.272.727,18 euro egiten du. Horri gastu orokorren eta mozkin industrialaren kontzeptuan % 10 gehituz gero (horixe baita aipatutako aurrekontuan islatzen den zenbatekoa), 2.499.990,90 euro ateratzen dira. Zenbateko hori bat dator, Ultzamako Udalak 2008ko irailaren 26an, “makineria” izendapenaren pean aurkeztutako eskabidean ageri denarekin, hura “eratze bidean den sozietate” baten izenean aurkeztua.

Bestalde, “01.02 Biometanizazio plantaren obra zibila” eta “01.04 Instalazioaren urbanizazioa” partidetan aipatutako zenbatekoen baturak 479.391,52 euro egiten du. Horri gastu orokorren eta mozkin industrialaren kontzeptuan % 10 gehituz gero (horixe baita aipatutako aurrekontuan islatzen den zenbatekoa), 527.330,67 euro atera-

tzen dira. Zenbateko hori bat dator Ultzamako udalak 2008ko irailaren 26an aurkeztutako eskabidean “lursailak, eraikinak eta obra zibila” izendapenaren pean ageri denarekin.

b) Enpresako zuzendari nagusiaren uztailearen 6ko 1755/2010 Ebazpenaren bitartez, erabaki zen Bioenergía Ultzama SAri 908.199,30 euroko dirulaguntza bat ematea, aurreikusitako inbertsioetik (3.027.331 euro) diruz laguntzekoa zen kostuaren % 30aren parekoa, Udalak, eratze bidean zen sozietatea ordezkatzuz, 2008ko irailaren 26an aurkeztutako eskabidearen arabera.

c) Enpresako eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 21eko 2552/2011 Ebazpenaren bitartez, Bioenergía Ultzama SAri emandako dirulaguntza birdoitu zen, eta merkataritza-enpresa horrek aurkeztutako fakturak ikusita, erabaki zen onar zitekeen inbertsioa 3.020.027,91 eurokoa zela, eta 906.008,37 euro ordaindu ziren.

Fakturretatik 1.320.857,75 euro atxikitze anaerobioko biltegiengatik eta obra zibilarengatik fakturazioari dagozkio. Kopuru hori bat dator Kontuen Ganberaren txostenean, Udalak atxikitze anaerobioko biltegien eta obra zibilaren kontzeptuan ordaindutako faktura gisa, adierazitakoarekin (965.900 +172.770+% 16ko IVA= 1.320.857 euro).

d) Landa Garapeneko Departamentuak inbertsio onargarri gisa onartutako 3.020.027,91 euroko zenbatekotik, 2.475.000,00 euro Vitkovice Power Engineering AS hornitzaileari dagozkio, zeinarekin emakidadunak biogas plantaren instalazioa egiteko kontratu bat izenpetu baitzuen 2009ko maiatzaren 15ean. Lehenago ere aipatu izan dugu kontratu hori.

Aipatutako kontratuaren 5.1 puntuan aipatzen da alde kontratatzaileek 2.500.000 euroko prezioa adostu dutela biogas plantaren horniduragatik eta instalazioagatik. Halaber, aipatzen da prezio horretan ez dela sartzen proiektuaren obra zibilari dagokion atala, ez eta arauzkoa den BEZa ere. Gogorarazi beharra dago batura hori bat datorrela biogas-produkzioa eta kogenerazioa instalatzeko partidei buruzko proiektuan aurreikusitakoarekin. Eta, zehazki, zenbateko horretatik 1.486.000 euro biogas produkzioaren instalazioaren zenbatekoari dagozkio (1.350.909 euro gehi gastu orokorrei eta mozkin industrialari dagokien % 10a), zeina baita Kontuen Ganberak bere txostenean aipatzen duen batura, hain zuzen ere Bioenergía Ultzama atxikitze anaerobioko biltegien % 100aren kontzeptuan ordaindutakoetako baten gisara.

Kontratuaren 3.1 puntuak dio haren xedea biogas instalazioaren exekuzioa dela, eta horretan

kontratatzen (Vitkovice Power Engineering AS sozietatea) konpromisoa jasotzen dela, bezeroari (Bioenergía Ultzama SA sozietatea) Ultzaman “Biogas planta baten instalazioa, muntaketa eta abian jartzea” giltza eskura entregatzekoa, horretarako hondakin biodegradagarrien –behi-mindendigestio anaerobikoa baliatuko duena.

Kontratu hori Jiri Bezdicek Vondrackovak eta Francisco Javier Tornaría Iguelzek –orduan Ultzamako Udaleko zinegotzia eta aurrerago alkateta– sinatuta dago, Bioenergía Ultzama SA sozietatearen ziguilaren pean.

Kontratuaren zenbatekoa bat dator Ultzamako Udalak 2008ko irailaren 26an Garapen Ekonomikorako Departamentuan aurkeztutako eskaeran “makineria” gisa agertzen den zenbatekoarekin.

Iruñeko Merkataritza arloko 1. Epaitegiaren 182/2014 zk.- ko hartzekodunen konkurtso Konkurtso Administrazioaren 2014ko irailaren 24ko txostenean jasotzen den bezala, Bioenergía Ultzama SAK mendekotasun teknologikoa eta bere instalazioen konponketetarako eta mantentze-lanetarako ordezkot piezen mendekotasuna dauka, zeren eta horiek Levenger SLk eta Anza Mantenimiento SLk baizik ezin baitute egin, horiek baitira “Vitkovice Power Engineering AS” enpresa txekiarraren Espainiarako ordezkari eskusiboak.

Halaber, txosten horrek dio Levenger S enpresa, Jiri Bezdicek Vondrackova jaunaren jabetzakoa, egiazki enpresa-proiektuaren sustatzailea izan zela, “Vitkovice Power Engineering AS” enpresa txekiarraren Espainiarako ordezkari gisa. Levenger SL enpresa Bioenergía Ultzama SAren akzioduna du, eta sozietate horretako hasierako partaidetzaren % 27 dauka –% 15 konkurtso administratzailearen txostenaren datan–. Bere aldetik, Jiri Bezdicek Vondrackova Administrazio Kontseiluko burua izan zen hura sortu zenetik eta 2013ko azaroaren 4ra arte. Bestalde, Jiri Bezdicek Anza Mantenimiento SL sozietatearen kapital sozialaren % 40ren administratzaile solidario eta titularra da. Enpresa horren helbide soziala Jiri Bezdicek jaunaren helbidean bertan dago, eta Bioenergía Ultzama SAren mantentze- eta konpontze-lanen arduraduna da.

e) Vitkovice Power Engineering ASk sei faktura igorri zizkion Bioenergía Ultzama SAri, guztira 2.500.000,00 euro egiten dutenak: aurrekontuan jasotako biogas produkzioaren instalazioaren kontzeptuari eta kogenerazioaren instalazioaren kontzeptuari dagozkion zenbatekoen % 100 dira, arestian aipatu den bezala. Zehazki, honako hauek izan ziren fakturak:

Fakturaren data	Faktura zk.	Deskribapena	Zenbatekoa
2009/8/17	29271060	Ekipamenduak eta makineria eskuratzea	375.000,00
2010/3/31	28258149	1. atal teknologikoaren likidazioa	199.000,00
2010/4/30	28258182	1. atal teknologikoaren likidazioa	510.000,00
2010/5/15	28258195	Atal teknologikoaren likidazioa eta instalazioa	681.500,00
2010/6/30	28258234	Atal teknologikoaren likidazioa eta instalazioa	655.300,00
2010/9/30	28258319	Atal teknologikoaren likidazioa eta instalazioa	79.200,00

f) Aurrekoaren guztiaren ondorioz, Batzordeak ondorioztatzen du ezen digestio-plantaren obra zibilaren % 140ko gainkostu bat badagoela, eta Bioenergía Ultzama SAK hornitzaileen zerrenda bati guztira, BEZa kenduta, 545.027,91 ordaindu dizkiela obra zibileko lanak egiteko.

Nolanahi ere, Batzordeak adierazi nahi du diru-laguntzak eman zitzaizkiela Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren azaroaren 10eko 488/2009 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera diru-laguntzarik jaso behar ez zuten kostu batzuei.

Aipatutako 488/2009 Foru Aginduaren 4. artikuluan diruz lagundu zitezkeen kostuen artean aktibo materialetan eta ez-materialetan egindako inbertsioak ageri dira, eta materialak honela definitzen dira: "lurrei, ekoizpenari loturiko eraikinei, instalazioei, makinei eta ekipoei dagozkienak". Bioenergía Ultzama SAK aurkeztu eta Departamentuak onartu zituen gastuak aztertuta, ondoriozta daiteke horietako askotxo ez lirakeela sartuko diruz laguntzekoak diren kostu gisa definituta dauden aktibo materialen kontzeptuan.

Adibidez, administrazio-emakidaren lagapenagatik ordaindutako ondare-eskualdaketen gaineko zergaren ordainketa (14.705,99 euro dira) Aierdi Ingenieros SLren obra-ziurtagiria (6.263,12 euro), AINek emandako laguntza teknikoa (62.000 euro), Ultzamako Udalarari ordaindutako EIOZa (84.813,92 euro) eta beste batzuk diruz laguntzekoen artean sartu behar ez ziren kostuen adibide argiak dira; bada, Garapen, Industria eta Enplegu Departamentuarentzat diruz laguntzekoak ziren kostuen artean sartu ziren.

Batzordeak uste du departamentu horretan ez zela diruz laguntzekoak ziren kostuen behar bezalako ebaluazioa eta kontrola, zeren eta aipatutako gastu horiek guztiek zerikusirik ez baitute lurretan, ekoizpenari loturiko eraikinetan, instalazioetan, makinetan eta ekipamenduetan egindako inber-

tsioarekin, eta, horrenbestez, emandako laguntzaren kalkulutik kanpo utzi behar baitziren.

2.9.3. Fakturazio bikoitzaren bitartez biome-tanizazio plantaren eraikuntza gainfinantzatzea.

Lehen aipatu dugun bezala, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Bioenergía Ultzama SAKi proiektuko hainbat kontzepturen % 30eko diru-laguntza bat eman zion; horien barruan zeuden atxikitze anaerobioko biltegiak (1.486.000 €) haien obra zibila (427.937 €) eta kogenerazioa instalatzea (1.014.000 €).

Hala eta guztiz ere, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak agerian jarri duen bezala, 2008an eta 2009an % 60 diru-laguntza emana zen jada horretarako; horren barruan dago atxikitze anaerobioko biltegiarako emandako % 65eko diru-laguntza.

Hori dela eta, inbertsioaren balizko gainfinantzaketa publiko bat ikus daiteke, zeren eta biltegien % 65erako eta obra zibilerako diru-laguntzak bi aldiz eman baitziren.

Batzordeak, dokumentazioa eta eskura dauden datuak aztertuta, uste du honako hau izanen litzatekeela gainfinantzaketaren kalkulua:

- Garapen Ekonomikorako Departamentuak emandako diru-laguntza: biltegien eta haien obra zibilaren % 100aren % 30 = $0,30 \times (1.486.000 + 427.937) = 574.181,10 \text{ €}$.

- Landa Garapenerako Departamentuak eman behar zuen diru-laguntza doituia, Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntza ezagututa: azken horrek diruz lagundu ez duen zatiaren % 30 = $0,30 \times 0,35 \times 1.486.000 + 0,30 \times (427.937 - 172.770) = 232.580,10 \text{ €}$.

- Balizko gainfinantzaketaren balorazioa: $(574.181,10 - 232.580,10) = 341.601 \text{ €}$.

Balizko gainfinantzaketaz gainera, dokumentazioaren azterketak agerian uzten du atxikitze anaerobioko biltegien eta obra zibilaren kontzeptu berarengatik enpresa desberdinei ordaindutako fakturak badaudela, % 165 eta % 140, hurrenez hurren, egiten dutenak.

Bioenergía Ultzama SAK, diru-laguntza horren justifikazio gisa, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari proiektuko diruz laguntzekoa zen zenbatekoaren guztizkoa egiten duten fakturak aurkeztu zizkion, eta horretan sartzen dira atxikitze anaerobioko biltegiak eta haien obra zibila; hori Vitkovice Power Engineering ASk eta beste hornitzaile batzuek egindako fakturen bidez egin zuen. Hala eta guztiz ere, biltegien % 65 eta haien obra zibilaren zati bat Landa Garapeneko Departamentuan justifikatu ziren Levenger S enpresaren fakturen bitartez; hain zuzen ere, Bioenergía Ultzama SAK Ultzamako Udala bitartekari gisa erabiltzen ordaindutako fakturen bitartez.

Inbertsioa justifikatzen duten fakturen zerrenda, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan (orain Garapen Ekonomikorako Departamentua) aurkeztutakoa, aztertu ondoren, ikusten da bakarria ere ez dagoela ez Levenger SLrena, ez eta Ultzamako Udalarena ere. Bai ageri da Bioenergía eta Vitkovice (teknologiaren hornitzailea) enpresen arteko kontratu bat, 2.500.000 eurokoa, zeinak jasotzen baitu atxikitze anaerobioko biltegiak eta kogenerazioko instalazioa "giltza eskura" hornitzeko akordioa. Zenbatekoa bat dator kontzeptu horiengatik proiektuaren aurrekontuan ageri denarekin. Justifikazioak, halaber, 2009ko eta 2010eko sei faktura jasotzen ditu, Vitkovice Power Engineering AS enpresak Bioenergía Ultzama SAKri egindakoak, guztira 2.500.000 € egiten dutenak, haiek banku txekiar bati ordaindu izanaren egiaztagiriek. Faktura guztiak kontabilizatuta daude.

Horrek berekin ekarri du Batzordeak ondorioztatzea Bioenergía Ultzama SAK (Ultzamako Udalaren bidez) biltegien % 65 ordaindu ziela Levenger SLri 2008an eta 2009an, eta, bestalde, biltegien % 100 2009an eta 2010ean Vitkovice Power Engineering ASri. Halere, beste behin adierazi beharra dago Bioenergía Ultzama SAK 572.000 euro berreskuratu zituela Levenger SLren kontra egin zuen faktura baten bitartez, aurrez aipatu dugun bezala.

Antzeko planteamendua egiten da obra zibila-ekin ere, zeina Landa Garapeneko Departamentuan justifikatu baitzen Levenger SLren fakturekin eta Garapen Ekonomikorako Departamentuan, berriz, beste faktura batzuekin –bakarra ere ez Levengerrena edo Ultzamako Udalarena–.

Horrenbestez, Bioenergía Ultzama SA bezalako merkataritza-enpresa batek tratamendu-plantaren kudeaketa anaerobiorako biltegien balioaren % 165 ordaindu zuen guztira. Zehazki, balioaren % 65 Ultzamako Udalari ordaindu zion, eta horrek, bere aldetik, Levenger SL merkataritza-sozietateari ordaindu zion; eta % 100 ordaindu zion Vitkovice Power Engineering AS merkataritza-sozietateari: bi kasuetan Ultzamako Udalaren (zeinak, bere aldetik, Levenger SLri fakturatua baitzion) zein Vitkovice Power Engineering ASren hainbat fakturen ordainketa izan zen.

Inongo arrazoi logikorik ez dago justifikatzen duenik zergatik Bioenergía Ultzama SA bezalako merkataritza-enpresa batek inbertsio batengatik haren balioaren % 165 ordaindu duen. Dena den, erabaki horrek aukera eman zuen bai Ultzamako Udalak, lagapen-kontratuan diseinatutako fakturazio gurutzatuko sistemaren bitartez, bai Bioenergía Ultzama SAK inbertsio horiek egiteagatik gas-tuak justifikatzeko eta horiengatik diru-laguntzak jasotzeko. Agerikoa da ezen Bioenergía fakturak jaso izan bazituen eta biltegien balioaren % 100 ordaindu izan bazuen, ezin izanen zirela aurkeztu ziren fakturak aurkeztu bi inbertsioen justifikazio gisa. Soilik aurkeztu ahalko ziren balioaren % 100 egiten zuten fakturak, eta ez % 165 egiten dutenak; eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez zuen emango guztira egiazki eman zuen zenbatekorainoko diru-laguntzarik.

Horri buruz, nabarmendu beharrekoak dira Bioenergía Ultzama SAKren, Levenger SLren eta Vitkovice Power Engineering ASren artean dauden sozietate- eta enpresa-loturak, arestian aipatu ditugunak. Lotura horiek, gainera, jasota daude Iruñeko Merkataritza arloko 1. Epaitegiaren 182/2014 zk.-ko hartzekodunen konkurtsoaren Konkurtso Administrazioak emandako txostenean, Bioenergía Ultzama SAKri buruzkoan, zeina Batzordearen esku baitago.

2.9.4. Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntzen balioezintasuna, faktura irregularrak erabiltzeagatik.

Aurreko guztia gorabehera, eta kontuan hartuta Ultzamako Udalak diru-laguntzak modu bidegabean lortu izanari buruz adierazi duguna –zeren eta modu irregularrean jaso baitziren, horretarako fakturazio gurutzatuaren sistema erabiliz, zeinarekin dirua jaso eta ordaindu behar ez zituen faktura batzuk ordaintzen baitzituen–, Batzordearen ustez faktura irregular horiekin justifikatuta toki entitateak jasotako diru-laguntza guztiak irregularizat hartu beharrekoak dira.

Aztertu beharko lirateke Ultzamako Udalak eskaerak aurkeztu zituen hiru deialdiak, eta zehaztu ea egiazko gisa aurkeztu zituen fakturak egiazkoak ziren edo ad hoc sortu eta ustezko “adjudikazio-hartzaile” bati igorritakoak diren ala ez.

Landa Garapeneko Departamentuak emandako honako diru-laguntza hauen hartzailea izan zen Ultzamako Udala:

– Tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko deialdia, 2008koa: 840.000 euro.

– Tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko deialdia, 2009koa: 500.000 euro.

– Tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko deialdia, 2010ekoa: 216.291,40 euro.

2.10. TXEKIAR ERREPUBLIKARA EGINDAKO BIDAIA

Batzordeak jakin du Ultzamako eta eskualdeko pertsonen ordezkari batak bidaia bat egin zuela Txekiar Errepublikara, eta hori jakin dugu ingeniari Mariñelarena jaunak bere agerraldian egin zituen adierazpen batzuegatik eta bidaia horri buruz dagoen faktura batengatik.

Ordezkaritza ustez osatu zuten batzuek (Perez Jauna eta Tornaría Jauna) Batzordean agertu ziren egunean deklaratzeari uko egin ziotenez, ezin izan dugu zehaztu zenbat pertsona joan ziren bidaia horretara, ez eta nortzuk joan ziren ere.

Hala eta guztiz ere, Batzordeak adierazi nahi du deigarri gertatzen zaiola 2008ko abenduaren 12an eratutako entitate batek, jarduerarik ez zutenak (Bioenergía Ultzama SA), bidaiaren gastua bere gain hartzea, Levenger SLk 2008ko abenduaren 21ean igorri zion faktura ordainduz. Faktura horretan, kontzeptu gisa, honako hau agertzen zen: “Levenger SLk ordaindutako gastuak, Txekiar Errepublikara 2008ko abenduaren 15etik 18ra egindako bidaiarako”. 4.983,75 euro dira guztira (BEZa barne).

2.11. LIZENTZIAK IZAPIDETZEARI, OBREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIARI, PLANTAKO INSTALAZIOEN LEGEZTATZEARI, INGURUMEN-BAIMENEI ETA ZEHAPEN-ESPEDIENTEEI BURUZKO ALDERDIAK.

1. Jarduera sailkatuen eta obren lizentzia

Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalek sustatutako Ultzaman Biogas eta Elektrizitatea Sortzeko Minden Digestioko Planta Mankomunatuaren Proiektuaren helburuetako bat izan zen obretarako eta jarduerarako lizentziak lortzea.

Jarduera Sailkatuen Erregelamenduari jarraituz, proiektua dela eta alde aurreko txostena eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari 2007ko urrian, eta argipenak eta aldaketak eskatu ziren; hori dela eta, hiru eranskin idatzi ziren 2007ko abendukoa bata, 2007ko abendukoa bestea eta 2008ko martxokoa azkena. Nafarroako Gobernuak, azkenean, aldeko txostena eman zuen 2008ko ekainaren 2an. Besteak beste, baldintza gisa jarri zen soil-soilik behi- eta ardi-mindak tratatzea.

Alkatetzaren 101/2008 Ebazpenaren bidez, Ultzamako Udalak plantarako jarduera-lizentzia eta obretarako lizentzia eman zuen 2008ko ekainaren 11n. Ultzamako Udalaren izenean eman zen

2008ko azaroaren 5ean, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen obra publikoaren emakida Levenger SLri ematea. Hori dela eta, jardueretarako eta obretarako lizentziak enpresa horri eskualdatu behar izan zitzaizkion; halakorik ez zen egin, ordea. Azkenean, 2009ko ekainaren 27an, obren hasieratik zenbait hilabete iragan ondoren, lizentziak Bioenergía Ultzama sozietateari eskualdatu zitzaizkion, Ultzamako alkatearen 124/2009 ebazpenean ageri den bezala.

2. Obrak aldatzea

Administrazio-emakidaren Zerbitzu Publikoaren Kudeaketa Kontratuko baldintza arautzaileen arabera –14-12.a klausula–, kontratistak beti proposatu ahalko du idatziz garapenerako eta exekuziorako komenigarritzat jotzen dituen hobekuntzak. Horretarako, aldaketa-espeditente bat behar da. Espeditentean ez dago jasota inongo aldaketa-proposamenik.

Ultzamako Udaleko Osoko Bilkuren aktetan ez dago jasota obraren balizko aldaketarik.

Espeditentean ez dago jasota Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuan, ez eta Nafarroako beste inongo departamentutan ere, kontsultarik egin denik.

3. Obra-amaierako ziurtagiria

Espeditentean obra-amaierako ziurtagiri bat agertzen da, 2010eko urriko data duena, obraharreraren akta baten antza duena baina ezin pareka daitekeena Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legean araututako dokumentuarekin; azken horretan, izan ere, exekutatu diren proiektuko obra-unitateak adierazi behar dira, beren prezioarekin; eta, horrenbestez, obraren amaierako kostua ere adierazi behar da. Nolanahi ere, bai aipatu beharra dago ezen obra-ziurtagiri bat egonda –txosten honetan hari buruz egin den balorazioarekin ere–, “2008ko abenduko” data duena,

obren exekuziorako epea hamabi hilabetetik gorako izan zela, hain zuzen ere denbora-muga hori ezarrita baitzegoen baldintza ekonomiko-administratiboetan, hain zuzen ere 14.2 baldintzan. Alabaina, ez dago jasota Ultzamako Udalak kontratuaren ez-betetze hori baloratu ere baloratu duenik (kontratuaren ez-betetzea ez ezik, legearen ez-betetze bat ere bada, 6/2006 Foru legearen 103. artikuluan aurreikusitakoa urratu baitzen), dela balizko zehapenak ezartzeko, dela, epea funtsezkoa bazen, kontratistaren erruz kontratua suntsiarazteko.

Obra-amaierako ziurtagirian, aldaketa oso garrantzitsu batzuk badaude, funtsezko aldaketak, zeinek beraiekin ekartzen baitute onetsitako proiektua eta amaieran exekutatu den obra elkarren guztiz desberdinak izatea.

Ingurumen-ikuskatzaitzaren txosten batean, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak 2012ko urriaren 18an egindakoan, aipatzen da ezen “exekutatu den instalazioa izapidetu den proiektuan jasotatik desberdina dela, zeren eta kogenerazioko hiru motor barrutitik kanpo instalatu baitira, energiaren aprobetxamendurako hurbileko lantegi bati atxikita. Desberdina da, gainera, biltegien kokapenari eta tamainari dagokionez”. Eta honako hau ere gehitzen da: “instalazioak ez du irekitze-lizentziarik”.

Batzordearen ustez, edozein aldaketak eskatu zuen aldaketa-espeditentea Ultzamako Udalean izapidetzea ez ezik, Nafarroako Gobernuari aurrez jakinarazpena bidaltzea ere, azken horrek zehatz zezan egin nahi zena funtsezko aldaketa ote zen eta, horrenbestez, erreforma-obra baino lehen proiektu berriak eta alde zuzeneko baimenak behar ote ziren.

Kogenerazioko hiru motorren kokapena hasierako kokapenetik 500 metro baino gehiagoko distantziara jartzea eta, gainera, beste batzuen enpresan, biometanizazio-plantaren instalazioan ez ezik, Goshua sozietatean ere eragina du; izan ere, azken horrek bere instalazioa legezatu beharko zuen.

4. Hasierako irekitze-lizentzia

Baldintza arautzaile ekonomiko-administratiboen 14.15 klausulari jarraituz, obrak amaituta Udalak egiaztapen-akta bat egin beharko zuen. Akta horri egindako obra publikoaren balorazio-agiri bat gehitu beharko litzaioke, Udalak egina, eta hartan egindako inbertsioa jaso beharko zen, beste agiri batzuen artean.

Ondoren, Udalak irekitze-lizentziaren kasuko espeditentea izapidetuko zuen, eta zerbitzu horiei buruz behar ziren txostenak eskatuko zituen.

Behin egiaztatuta obren emaitza proiektuaren eta ebazpen eta txostenen edukiarekin bat zetorrela, Udalak irekitze-lizentzia emanen zuen, ustiaketa-fasearen une horretatik hasita. Egiaztapen-aktari buruzko adostasuneko sinadurak automatikoki sortuko zuen emakidadunaren esku-bidea.

Espeditentean, ordea, ez dago inongo egiaztapen-aktarik, ez eta exekutututako obraren balorazio ere; gainera, ez da irekitze-lizentzia izapidetu, eta jarduera legez kanpo egin da, lizentziarik gabe.

5. Jarduera-lizentzia berria

2012ko abuztuan gertatutako minden ihes larria zela eta, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak, 2012ko urriaren 18ko data daraman agirian, Bioenergia Ultzamari eskatu zion bi hilabeteko epean instalazioa legezta zezan, zeren eta irekitze-lizentziarik ez baitzuen.

2013ko urtarrilaren 4an, Bioenergia Ultzama irekitze-lizentzia berria eskatu zuen, eta espeditente berri bat hasi zen, Nafarroako Gobernuaren errekerimendu berriekin. 2014ko martxoaren 3an dokumentazio osagarria aurkeztu zen, eta, azkenean, Alkatetzaren 2014ko maiatzaren 9ko 76/2014 Ebazpena etorri zen, zeinak jarduera-lizentzia berria ematen baitzuen.

6. Irekitze-lizentzia

Jarduera-lizentzia eman zenetik bederatzi hilabete igarota, 2015eko otsailaren 11n, irekitze-lizentzia eskatu zen. Alkatetzaren 57/2015 Ebazpenaren bidez, plantak, azkenean, 2015eko maiatzaren 6an eskuratu zuen irekitze-lizentzia.

Horrenbestez, plantak irekitze-lizentziarik gabe funtzionatu zuen Levenger SLk eta Bioenergia Ultzama SAK ustiatu zuten aldi osoan zehar, eta Udalak berak legezatu behar izan zituen instalazioak.

7. Ingurumen baimen integratua

Aurreko lizentzien paraleloan, 2010/75/EB Europako Zuzentarauaren transposizioaren ondorioz, instalazioak ingurumen baimen integratua eduki beharko zuen 2015eko uztailaren 7a baino lehen. Arrazoi hori dela eta, 2015eko martxoaren 13an, kasuko dokumentazioa aurkeztu zen Nafarroako Gobernuan. Nafarroako Gobernuak espeditentea zela-eta zenbait errekerimendu egin zituen, eta luzapenak emanda ere erantzunik jaso ez zuenez, behin betiko artxibatu zen, prozedura

iraungi egin zelako, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariaren 2016ko apirilaren 25eko 114E/2016 Ebazpenaren bidez, instalazioak behin betiko itxi ondorengo egunetan, 2016ko urtarrilean.

8. Zehapen-espeditenteak

Ugari izan dira Bioenergía Ultzama SAri irekitako zehapen-espeditenteak. Txostenean honako hauek aipatzen dira:

a) Irekitzeko lizentzia ez edukitzeagatik.

Arestian aipatutako 93/2006 Foru Dekretuak, 106. artikuluan, aipatzen du ezen jarduera bat irekitzeko lizentziarik gabe ari denean zilegi dela jardueraren etena agintzea eta, gainera, jarduera legeza dezala eskatzea edo, legeztatzeko modukoa ez bada, haren itxiera agintzea. 107. artikulua dio jarduera legeztatzea agintzen duen ebazpenak prozedura hori hasteko epe bat emanen duela. Epe hori, behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuetan izan ezik, ez da hiru hilabeteetik gorakoa izanen. 108. artikuluan aipatzen da administrazioak ur edo energia elektrikoaren horniketa eragotzi edo etenen duela bertan behera uzteko edo itxeko agindua eman duen jardueretarako. 118. artikuluan eta ondorengoetan, zehapen-araubidea garatzen da. Horren arabera, Ingurumen Departamentuak edo alkateak ebatzi behar dute zehapen-espeditentea.

Ez dago jasota Ultzamako Udalak zehapen-espeditentea ireki zuenik plantak irekitze-lizentziarik eduki ez zuen aldi osoan lizentzia hori eduki gabe jardun izatearengatik.

b) Isurketengatiko edo antzekoengatiko zehapen-espeditenteak

Nafarroako Gobernuak Batzordeari aurkeztutako dokumentazioan bi zehapen-espeditente egon ziren: bata jardunbide okerrengatik, lurra zenbait egunez mindekin abonatzegatik, horrekin Ultzamako ibaian amonio-kontzentrazio handiak eraginez (amaieran, 2.100 euroko isuna jarri zitzaion); bestea mindek Ultzamako ibaira ihes egiteagatik –10.2 kilometro inguruko tartean arrinak hiltzea eragin zuen horrek–.

Basozaintzak astebetean hiru aldiz eskatu behar izan zuen enpresak ibaiaren ibilgua garbi zezan eta solidoak erretira zitzan. Enpresak laguntzarik eman nahi izan ez zuenez, basozaintzak eskatu zuen jarrera hori astungarri gisa har zedila zehapen-espeditentean. Hala eta guztiz ere, espeditentea zehapenik gabe artxibatu zen.

Gainera, idatzizko kexa batzuk badaude, Odietako Udalak (2012-09-19), Iraizozko Kontzejuak

(2012-09-18) eta Arraitz-Orkingo Kontzejuak (2013-04-17) eginak, bai eta partikular batek ere (2012-08-29), minden isurketa dela eta. Alabaina inongo zehapen-espeditenterik ez zuten eragin.

2015-02-08an, basozaintzak plantako biltegiak eta baltsak ikuskatu zituen, eta horrek Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak dokumentu bat egitea eragin zuen, zeinean proposatzen baitu zehapen bat ezartzea baimeneko baldintzak ez betetzeagatik; zehazki, mindak edo digestatua isurtzeagatik bal-tsetatik isurbide naturalera. Ez dago jasota, ezta ere, kausa hori dela-eta espeditenterik ireki zenik.

2015-02-25ean, zinegotzi batek –gaur egun Ultzamako Udaleko alkatea denak– salaketa bat aurkeztu zuen Ingurumen Departamentuan, mindak errepidetik Auzako belazeetan barreiatzeagatik; hori, izan ere, zalantzarik gabe, jokabide oker agerikoa da, baina ez zuen zehapen-espeditenterik eragin.

2.12. ZINEGOTZIEK PARTE ERABAKIAK HARTZERAKOAN PARTE HARTZEA, HAIEN ABSTENTZIOA BEHAR ZENEAN

Aurreko beste apartatu batean, aztertu izan da deigarri gertatzen dela Ultzamako Hautesleean Elkarteko –orduan Udalean gehiengoa zuen taldeko– zazpi zinegotzietatik hiru Bioenergía Ultzama SA merkataritza-sozietateko bazkideak izatea; izan ere, biogas plantaren eraikuntzarako eta kudeaketarako administrazio-emakidaren lagapen-hartzailea zen merkataritza-sozietate hori.

Batzordeak uste du ezen hiru zinegotzi horiek abstentzioaren betebeharra zutela eta ez zutela parte hartu behar abstentzio-arrazoiren bat eragin zezaketen gaien eztabaidan eta bozketan.

Udalbatzetako kideen abstentzioaren betebehara hori Konstituzioaren printzipio batean kokatu beharra dago; izan ere, printzipio horren arabera, Administrazioak objektibotasunez zerbitzatu behar ditu interes orokorrak (103.1 eta 3 C artikulua). Agindu horren ondorioa dira agintarien eta administrazio publikoetako langileen abstentzioari eta errekusazioari buruzko arau orokorrak, neutraltasunaren printzipioaren bermatzailea; bada, horien arabera, zerbitzu publikoak interes partikularren eta interes orokorren arteko talka guztietatik babestu behar dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (2015. urtera arte indarrean egon zen) zioen azalpenean aipatzen den bezala.

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76. artikulua honako hau ezartzen du:

“Legean ezarritako bateraezintasun-arrazoien aurka jarri gabe, toki-korporazioetako kideek ez dute eztabaidetan, bozketan, erabakietan eta betearaztean parte hartuko gaia edozein dela ere, administrazio-prozeduraren eta herri-administrazioaren kontratazioen legerian aipatutako arrazoi-zen bat gertatzen denean. Arrazoi horiek tarteko direla toki-korporazioetako kideek jarduten badute, eta jarduera erabakigarria izan bada, beren partaidetzaz onartutako egintzak baliogabeak izango dira”.

Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 21. eta 185. artikuluek oinarritzko legeria hitzez hitz errepikatzen dute. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori.

Aipatutako 76. artikulua administrazio-prozedurari buruzko legeriara egiten duen bidalketaren indarrez, aplikatzekoa den araua arestian aipatutako azaroaren 26ko 30/92 Legearen 28. artikuluan dago jasota; izan ere, honako hau ezartzen du 1. apartatuan:

“Artikulu honetako hurrengo paragrafoan aipaturiko egoeraren batean dauden administrazioetako agintari edo langileek ez dute prozeduran parte hartuko, eta horren berri emango diote beren nagusi hierarkikoari, bidezkoa dena ebatz dezan”.

28. artikulua horren 2. apartatuak dioen bezala, honako hauek dira abstentziorako arrazoiak, besteak beste:

“a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea

b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandatari-tzan.”

Aurrekoaz gainera, aipatutako Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 96. artikulua eskatzen du ezen, udalbatzetako kide-zen batek eztabaidan eta bozketan parte hartzetik abstenitu behar badu, bilkuren aretotik kanpora atera behar dela gaia eztabaidatzen eta bozkatzan den unean, salbu eta eztabaidatutakoa bere jarduketa bat denean, orduan bertan geratzeko

eta bere burua defendatzeko eskubidea izanen baitu.

Batzordeak aztertu duen kasuan, nabarmendu beharrekoak dira, gutxienez ere, Ultzamako Udalaren Osoko Bilkurak hartutako lau erabaki, zeinetan Ancizu, Iribarren eta Tornaría zinegotziek abstenitu behar baitzuten.

a) 2008ko urriaren 8an egindako bilkura: hartan biogas plantaren bidez elektrizitatea sortzeko jarduera edo zerbitzua udalekutzeko prozedura onetsi zen eta hasiera eman zitzaion biogas plantaren administrazio-emakida eta obren exekuzioa kontratatzeko prozedurari.

b) 2008ko azaroaren 5ean egindako bilkura: hartan erabaki zen Levenger SLri adjudikatzea biogas plantaren administrazio-emakidarako eta obren exekuziorako kontratua.

d) 2010eko apirilaren 7an egindako bilkura: hartan erabaki zen Bioenergía Ultzama SARI baimena ematea emakidaren hipoteka bi banku-entitateekin itun zezan.

e) 2010eko urriaren 6an egindako bilkura; hartan Bioenergía Ultzama SARI adjudikatu zitzaion obra osagarrien exekuzioa, 411.312,20 euroko zenbatekoan (BEZa barne).

Lehenengo biei dagokienez, Batzordeak uste du ezen formalki Bioenergía Ultzama SA merkataritza-sozietate gisa existitzen ez zen arren, aipatutako zinegotziek, Ancizu, Iribarren eta Tornaría jaunek, ongi zekitelara –agerikoagoa da hori 2008ko azaroaren 5ean hartutako erabakiaren kasuan– duela zenbait hilabetetik abian zela proiektu bat merkataritza-sozietate hori sortzeko, zeinean parte-hartzea izanen baitzuten partaide zireneko merkataritza-sozietateen edo kooperatiben bitartez. Ezin ziren prozesu horretatik kanpo egon, zeren eta Udala aritua baitzen prozesu horren “lidergoa eramaten”, eskualdeko abeltzainekin batera, eta haiek ordezkatu baitzituen prozesu horretan eta Bioenergía Ultzama SAREN eraketan; izan ere, sozietate horretan zuzendaritza-karguak izatera ere iritsi ziren.

Zalantzarik ere ezin da geratu 2010eko apirilaren 7ko eta urriaren 6ko bilkuretan hartutako erabakiei buruz, zeren eta onuraduna Bioenergía Ultzama SA merkataritza-sozietatea baitzen, eta hiru zinegotzi horiek hartako bazkideak baitziren eta, zinegotzi baten kasuan, zuzendaritzako kidea ere bai, zeren eta administrazio-organoaren partaideak baitzen.

“Interes instituzionalik” ez zegoen, horixe ulertu baitzuten justizia auzitegiek zinegotziak erabakien edukiaren onuradunak izan arren boto-eskubideaz

baliatzeko aukera kendu ez zaien kasuetan. Erabaki guztiz diskrezionalak hartzen direneko kasuen aurrean gaude; izan ere, zinegotzi horiek eztabaidan eta bozketan egon izan ez balira, edo erabakiak hartzeko quorumik ez zen egonen –legezko gutxienezkoa ez egoteagatik– edo ez zen Udalbatzako kideen gehiengo absolutura iritsiko, hain zuzen ere horixe eskatzen baitu toki araubideari buruzko legeriak zenbait erabaki hartzeko.

2008ko urriaren 8ko bilkurara Udalbatza osatzen duten 9 zinegotzietatik 7 joan ziren. 3k abstentziora jo behar bazuten, gainerakoen, hau da, lau zinegotziren, botoak ez zuen aukerarik ematen udalekotzeko erabakia hartzeko eta kontratazio-prozedura onesteko eskatzen den gehiengo absolutura iristeko.

2008ko azaroaren 5eko bilkurara, Udalbatza osatzen zuten 9 zinegotzietatik 6 joan ziren. 3k abstentziora jo behar bazuten –eta abstentzio bat egon zen–, gainerako 3ek erabakiaren alde bozkatzeak ez zuen ematen Levenser SLri adjudikazioa emateko erabakia hartzeko behar zen gehiengo absolutua lortzeko.

2010eko apirilaren 7ko bilkurara, Udalbatza osatzen zuten 9 zinegotzietatik 8 joan ziren. 3k abstentziora jo behar bazuten, eta bik aurka bozkatu bazuten, gainerako 3ek erabakiaren alde bozkatzeak ez zuen ematen, ezta ere, Bioenergía Ultzama SAri emakidaren hipoteka baimentzeko erabakia hartzeko behar zen gehiengo absolutua lortzeko.

2010eko urriaren 10eko bilkurara, Udalbatza osatzen zuten 9 zinegotzietatik 5 joan ziren. 3k abstentziora jo behar bazuten, 2 zinegotzi geratuko ziren puntu horren eztabaidan; horrenbestez, ez zen legezko quorumik erdietsiko eztabaida hori egin ahal izateko; izan ere, gutxienez ere 3 zinegotzi behar ziren. Hori dela eta, ezin izanen zizkioten Bioenergía Ultzama SAri adjudikatu biogas plantako proiektuaren obra osagarriak.

Ondorioak argiak izanen ziren erabaki horietan guztietan: deusezak izanen ziren. Aipatutako erabakiak hartzeko eskumena duen udal organoa, Udalbatzako kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoak ematen duen quorumarekin, Osoko Bilkura zen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikulua ezarritakoari jarraituz. Ezin da gertatu zinegotzien legezko betebeharraren ondoriozko abstentzioak eragitea legez eskatutako quoruma gutxitu dadila.

Abstentziorako betebeharra zegoen arren –Batzordearen ustez horixe gertatzen baitzen hiru zinegotzi horien kasuan–, azkenean botoa eman bazuten, eta ikusita boto hori erabakigarria izan

zela erabakia hartzeko, erabaki horiek zuzenbide osoz baliogabeak edo deusezak izan beharko lukete, 30/1992 Legearen 62.1.e) artikuluan jasotako terminoetan, zeren eta erabaki horiek hartu baitziren kide anitzeko organoen borondatea osatzeko funtsezko erregelak jasotzen dituzten arauak alboratuta.

Abstentziorako betebeharrak hori agerikoa da, halaber, zinegotzi horiek beraiek Osoko Bilkuraren beste saio batzuetan izan zuten jokabideagatik beragatik ere, haietan abstentziora jo baitzuten. Alabaina, nabarmendu beharra dago hori ez zela gertatu zerbitzua udalekotzea edo administrazio-emakida adjudikatzea onesteko prozesu guztiarekin lotutako erabaki garrantzitsuenak hartu eta zenbait urte iragan arte.

Horri dagokionez, 2013ko abenduaren 4ko, otsailaren 5eko eta apirilaren 2ko, 2014ko abenduaren 10eko edo 2015eko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkurak aipa daitezke, zeinetan Ancizu eta Iribarren zinegotziak –azken horrek aipatutako azkeneko Osoko Bilkurretan ez– eztabaidatzen eta bozkatzen abstenitu baitziren. Osoko Bilkura horietako aktetan, honako hau jasotzen da:

“(…) erabaki hau hartzeko, Ancizu eta Iribarren zinegotziek abstentziorako betebeharra dute, enpresa emakidadunean parte hartzen baitute; horiek eztabaidan eta bozketan parte partzetik abstenitu dira” (2013ko abenduaren 4ko eta otsailaren 5eko bilkurak eta 2014ko apirilaren 2ko bilkura).

“(…) Horri dagokionez, Ultzama Elkartearen Udaltaldeko zinegotzi Ancizu jaunak adierazi du ez duela ez bozkatuko ez eztabaidan parte hartuko, argudiatuta etikoki eta moralki, Bioenergía Ultzama SA enpresako partaidea izan denez, botoa ematea ez zaiola etikoa iruditzen” (2014ko abenduaren 10eko eta 2015eko urtarrilaren 23ko bilkurak).

Jarduketa horiekin, aipatutako zinegotziek aitortzen zuten berdin jokatu ez zuten Osoko Bilkurretako izapidetzeetan eta hartutako erabakietan abstenitzeko betebeharrak juridikoa, ez soilik morala, bazeukatela; izan ere kontziente ziren beraiek abstenitu izanak arriskuan jarriko zuela beraiek parte hartu zuten eta irabazteko asmoa zuen entitate pribatu baten interesak aldezteko egindako plangintza osoa.

Batzordearen ustez gaitzesgarria eta arbuigarrria da Ancizu, Iribarren eta Tornaria zinegotzien jokabide larria; izan ere, aipatutako gaiak aintzat hartzeko eztabaidetan abstenitu behar zuten, beraengan interes publikoak eta pribatuak batera biltzen zirelako, baina halakorik ez zuten egin, eta

horrekin erraztu zuten Udalak hartzea bestela harzterik izanen ez zituen erabaki batzuk, modu horretan beren interes pribatuak aldeztuz.

2.13. UDALAK PLANTAREN ZAINPE ADMINISTRATIBOA EGITEA ETA JARDUERA ETE-TEA.

Ultzamako Udalak, 2014ko azaroaren 4ko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

“Biogas eta energia elektrikoa ekoizteko eskualdeko abeltzaintza-ustiategietako mindak jaso eta tratatzeko zerbitzuaren emakida zainpean uzteko neurria betearaztea; horren arrazoia da kontratistak ez duela komunikatu hilabete beraren 30etik aurrera mindak jasotzeari utziko diola, bideragarritasun ekonomiko ezarengatik; izan ere, horrek arriskuan jartzen du zerbitzu publikoa egoki eman dadila”.

Aipatu beharra dago erabaki hori hartu baino lehen, Konkurtso Administrazioak, 2014ko urriaren 31n, Iruñeko Merkataritza arloko 1. Epaitegiari eskatua ziola azaroaren 30erako dekreta zezala enpresaren jarduera etetea, proposatuz minden bilketari uztea 2014ko azaroaren 5etik aurrera. Hori abeltzainei eta enpresaren beraren langileei jakinarazi zien Ultzamako Udalak.

2.13.1. Administrazio-emakida zainpean uztea

Batzordeak uste du txostenaren atal honetan komenigarri dela zenbait azterlan aipatu eta baloratzea. Honako hauek egindako azterlanak dira:

1. Paymacotasen 2014ko urriaren 31ko txostena: agertoki ekonomiko eta teknikoak; bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa.

Ultzamako Udalak, administrazio-emakida zainpean uztea erabaki baino lehen, “Bioenergía Ultzama SAren likidazioa saihesteko hautabideak aztertzeke xedez, horrek Udalarentzat eta eskualdearentzat ekarriko zituen kalte sozial eta ingurumenekoengatik” Paymacotas enpresari eskatu zion bideragarritasun tekniko eta ekonomikoari buruzko analisi-txosten bat egin zezala.

Txosten horretan, aholkularitza-enpresak gabezia garrantzitsuak detektatu zituen instalazioetan, zeinak “urgentziakoak eta lehentasunezkoak baitira funtzionamendu egokirako”. Batzordeak arreta deitu nahi du txostenaren egileari eman zitzaion informazioari buruz, bideragarritasun ekonomikorako garrantzitsua zen datu baten inguruan: elektrizitatearen produkzioaren emaitzak. Izan ere, 2013ko datuak eman beharrean, 2012koak eman zizkion, zeinak, itxura batean,

plantaren funtzionamendu normalari baitzegozkion. Baina, gero nabarmenduko dugun bezala, enpresa beraren beste txosten baten arabera plantaren egoera ez zen inolaz ere normala, eta inbertsio ekonomiko handi bat behar zuen plantak errendimendu osoz funtziona zezan, hain zuzen ere 2012ko datuek erakusten zuten elektrizitate-kopurua sortu ahal izateko. Antzeko zerbitzu gertatzen zen bapore-produkzioarekin; izan ere, txostena egiteko unean ezereza zen, zeren eta kogenerazioaren ondoan zegoen galdarak ez baitzuen funtzionatzen.

Txostenean, hiru agertoki jaso ziren:

a) “Gaur egungo agertokia”, zeinak suposatzen baitzuen plantarekin zegoen egoera berean jarraitzea; horrek berekin zekarren hurrengo urterako aurreikuspen ekonomikoen arabera 248.259,55 euroko galerak izatea.

b) “1. agertokia”: horretarako, urgentziako zenbait konponketa egin behar ziren (galdara, lau motorren mantentzea, faseen bereizgailuaren mantentzea...) eta kudeaketa-neurriak aplikatzea diru-sarrerei zegokienez; neurri horiek berekin ekarriko zuten abeltzainek minden garraio-zerbitzuagatik edo tratamenduagatik ordaindu beharreko asko handitzea (% 32ko igoerak) edo digestatzaileen aplikazioaren kostua guztiz ordainaraztea horren onura hartzen zuten lursailtako jabeei. Agertoki horretan, Bioenergía Ultzama SAk galearekin jarraituko zuen, aurreko agertokian baino txikiagoak betiere: 171.574,99 euroko galerak, hain zuzen.

c) “2. agertokia”: honetan, aurreko agertokian jasotako neurriez gainera, beste batzuk planteatzen ziren hasierako hipotesien artean:

– plantan sartuko ziren substratuen bolumena handitzea, gaikako bilketatik heldutako hondar organikoak hartuz, haiek tratatzeko.

– giza-kontsumorako gai ez diren abereen azpi-produktuen (SANDACH) aldeztutako tratamendua: 2. eta 3. kategoriak.

– galdera konpontzea eta beste bat instalatzea.

Inbertsio berri horiek egiteko –kontuan hartu gabe planta bere funtzionamendu-egoera normalera ekartzeko behar ziren gastuak–, 1.095.000 euroko gastua planteatzen zen, zeina 5 urtetan itzuli beharreko banku-kreditu batez finantzatuko baitzen. Horrekin guztiarekin, hurrengo urteko ustiaketak jada ez zuten galerarik ekarriko, baizik eta 204.328 euroko etekina. Agertoki horrek, abeltzaintzako aipatutako igoerez gainera –horietatik bat edo beste ezartzen ezinezkoa zen Bioener-

gía Ultzama SArentzat, zeren eta, esate baterako, minden tratamenduagatiko kanona administrazio-emakidaren baldintza ekonomikoetan finkatuta baitzetozen, planteatzen zen baporearen salmentatik heldutako diru-sarrerak sei halako bihurtzea, aurreko urte 0 euroko kopurutik edo 1. agertokiko 63.971 kopurutik 383.831,10 eurora pasaz. Horrela, diru-sarrera hori sei halako bihurtzen ez bazen, informatzaileak planteatzen zuen bezala, berriz ere 115.532,10 euro inguruko galerak egonen ziren, baporearen salmentagatiko diru-sarrerak berriz ere 1. agertokikoak izatekotan. Azken batez, agertokietako bakarrean ere, planteamenduan gutxieneko errealismo bat jarrita, plantan ezin zen etekinik atera.

Batzordeak uste du azterlan hori errealitatetik oso urrun zegoela, eta konkurtso-administratzaile Berruezo jaunak bere agerraldian adierazi zuen bezala, “esne-zentralaren ipuinaren” antza handia zuen, zeren eta “komentziako txosten bat baita, gure iritziz ez hanka, ez buru ez duena” (...) Bideragarritasun plan horiek komenigarritasuneko planak dira, zeinak enkargatzen baitira zerbait justifikatzen ahalegintzeko; baina, bistan da, hitz egiten ari gara hau egiteaz edo bestea egitez, sei aldiz gehiago saltzeaz... eta digestatua saltzeari buruz, eta saiatu izan gara hura saltzen, baina saltzeko modurik ez dagoela esan izan digute”.

Batzordeak uste du, halaber, azterlan horrek helburu bakarra zuela: Ultzamako Udalak zainpean uzteari buruz hartu behar zuen erabakia justifikatzea; izan ere, justifikatu beharra zegoen plantaren jardura mantentzea ekonomikoki bideragarria zela, eta hori behar zen azterlanaren bidez justifikatu behar zen.

Nolanahi ere, aipatu beharra dago Ultzamako Udala izan zela txostena enkargatu zuena, baina ez zuela ezarri txostenean proposatuta neurri garrantzitsuenetatik bakarra ere.

2. Paymacotasen 2014ko abenduko txostena: kalteen balorazioa

Ultzamako Udalak, biogas plantaren egoera ezagutzeko txosten bat enkargatu beharrean haren kargu egiteko zer egoeratan zegoen ezagutzeko, Paymacotas aholkularitza-enpresarekin aurreko atalean aipatu dugun txostena kontratatu zuen. Zainpean uzteko erabakia hartu eta ia bi hilabete geroago, ingeniari-entresa hori beste txosten bat eskatu zion, kasu horretan “perizial” gisa kalifikatu zuena; horren helburua zen egin zezala “balorazio bat plantak bere errendimenduan pairatutako kalteei eta aldaketei buruz, abian jarri zenetik hasi eta zainpean uztearen datara arteko aldirian”.

Txostenaren egileak Batzordean irakurritako konklusioek eta lekukotasunak adierazten dute zein egoeratan zegoen planta 2014ko abenduan, hau da, ireki eta lau urtera:

Honako hau zioen txostenaren egileak, Rabadán jaunak:

“1.- Planta abandonu-egoeratzat jo genezakeen batean dago (...) Jarduketarik egin ezean, planta, itxura guztien arabera, ekonomikoki bideraezina da, eta 2015eko ekitaldian galera handiak izanen ditu (...); horrek agerian uzten du hura osatzen duten azpiegituren egoera ezin txarragoa, bai eta Ultzamako Udalak planta mankomunatuaren zainpean utzi arte nolako kudeaketa eskasa izan den.

2.- Biogas planta mankomunatuaren baldintzak hasierako baldintzetara berriz ekartzera bideratutako jarduketetarako kalkulaturako kostua, hura lan egiteko moduan jartzeko, produkzioan jarri ondoren, dokumentu honen 7. atalean adierazitakoa da: BEDERATZIEHUN ETA BEDERATZI MILA ETA BERREHUN ETA HAMAR EUROKOA (902.210 €) DA”.

Horrenbestez, txosten horrek agerian jartzen zuen ezen, plantak jatorrizko instalazioen funtzionamenduari zegokionez normaltasun-egoera berreskuratzeko, bederatziehun eta bi mila euroko inbertsio hori behar zuela; eta, gainera, plantak arestian aipatutako 2014ko urriaren 31ko “2. agertokiko” diru-sarrera irrealak sortu ahal izateko beste 1.095.000 euro inbertitzeko beharra dago. Horixe berretsi zuen ingeniari Rabadán jaunak Batzordean egindako agerraldian: “Nire ustez, 2014ko abenduan, bigarren txostena egin nuenean, alde batetik zenbait jarduketa egin behar ziren plantak funtzionatu ahal izateko. Hori alde batera utzita, zeren eta 2. agertoki horretara iritsi nahi bada beste inbertsio gehigarri batzuk egin behar baitira (...), argi dago 2014ko abenduan txosten horretan aipatzen ziren inbertsioak egin behar zirela, gehi, gero, 2. agertokira iritsi nahi izanez gero, beste inbertsio batzuk, bistan denez.

3. AIN eta GANASaren txostenak, Iruñerriko Mankomunitatearen enkarguz egindakoak: planteatutako agertoki ekonomikoak.

Ultzamako Udalarik planteatu zitzaion panoramaren aurrean, zeren eta planta kudeatu behar baitzuen zainpeak irauten zuen bitartean, eta aipatutako txostenak ikusita, bai eta hark izendatutako plantako kontu-hartzailearen beraren txostenak ere, agerikoa zen entitate publiko edo pribatu bat bilatu beharra zegoela administrazio-emakidaren kargu egin zedin edo, gutxienez ere, plantaren kudeaketa, arlo guztietan, bere gain har zezan.

Horrela, Ultzamako Udalak eta Nafarroako Gobernuak –azken horretan 9 urtez Ultzamako alkate izan zen Pérez jauna Toki Administrazioiko zuzendari nagusia zen, orduan kontseilaria zen Esparza jaunak izendatua– Iruñerriko Mankomunitateari enkargatu zioten azter zezan planta horretan tratatzea eskualde horretako hiri-hondakinen frakzio organikoa; horretarako, ebaluatu behar zuen, bai ikuspuntu teknikotik, bai ekonomikotik, zenbateraino zen egingarria planta hori erabiltzea tratamendu horretarako.

Iruñerriko Mankomunitateak, lehenbizi, Nafarroako Industria Elkarteari enkargatu zion –bera izan baitzen Bioenergía Ultzama SARI aholkua eman ziona Vitkovice Power Engineering ASK atal teknologikoaz arduratzeko exekuzio-prozesuan– honako izenburua izanzen zuen azterlan bat egiteko: “Ultzamako biogas plantari buruzko ebaluazio-txostena, hura minden eta FORU/MCPen baterako digestiorako planta bihurtzeko”; bestetik, Gestión Ambiental de Navarra SARI (GAN) honako azterlan hau egiteko enkargua eman zion: “Iruñerriko Mankomunitateko bio-hondakinak tratatzeko aukerako bideen azterlana”.

Azterlan horrek, 2015eko urtarrileko data darmanak, bost agertoki aurreikusten zituen, zeinetan desberdinak baitziren egin beharreko inbertsioak (merkeena 8.345.400 eurokoa zen eta garestiena 9.421.650 eurokoa). Plantaren emaitzak, ordea, negatiboak izan ziren agertoki horietatik lautan (6.228 eurotik 273.360 eurora bitarteko galerak) eta positiboak, berriz, bakar batean (162.719 euro).

Etxeetako hondakinen frakzio organikoa tratatzeko eta plantak abereen minden tratamenduan zuzen funtzionatzeko egin behar ziren inbertsio handiak aztertzeraz sartu gabe, emaitza positiboak duen agertoki hori egoki baloratzeko aipatu beharra dago hura gauzatu ahalko litzatekeela ibilgailuetarako gasa Mankomunitateari berari salduz sortuko liratekeen balizko diru-sarrerara batzuei esker. Hau da, agertoki horretan emaitza positiboak izateko, aipatutako zenbatekoan, baliabide moduan erabili beharreko gasaren 724.769 euroko salmenta egin beharko litzateke. Hori guztia kontuan eduki gabe zenbateko inbertsioa egin beharko lukeen Mankomunitateak bere hiri-autobusen flota egokitzeko gas hori kontsumitu ahal izateko. Batzorde honen iritziz, diru-sarreraren aurreikuspen hori guztiz irrealak dira.

Aurrekoari guztiari gehitu beharreko beste datu bat da Mankomunitateak agertokietako bakarrean ere ez zuela aurreikusten inongo zenbatekorik ordaintzea Bioenergía Ultzama SARI, ez eta Ultzamako Udalarari ere, planta eskuratzearen truke. Hala eta guztiz ere, enpresa une honetan konkur-

tsoan badago ere, eta arrazoi hori tarteko amaierara eramateko moduan egonda ere, emakidadunak eskubidea zuen –orain eskubidea duen bezala– plantako aktiboen balioa ordain diezazkioten, hainbat kontzeptu deskontatuta. Hori guztia, bistan denez, ezertan kendu gabe hartzekodun hipotekarioek –banku-entitateek– beren kredituak kobratzeko dauzkaten eskubideak. Horri guztiari buruz, agerikoa den bezala, ezer ere ez zen esaten Iruñerriko Mankomunitatearen azterlanetan.

Bioenergía Ultzama SAREN konkurtso-egoera ezagutu ondoren orduan ere Mankomunitatearen ekimenez GANek egindako azterlanak analisi bat egien du –funtsean, ingurumenaren ikuspuntutik– 2014ko uztailean egindako beste bat osatzeko. Gaikako bilketaren frakzio organikoaren tratamendu biologikorako bi aukera jasotzen ditu: konpostatzea eta digestioa. Une hartan, Ultzamako planta ez zen aintzat hartu, “azterlana egiteko unean hondakinak jasotzeko zeukan ahalmen txikia zela eta”.

Amaierako azterlanak bi faktoreen nahasketa aurreikusten zuen: “ingurumen inpaktua” eta “kostuak eta inbertsioak”. Bi faktoreak haztatu ondoren, konklusioa da “Ultzama 1” aukera dela aztertutako guztietan posizio onena lortzen zuena. Alternatiba hori, bitxia bada ere, bat dator Nafarroako Industria Elkartearen azterlanean amaieran aldeko agertoki ekonomikoa zuen alternatiba bakarrekin, hain zuzen ere ibilgailuetarako gasa ekoitziko lukeenarekin Mankomunitatearen beraren autobusetarako; baina, jada aipatu dugun bezala, alternatiba horrek errealismorik ez zuen bere planteamendu ekonomikoa, zeren eta ez baitzuen bere kostuen azterlanean jasotzen autobusen flota ibilgailuetarako gasaren erabilerara egokitzeko egin beharreko inbertsioa. Ez dakigu inbertsio horiek zenbatekoak izanen liratekeen, baina seguruena aski handiak izanen dira. Nolanahi ere, GANen txosten horretan ez da ageri “Ultzama 1” alternatiba horren kostuei eta emaitza ekonomikoi buruzko analisirik, segur aski Nafarroako Industria Elkarteari Ultzamako plantarako alternatiba desberdinei buruz egindako analisiaren emaitza jada ezagutzen zelako, eta haren ikuspuntua, funtsean, ingurumenekoa zelako.

Azterlan horretan bi datu garrantzitsu ematen ziren Batzorde honen helbururako: alternatiba horretan beharrezko gisa planteatzen zen plantaren instalazioetan 13.485.757 euroko inbertsio bat egitea, eta Nafarroako Industria Elkartearen azterlanean ez bezala, planteatzen zen plantako aktiboak eskuratzeagatik prezio bat ordaintzea; betiere, aktibo horiek data horretan –eta

azpimarratzekoa da hori, 2014ko abenduan–2.000.000 eurokoak ziren.

Dokumentazioan ez da Iruñerriko Mankomunitateak 2014ko abendutik 2014ko irailera hartutako inongo erabakirik ageri alternatiba horren exekuzioari buruz; hain zuzen ere, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspuntutik hain interesgarria zen hari buruz. Ez dago jasota, ezta ere, Mankomunitatearen beraren kudeaketarako zerbitzu teknikoek azterlan osagarriak egin izana alternatiba hori ezartzeko.

Aitzitik, errealitatea beste bat izan zen, eta Mankomunitateak, haren kudeatzaileak SODENARI 2015eko martxoaren 16an emandako erantzunean adierazi bezala, aztertu behar zuen “instalazio hori ekonomikoki, operatibaren ikuspuntutik eta ikuspuntu funtzionaltik bideragarria ote zen”. Bideragarritasun ekonomikoa eta operatiboa berriz aztertu behar izan batzuen, izanen zen Nafarroako Industria Elkartearen eta GANen azterlanekin ez zelako nahikoa, planteatutako emaitza ekonomikoak hain ebidenteak eta hain errealak ez izateagatik. Iruñerriko Mankomunitateak aukera izan zuen alternatiba hori ezartze aldera zenbait urrats egiteko, baina ez zuen halakorik egin; eta ez zuen egin, Batzorde honen iritziz, alternatibak planteatzen jarraitzen zelako jarduerari uztea eta, horrenbestez hura ixtea, halabeharrezko errealitate gisa ezar ez zitezten justifikatze aldera.

4. Zainpeak iraun zuen bitartean plantako kontu-hartzailea izan zen ALBATROS 2014 SLren txostenak

a) 2014ko abenduaren 10eko txostena, zainpearen hasieran plantak zuen egoera orokorrari buruzkoa

Ultzamako Udalaren Osoko Bilkurak zainpeko aldirako izendatu zuen kontu-hartzaileak, De Miguel Ichaso jaunak, 2010eko abenduaren 10ean txosten bat egin zuen, zeinean plantak data horretan zeukan egoera jasota utzi nahi izan baitzuen.

Txostenaren edukia, Batzordearen iritziz, edeki adierazten du emakidadunak, Bioenergía Ultzama SAK, planta nola kudeatu zuen une horretara arte, eta zein zen haren egiazko egoera.

Txostenaren lehenengo paragrafoa oso adierazgarria da, plantaren egoera ia apokaliptikoa deskribatzen baitu:

“Oro har, instalazioek abandonu hitzarekin kalifika dezakegun egoera batean daude, zikinkeriaz beterik, era guztietako materialak toki guztietan ageri direla, desantolatuta, eta korrosioa nagusi

elementu metalikoetan. Horretan, nabarmentzekoa da hondakin solidoetarako biltegiko teilatua, eta mindetarako sarrera, homogenezatzailearen sabaia...

Instalazioaren osagai garrantzitsuenen funtzionamenduaren egoera orokorraren laburpen gisa, honako hau nabarmendu dezakegu:

– Elektrizitatea eta beroa sortzeko lau motorretatik bakarrak funtzionatzen du, eta ez errendimendu osoz, zeren eta turboa matxuratuta baitago –sor dezakeenaren % 60 inguru sortzen du–. Horrenbestez, plantaren elektrizitate- eta bero-sorkuntza honako hau da: % 25 x % 60= ahal duenaren % 15.

– Solidoen bereizgailuak bypass bat badauka, zeren eta ez baitu funtzionatzen; horrenbestez ez ditu solidoak bereizten, eta kontzeptu horrengatik ere ezin ezer fakturatu.

– Goshuaren instalazioetan ezarritako bapore-sorgailuaren galdara lehertuta dago, eta ez du diru-sarrerarik sortzen baporearen salmentagatik.

– Lau homogenezatzaileetatik bakar batek funtzionatzen du.

– Plantak ez du irekitze-lizentziarik, eta errekerimendua egin zaio ingurumen baimen integratua lortzeko behar den dokumentazio guztia aurkez dezan.

– (...) Babes-, segurtasun- eta osasun-planik ez dago. Halaber, ikusten da horri buruzko seinalizazioa eskasa dela, ez dagoela langileentzako jarraibiderik eta babes-materialik ia batere ez dagoela.

– Ez dago mantentze-planik eta matxurak sortu ahala konpondu besterik ez da egin (eta ez guztiak), askotan ordezko elementu gisa hain garrantzitsuak ez diren plantako beste atal batzuk desmuntatutako materialak hartuta (emari-neurgailuak, trangaderak...) edo langileren baten materialak (instalatuta dauden bi ponpa Javier Berasainenak dira).

– Segurtasun-neurrietatik batzuk –plantako motorren aretoko gas-ihesen neurgailua, esate baterako– deskonektatuta daude.”

b) 2015eko uztailaren 31ko txostena, plantan operatzeko egin beharreko inbertsioei buruzkoa.

Ultzamako Udalak eskatuta, kontu-hartzaileak txosten berri hori egin zuen, plantaren kudeaketaren berri emateko hileroko egiten zituenetatik desberdina. Txostenak honako helburu hauek zeuzkan: berriz ere plantaren egoera deskribatzea eta haren operatibitateari jarraipena emateko egin

beharreko inbertsioen garrantzia kalkulatzea – betiere egiten duen hondakin-kudeaketaren jarduerari dagozkion araudia, fidagarritasuna eta segurtasuna betatzeko baldintzetan– eta ustiatze arrunterako behar ziren giza baliabideak kalkulatzeari.

Plantako kontu-hartzaileak argi uzten zuen plantaren ustiatzea (minden eta koipe-hondakinen sarrerari dagokionez, batetik, eta elektrizitatea eta baporea saltzearen aldetik, bestetik) planta eraiki zenetik lortutakoaren antzekoa izanen zela; hau da, ez zela aldaketarik izanen plantaren negozio-ereduan; halere, uste zen hondakinen bereizketa eta oilo-zirinararen tratamendua gehituko zirela.

Txostenean, plantako kontu-hartzaileak berriz ere azaltzen zuen nolakoa zen plantaren egoera penagarria, eta nabarmentzen zuen intzidentzia ugari eta egin beharreko inbertsio ugari bazeuzkaila. Txostenean bi jakingarri agertzen dira, erakusten dutenak norainoko mendetasuna zegoen planta egiterakoan Viktovice Power Engineering ASren jarritako teknologiarekiko: operatzaileak ezin zuen kudeaketa-programa aldatu, eta txekieraz idatzita zegoen; hori dela eta, edozein gorabehera izatekotan, Levenger SLk eta Anza Mantenimiento SLk –Jiri Berdiceken enpresa– esku hartu behar zuten, horiek baitzituzten motorren mantentzerako behar ziren baliabideak, halaxe determinatzen baitzuen haien fabrikatzaileak, TEDOMek, Espainiako Estaturako agentea baitzen.

Ondoren, egin beharreko inbertsioak kalkulatzaren ziren: 930.000 euro. Batzordeko agerraldian De Miguel jaunari horri buruz galdetuta, honako hau esan zuen:

“Hau zenbatespen bat da, planta irits dadin, esan dezagun, egoera normal batera, baina ez du bermatzen plantak bermeekin funtzionatzea, zeren eta ikusten ari baikara plantako osagai ia guztiak huts egiten ari direla. Horrenbestez, hori da huts egiten ari zela jasota izan eta konpondu beharrekoa zena, alegia, zenbait jarduketa egin beharra zegoena, baina ez luke inolaz ere bertutuko plantak epe luzean baldintza egokietan funtzionatzea. Zahartze goiztiarreko egoeran zegoen, nolabait esateagatik.”

Nabarmendu beharra dago plantaren funtzionamendu normala berreskuratzeko behar ziren inbertsioen zenbatekoa Paymacotas aholkuenpresak 2014ko abenduko bere txostenean kalkulaturakoaren ia berdina zela, azken horrek 902.210 euro aipatzen baitzituen.

c) 2016ko urtarrilaren 15eko txostena, zainpearen amaieran plantak zuen egoerari buruzkoa.

Udalak zainpearen amaiera 2016ko urtarrilaren 13rako erabaki ondoren, eta plantaren jarduera 2015eko abenduaren 29rako geratu ondoren, azaroan eta abenduan motorrak gelditzeko eta digestoreak eta homogenezatzailea husteko lanei ekin zitzairen.

Jarduera amaituta, kontu-hartzaileak, De Miguel jaunak, plantaren egoerari buruzko azken txostena egin zuen.

Hartan, jarduera geratzeko garatutako jarduerak aipatzeaz gainera, plantaren egoera jasotzen zuten; horretatik, honako hau nabarmendu beharra dago:

“-Plantan instalatutako kogenerazioko lau motorretatik bik baizik ez zuten funtzionatzen, eta funtzionatzen zuenetako batek bere ahalmenaren % 80an funtzionatzen zuen.

– Ezin zen baporea sortu, zeren eta Goshuan instalatutako motorretatik batek baizik ez baitzuen funtzionatzen, eta hiruretatik bik funtzionatzea behar baitzen.

– (...) plantak jardun duen bost urteetan, ez da sekula digestoreen, homogenezatzailearen, hobien edo baltsen mantentze-lanik egin.

– (...) Zainpeak iraun duen aldian, intzidentzia ugari izan dira plantan, eta konponketetan gastu handia egin behar izan da (75.000 euro baino gehiago, aldian fakturatutakoaren % 11ren pare); eta hori operazioari eusteko ezinbestekoak diren gutxienezkoekin ekin gabe (...)”

Interesgarriak dira, halaber, txostenean jasotako konklusio hauek:

“-Planta, jatorrian, soil-soilik behi-minda jasotzeko diseinatu zen. Demostratuta geratu zen, ordea, behi-minda ez zela nahikoa plantaren agindutako errendimendua sortzeko, eta horrek berekin ekarri zuen esne-hondakinak eta oilo-zirina ere sartu behar izatea digestoreak elikatzeko.

(...) Ikusten da ezen, Bioenergiak plantan jardun zuen urteetan, mantentze egokia falta izan direla, bai eta instalazioen garbitasuna bera eta ordena ere.

(...) Motorrek maiz izaten dituzte matxurak, eta konponketaren kostua handia da. Batez beste 40.000 ordutan funtzionatu izan dute, eta litekeena da beren bizitza erabilgarriaren amaieran iristen egotea. ANZA da TEDOM fabrikatzailearen motor horietarako mantentzaile baimendu bakarra, eta haren zerbitzua eskasa, garestia eta desatsegina da.

– (...) Uztailaren 31ko txostenean adierazi nuen bezala, plantak, abian jartzeko, inbertsio handiak behar ditu, egungo negozio-ereduarekin jarraituko badu; une hauetan, gainera, gerta daiteke inbertsio handiagoak behar izatea gangak eta beste elementu gehigarri batzuk konpondu ahal izateko.

– Inbertsio horiek egin ondoren ere, arrazoizko zalantza bat egon daiteke plantako gainerako elementuen funtzionamendu egokiari buruz, haien batez besteko bizitza nabarmen murriztu baita mantentze egokia falta izatearen ondorioz. Plantak konponketa gehiegi izan ditu zainpeko aldian, eta zalantzak daude haren etorkizuneko portaerari buruz.”

Azkenean, kontu-hartzaileak bere txostenaren ondorio gisa gauza bat baieztatzen zuen Batzorde honen iritzik garrantzi handia duena planta zainpean uztearen amaiera eta jardueraren geratzea baloratzeko:

“Egungo negozio-ereduak, egin beharreko inbertsioen ondorioz, baita zor finantzariorik gabe ere eta egungo aktiboengatik ezer ordaindu gabe ere, zalantza handiko bideragarritasun ekonomikoa du.”

Txosten berean, zainpeko aldiaren emaitza ekonomikoa jasotzen zen, eta 78.943,46 euroko emaitza negatiboa ematen zuen. Zenbateko hori osoa Ultzamako Udalak hartu zuen bere gain.

2.13.2. Biogas plantaren jarduera geratzea.

Ultzamako Udalak, 2014ko azaroaren 4an onetsitako zainpearen bost luzapen erabaki ondoren, baloratu zuen jada ez zirela gertatzen hura eragin zuten inguruabarrak.

Balorazio hori egiterakoan, zenbait faktore hartu ziren kontuan:

– Emakidadun Bioenergia Ultzama SAREN likidazio-egoera.

– Plantako kudeaketaren emaitza ekonomikoa, zainpeak iraun zuen denboran.

– Plantaren bideragarritasunari buruz egindako txosten tekniko guztiak.

– Planta eskuratzeko hainbat entitatek egindako eskaintzak, lege-arazo guztiekin batera, emakidadunaren konkurtso-egoera eta emakida-kontrata eta haren likidazioa amaitzeari ekin behar izatea barne; izan ere, kasua bazen, kontratazio-prozedura berri bat abiatu behar zen, baina eskaintzak aurkeztutakoetatik bakarrak ere ez zituen beteta formaltasuneko errekerimenduak eta bideragarritasun ekonomikoari buruzkoak.

– Plantaren funtzionamendu egokirako eta ingurumen-araudia epe laburrean bete eta ingurumen baimen integratua lortu ahal izateko epe laburrean egin beharreko inbertsioen zenbatekoa (1.000.000 euro). Plantaren jarduerari eusteko Udalak hasiera batean bere gain hartu behar zituen eta gero, agian, emakidadunari –likidazioan– edo plantaren jarduerarekin aurrera jarraitu nahi zuen entitatearen bati ordainarazi behar zizkion inbertsioak.

– Diru-laguntzak itzultzeko espedienteak irekitzeko aukera, 5 urteko gutxieneko epea ez bete-tzeagatik, eta horrek ekarriko lituzkeen ondorio ekonomikoak, 216.000 euro ingurukoak.

– Abeltzainek plantak lanean jarrai zezan erakutsitako interes eskasa, ia deuseza; izan ere, interes gehiago dute mindak plantan tratatu beharrean baltsetan eta hobietan biltegitratzeko, gero nekazaritzarako alorretan isurtzeko.

– Iruñerriko Mankomunitatearen erabakia, e-txebizitzetako hondakinen frakzio organikoa tratatzeko bestelako konponbide tekniko batzuen alde egitekoa, eta plantaren kudeaketa bere gain hartzeko inolako interesik ez izatea.

Faktore horiek guztiak haztatu ondoren eta administrazio-emakida zainpean utzi eta ia urtebete iragan ondoren, Ultzamako Udalak honako hau erabaki zuen 2015eko azaroaren 25eko bilkuran:

“Lehena.- Erabakitzea 2016ko urtarrilaren 13an amaitu dela Iraizozko (Ultzama) “Biogas eta energia elektrikoa ekoizteko eskualdeko abeltzaintza-ustiategietako mindak jaso eta tratatzeko zerbitzuaren emakida” zainpean uzteko neurria, horrek dakartzan eta aipatutako txosten juridikoe-tan jasotako legezko ondorio guztiekin”.

Horrekin, Udalak amaitutzat ematen zuen emakida zela-eta aldi baterako erabakia zuen zainpeko aldia. Batzordeak, gai hori aztertu ondoren, bat dator Kontuen Ganberak horri buruzko txostenean (15. orrialdean) egiten duen balorazioarekin: “ego-kiagoa izanen zen emakida amai zedin erabakitzea konkurtsoaren likidazio-fasea ireki zen une beretik.”

Udalaren erabaki horren ondoren, hasiera eman zitzaion obra publikoaren emakidarako kontratua amaitzeko eta gero biogas- eta elektrizitate-produkzioarako plantaren ustiatzeko faseari. Horri dagokionez, Ultzamako Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiak, 2016ko ekainaren 1ean hartutakoak, honako hau xedatu zuen:

“Abereen mindetan oinarrituta gasa eta elektrizitatea ekoizteko plantaren obra publikoaren emakida eta planta horren ustiatzea lagatzeko kontra-

tua amaiarazteko espedienteari behin betiko onepena emateko erabakia hartzea (...) eta berariaz zehaztea, horrenbestez, haren arrazoa dela enpresa emakidadun Bioenergía Ultzama SAren jarduketa erruduna, kontratua amaiarazteko honako arrazoi hauek tarteko:

– Abandonua, aldeetako batek uko egitea edo emakidadunak kontratuko bere betebeharrak funtsezkoak eta zerbitzuaren kalitatearen gutxieneko maila ez betetzea.

– Beste edozein prozeduratan, konkurtsoa edo kaudimengabezia deklaratzeko.

Akordio horretan bertan erabaki zen “entitate lagatzaileari, Ultzamako Udalari, itzultzea emakidari atxikitako ondasun eta instalazio guztiak”, eta ezarri zen sei hilabeteko epean toki entitateak “emakidadun Bioenergía Ultzama SAren aldeko likidazioa” egiten duela, “aktibo horien balorazioaren emaitza gisa, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 166. artikuluan 3. eta 4. puntuetan ezarritako baldintzetan”.

Fase honetan, zeina ez baitu Batzordeak aztertu edo ikertu, kontratua amaitzera bideratutako egintzak gauzatzen ari dira, eta bereziki plantako aktiboen balorazioa; hori guztia Nafarroako Kontseiluak 2017ko martxoaren 2ko irizpenean finkatutako irizpideei jarraituz; izan ere, hartan, emakida-kontratua amaitzeko proposamenaren alde informatu zen, hain zuzen hartan ezarritako baldintzetan.

Une honetara arte, Ultzamako Udalak balorazio-txostena onetsi du; haren arabera, Bioenergía Ultzama SAri biogas plantako aktiboengatik eman beharreko kalte-ordainaren zenbatekoa negatiboa izanen litzateke; izan ere, merkataritza-sozietate horrek 298.714,09 euro zor lizkioke Udalari.

Une honetan, prozesua amaitu gabe dago, zeren eta bai Konkurtso Administrazioak, bai Sociedad de Desarrollo de Navarra SAK (SODENA) bai Rural Kutxak eta Caixabankak alegazioak aurkeztu baitizkiote txosten horri, harekin ados ez daudela adieraziz. Ultzamako udalak behin betiko erabaki bat hartu beharko du bide administratibo hori ixteko; hori, halere, ez da eragozpena izan entitate alegazio-egileek bide judizialean errekurtsioa aurkeztu ahal izateko, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

2.14. ULTZAMAKO UDALAK JASOTAKO LAGUNTZAK EDO DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEKO ESPEDIENTEAK

2015eko martxoaren 17an, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio

Departamentuko Idazkaritza Nagusiak txosten bat egin zuen “Ultzamako Udalak Ultzaman biogas eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunatuaren proiekturako jasotako dirulaguntzei buruz, abeltzaintzako tokiko azpiegiturak hobetzeko laguntzen deialdiaren barruan, eta laguntza horiek jaso izatek heldu diren konpromisoari buruz”.

Txosten horretan, Ultzamako Udalari 2008-2010 urteetan garatutako deialdietan zehar abeltzaintzako tokiko azpiegiturak hobetzeko emandako laguntzak aztertzen dira, bai eta onuradunen betebeharrak eta betebeharrak horien balizko ez-betetzeak, diru-laguntzen kontrola, ez-betetzeen graduazioa eta abarrekoak ere. Hauxe ondorioztatzen da:

“Laguntzaren helburua eta xedea zen Ultzamako abere-mindak eta simaurrak tratatzeko planta bat instalatzea eta funtzionamenduan jartzea. Instalazioak mindetarako eta simaurrerako hainbat biltegi dauzka, bai eta tratamendurako planta ere. Egia da plantaren erabilera etenda ere abeltzainek biltegiak erabiltzen jarrai dezaketela mindak biltegitratzeko; alabaina, horrekin laguntzaren xedea galtzen da, alegia, minden tratamendua, haiek tratatu gabe ez biltze aldera. Laguntzaren oinarriak argiak dira: konpromisoari laguntzaren likidazioa egin edo inbertsioen amaierako ziurtagiria eman eta hurrengo 5 urteetan eutsi behar zaie. 2009ko deialdian jasotako laguntzen (500.000 euro) konpromisoa amaitzeko epea 2015eko abenduaren 28an iristen da muga-egunera, eta 2010eko deialdiarena (216.291,40 euro), berriz, 2017ko urtarrilaren 20an. Itzulketak suposatzen du laguntzak eta haiei dagozkien interesak bueltatzea”.

Txosten hau egin baino lehen, Ultzamako Udalak beste bat emana zuen 2014ko abenduaren 4an; hartan, diru-laguntzak ordaintzeko datak aztertu ondoren (haiek direla-eta oker bat egin zuen, adierazi baitzuen diru-laguntza horietako bat 2011-01-12an ordaindu zela; horrenbestez, 5 urteko konpromisoa 2016-01-12an amaitu zen), jasotako laguntzen zertarakoa eta xedea interpretatzen ziren, zeren eta helburua “ez baitzen soilik biogas planta eraiki eta puntuan jartzea (...) baizik eta abeltzaintza-azpiegiturei zegokiena ere”; hain zuzen ere, digestatza biltegitratzeko hobiak egitea, simaurtegi bat egitea, simaurtegi hori estaltzea, Gorrontz-Olanoko, Suarbeko, Orokietako eta Auzako biltegitratze-hobiak egitea eta haiek estaltzea. Eta honako ondorio hau ateratzen zuen:

“(…) kontuan hartuta abeltzaintzako azpiegitura horiek, modu batera edo bestera, Ultzama-Basaburua-Odieta aldeko abeltzaintza-

ustiatzietako minen kudeaketari loturik jarraituko dutela eta horien jarduera eta erabilgarritasuna ez dela inongo kasutan ere amaitu eta eten ere ez dela eten, aldeztu eta argudiatu ahal da ez dela bidezkoa abeltzaintzako azpiegitura horiek finantzatzeko jasotako laguntzak edo haien zati bat itzultzea, zeren eta kasu horietan ez baita eten ezarrita zegoen betebeharra: “laguntzen likidazioen ondorengo 5 urteetan, inbertsioak ez du inongo aldaketa garrantzitsurik izanen”.

Kontsiderazio horiek kontuan hartu gabe, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren martxoaren 9ko 337/2017 Ebazpenaren bidez amaiera eman zitzaion Ultzamako Udalari biogas planta eraikitze ordaindutako laguntzen itzulketa-espeditari, eta ezarri zen bidezkoa zela 216.291,40 euro gehi interesei zegozkien 44.159 euro itzultzea.

Batzordeak egiaztatu du Nafarroako Gobernuak eta Ultzamako Udalak interpretazio juridiko desberdina egiten dutela 2010eko deialdian jasotako diru-laguntzetan, biltegiratzerako hobietarakoetan, instalazioak 5 urtez mantentzeko epea bete izateari buruz; izan ere, interpretazioa zein den, batzuek ulertzen dute instalazio horiek inbertsio bakar baten zati bat direla eta inbertsio hori ezin dela zatitu, nahiz eta posiblea izan plantatik modu independentean erabili; beste batzuek, ordea, ulertzen dute urteko deialdi desberdinak direla, eta haietako proiektuak ere desberdinak direla, eta proiektu horien erabilerari eutsi egin zaiola, etenik gabe, gaur arte.

Une hauetan, laguntza horiek itzultzeari buruzko ebazpena dela-eta administrazioarekiko auzierrekurtso bat aurkeztuta dago eta jurisdikzio hori izanen da, azken instantzian, desadostasuna dakarren interpretazio juridiko hori ebatziko duena.

2.15. BIOENERGÍA ULTZAMA SA LIKIDATZEKO PROZEDURA

Ez da Ikerketa Batzorde honen helburua ikeritza zein egoeratan dagoen plantaren kudeaketa, baina haren egoeraren alderdi batzuek plantaren kudeaketarekin eta hartatik heldutako beste alderdi batzuekin lotura duten neurrian —emakidaren zainpe administratiboa, haren amaitzea, plantaren jarduerari uztea eta abar—, egokitzat jo da balorazio eta gogoeta batzuk egitea lehiaketari buruz, elkarrekin lotuta dauden alderdi horiek guztiak argitu ahal izateko.

2.15.1. Lehiaketaren aurrekoa:

Bioenergía Ultzama SAk 2013an Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 5. bis

artikulan aurreikusitako alde aurretiko komunikazioa egin zuen. 5.bis artikulua horretan aukera ematen da “Zordunak lehiaketaren deklarazioa dela-eta eskudun den epaitegiari jakinaraz diezaion negoziazioak hasi dituela 71.bis.1 artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako birfinantzaketa akordio bat lortzeko edo hitzarmenaren aurreiazko proposamen batekiko atxikipenak lortzeko, lege honetan ezarritako baldintzetan.”

Horren ondorioa izan zen Merkataritza arloko Epaitegiaren 613/2013 prozedura; horretan, izan ere, 2013ko abuztuaren 16ko Dekretua eman zen, zeinean komunikazio hori jasota geratzen baitzen.

2.15.2. Borondatezko konkurtsoaren eskaera: arrazoiak eta bideragarritasun plana

Bioenergía Ultzama SAren kaudimengabeziako egoera zela eta, ordezkari prozesalak 2014ko apirilaren 14an borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu zuen, eta Merkataritza arloko Epaitegiak 2014ko apirilaren 23an autoa eman zuen, zeinaren bidez deklaratu baitzen merkataritza-sozietate hori borondatezko konkurtsoan zegoela. Gaur den egunean, epaitegi horretan oraindik ere 182/2014 konkurtso arruntaren prozedura betetzen ari da.

Konkurtso Administrazioak, 2014ko irailaren 23an, Iruñeko Merkataritza arloko 1. Epaitegiari txosten bat igorri zion, zeinean, besteak beste, Bioenergía Ultzama SAren kaudimengabeziako egoeraren arrazoiak aztertzen baitziren; hartan adierazten zen ezen, merkataritza-sozietateak borondatezko konkurtsoaren eskaerarekin batera aurkeztutako oroitidazkian adierazitako arrazoi batzuk egia baziren ere, haiek ez zirela osoak; honako beste inguruabar hauek gehitzen zituen:

a) Espainiako energia-sektorearen berregituratzea, zeinak eragina izan baitu plantaren errentagarritasunean.

b) 2012an araudi fiskalean izandako aldaketak; izan ere, elektrizitate-sorkuntzagatiko zerga bat ezarri zen, sortutako balioaren % 7koa, bai eta hidrokARBuroen sorkuntzagatiko zerga ere, zeinak hasierako bideragarritasun-planetan aurreikusitako gabeko kostu-igoera bat ekarri baitzion Bioenergía Ultzama SAri.

c) Digestatoaren salmenta, ongarri gisa, ez zen iritsi bideragarritasun-planetan jasotako ez kopuruetara, ez eta salmenta-preziora ere.

d) Plantaren teknologia ez zen proiektuan aurreikusita zegoen efizientziara iritsi, eta horren ondorio garrantzitsuena izan zen metano-gasaren produkzioa aurreikusitakoa baino txikiagoa izan

zela eta horregatik kudeatzaileek mindaz gainera beste hondakin batzuk (esne-hondakinak, oilo-zirina...) sartu zituzten digestoetan, gas produkzioa handitzeko. Era berean, teknologiaren heldutasun ezak berekin ekarri du instalazioetan matxurak egotea, produkzioan geraldia egin behar izatea eragiteko modukoak, eta konpontze- eta mantentze-kostu handiekin.

e) Birfinantzaketa lortzeko ezintasuna eta finantza-erakundeek kreditu-lineak handitzea.

Batzordearentzat hori bezain garrantzitsuak dira Konkurtso Administrazioak Bioenergía Ultzama SAREN irizpideekin ados ez egoteko emandako arrazoiak; izan ere, irizpide horiek dira sozietate horrek Merkataritza arloko Epaitegian sozietatearen jardueran jarraitutasuna lortzeko adierazitakoak; horretaz gainera, bideragarritasun planean aurreikusitako helburuak lortzea ezinezkoa zen.

Horri dagokionez, Konkurtso Administrazioak dio ez dagoela ados Bioenergía Ultzama SAK jarduerarekin jarraitzeak bideragarri izatearekin, arrazoi desberdinengatik. Halere, ados daude arrazoi garrantzitsu baina ez erabakigarri batean: diru-sarrerak behar egin dute energia berriztagarriaren banaketa arautzen duen esparruaren aldaketaren ondorioz. Arrazoi horretaz gainera, Konkurtso Administrazioak honako hauek aipatzen ditu:

a)-Energiaren salmenta, hasierako bideragarritasun planetan aurreikusitakoa, urtean 4.000.000 kW/h ingurukoa zen. Zifra horretara, ordea "ez da sekula iritsi, zeren eta zifra errealak beti azpitik egon baitira (2.450.000 kW 2011n, 3.914.000 kW 2012an eta 3.859.000 kW 2013an)".

b) Ustia ketaren gainerako diru-sarrerak ere ez ziren bete: digestoaren salmenta, zeina diru-sarrerarako iturri osagarri gisa jasota baitzegoen, ongarri gisa erabiltzeko, ez da behar beste garatu, merkatuaren demanda txikia izateagatik, prezioak oso txikiak izateagatik eta osakeren kalitatea eskasa izateagatik.

c) Instalazioetatik mindak erretiratu eta plantara eramateagatik abeltzainei emandako zerbitzuetik heldu diren diru-sarrerak –defizitarioak izanda ere, kostuak estaltzera ere ez baitira iristen– ezin dira handitu, emakida arautzen dituzten baldintza ekonomiko administratiboetan ezarritako prezio finkoak lotuta egoteagatik.

d) Matxurak behin eta berriz gertatzen dira, eta konponketa-lan oso handiak eskatzen dituzte.

e) Mendetasun teknologikoa eta instalazioen mantentzerako ordezkoko elementuak lortzeko men-

detasuna; izan ere, elkarrekin lotuta dauden bi enpresaren bidez baizik ezin da egin: Levenger SL eta Anza Mantenimiento SL

f) Elektrizitatea ekoizteko lau kogeneradoreen motorrek funtzionatzen 30.000 ordu inguru eginak zituzten; hori dela eta, geraldia egin beharra zegoen eta mantentze-lan integraleko azterketa bat; horretarako inbertsioa, gutxi gorabehera, 250.000 eurokoa zen: Bioenergía Ultzama SAK ez zuen horretarako ez baliabiderik, ez eta haiek lortzeko modurik ere.

Plantaren bideraezintasun ekonomikoaren arrazoiak, zeinak Paymacotas aholku-etxearen txostenetan jada aurreratuta agertzen baitziren eta gero zainpeak iraun zuen bitartean plantako kontu-hartzailea izan zen De Miguel jaunak hasierako eta amaierako txostenetan –arestian aipatu ditugunetan– berretsi baitzituen.

2.15.3. Enpresa likidatzeko eta jarduera eteteko eskaera, Bioenergía Ultzama SAREN akziodunen Batzar Nagusiak egina.

Bioenergía Ultzama SAREN Administrazio Kontseiluak, 2014ko abuztuaren 19an egindako saioan, kudeatzaileak enpresaren egoerari buruz egindako txostena ezagutu ondoren –elektrizitate-sorkuntzarengatik diru-sarreraren jaitsiera, egin beharreko konponketak eta plantaren egoera–, erabaki zuen sozietatearen likidazioa eskatzea, enpresa sartuta zegoen konkurtso-prozeduran. Erabaki hori kontseilukide guztiek onetsi zuten, salbuespen batekin: Ultzamako Udalaren ordezkari Berasain Gascue jauna abstenitu egin zen. Halaber, erabaki zen akziodunen Batzar Nagusirako deia egitea, likidazio-eskaera hori berrets zezan.

Akziodunen Batzar Nagusi Berezi hori 2014ko irailaren 29an egin zen, bertan kapital sozialaren % 100 edo presente edo ordezkatuta zegoela.

Bertan, kudeatzaile berriak enpresaren egoera azaldu zuen berriz ere, bereziki plantak funtzionamendu normala garatu ahal izateko epe laburrean egin beharreko inbertsioak, eta honako hau ondorioztatu zuen: "edo plantan inbertitzen da edo segurtasunagatik hura ixtea gomendatzen da".

Batzar Nagusi horren, Ultzamako Udalaren ordezkariak ordezkatzeko entitatearen idazki bat irakurri zuen; bertan jakitera ematen zuen Udala zenbait kudeaketa eta kontaktu egiten ari zela, eta "ingeniaritza-enpresa bati plantaren bideragarritasunari buruzko txosten bat eskatua ziola, jakite aldera ea proiektuarekin aurrera jarraitzeko aukeraren bat ba ote zegoen".

Bioenergía Ultzama SAko abokatu Galar jaunak adierazi zuen arazoa berehalako egoera zela, zeinak “ez batzuen gomendagarri egiten jarduerari eustea jarduera hori ordaintzeko dirurik eduki gabe; hori dela eta, planta hori itxi egin beharra dago”. Presidenteak adierazi zuen epeek ez zutela biderik ematen plantaren jarduerari eusteko entitate interesdunekin akordioak egin bitarte; beste akziodun batek, entitate horien artean, Iruñerriko Mankomunitatea aipatu zuen, “izan ere, horrek kontseilarien erantzukizuna inplikatu luke.” Batzarreko idazkari Mariñelarena jaunak honako hau esan zuen. “aukeraren bat egotekotan, ez zitzaion sozietate honi jakinarazi behar azken egunean”.

Ondoren, bozketa egin zen, eta ondoren aipatzen dugun erabakiaren aldekoa izan zen: aurka bozkatu zuten Levenger SLren ordezkari Alberto Beloquik, Manuel Bustok, Bioagraria Navarra SLk, Antonio Rodríguezek, Martín Zudairek, Nafarroako Ingeniari Tekniko Industrialen Elkarteak eta Pedro Arizteguik –kapital sozialaren % 37 ziren–; alde berriz, gainerako akziodunek –kapital sozialaren % 63 egiten zuten, eta % 67 horretan honako hauek zeuden: Aritzalde Kooperatiba, % 47ren

titularra, eta Lacteos Goshua, Eco-Ultzama SL, Proyectos Tecnológicos de Navarra SAL, Piensos Saioa SL, Albaitaritza SA, Grupo Veterinario Ultzama SL eta Aierdi Ingenieros–. Honako hau zen erabakia:

“Sozietatea likidatzeko eskaera berrestea, Administrazio Kontseiluak 2014ko abuztuaren 19an onetsitako konkurtso-prozeduraren barruan.”

Hartara, egiaztatzen da Aritzalde Kooperatiban ordezkaturako abeltzainak izan zirela kapital sozialaren beren % 47arekin balantza alde batera makurrarazi zutenak 2008ko abenduan sortua zuten sozietatearen likidazioa eskatzeko; horrekin plantak jarduerari utziko zion eta gero itxi eginen zen.

2014ko irailaren 30eko erabaki hori betetz, Bioenergía Ultzama SAk prozesuan zuen ordezkariak, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen babesean, sozietatea likidatzeko eskatu zuen, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

“Une honetan, konkurtsoaren eskaera egin eta bost hilabete geroago, egoera ez da hobetu da, eta, gainera, iritsi da momentua non diru-sarrerak ez diren aski gastu arruntak ordaintzeko.”

3. KONKLUSIOAK

Aztertze eta ikertze izan ditugun egitatei buruzko egin ditugun balorazioen ondoren, Batzordeak honako konklusio hauek atera ditu:

1) Agertzeko deitutako pertsona batzuek deklaratzeari uko egin izana, batez ere Ultzamako Udalean kargu publikodun gisa erantzukizunak izan zituztenen kasuan –batzuek karguan segitzen dute, Pérez Arregui jauna adibide–, Batzordearen ustez, mespretxu egin diete Nafarroako Parlamentuari eta esleituak dituen eginkizunei, kontu publikoak kontrolatzea baita eginkizun horietako bat.

2) Batzordeak uste du plantaren kudeaketan, hura sortu zenetik itxi zen arte, modu batera edo bestera inplikaturik egon ziren pertsonen deklaratzeari uko egiteak oztopo bat izan dela planta abandonatzera eta ixtera eta funts publikoetako 3,3 milioi xahutzera eraman zuten erabakiei eta jarduketei buruzko informazio osoa izateko.

3) Batzorde honek justifikaziorik eta inolako balio etikorik gabekotzat jotzen ditu kargu publikoak duten edo izan duten pertsona horiek erabilitako argudioak, ikertu diren egitateen larritasunagatik. Agertu duten jarrera opakua kudeaketa publikoaren gardentasunaren guztiz aurkakoa da. Hain zuzen ere gardentasun hori nagusitu behar zatekeen Batzordean egin dituzten agerraldietan.

4) Batzordeak uste du 2006an eta 2007an ez zirela modu egokian aztertu mindak tratatzeko zeuden aukera guztiak, eta egiaztatu du urte horietan zehar hori aztertze zenbait bilera izan zirela Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udaltako ordezkarien artean, bai eta abeltzainekin ere, eta bilera horietako batean edo batzuetan Levenslager SLren ordezkari Jiri Bezdicek Vondrackovak hartu zuela parte, eta bertaratutakoei azaldu ziela komenigarriena zela kudeaketa kolektiboaren aukera hautatzea, biogas planta bat eraikitzearen bitartezkoa.

5) Batzordeak egiaztatu du Jiri Bezdicek Vondrackova zela, Levenslager SLren bitartez, Espainiako Estatuan biogas plantak eraikitzen zituen Vitkovic Power Engineering AS merkataritza-sozietate txekiarraren interesak ordezkatzeko zituela.

6) Batzordeak egiaztatu du ezen, Landa Garapenerako Departamentuan dokumentazioa aurkeztu baino lehen, harremanak izan zirela Ultzamako Udaleko eta departamentu horretako ordezkari politikoen artean, laguntzak edo diru-laguntzak eskuratzeari begira, eta Udalari gomendatu zitzaizkion beste udal batzuekin “mankomunitatutako” eskaera aurkez zezala, puntuazio hobea lortzeko

eta horrela diru-laguntza handiago baterako aukera izateko.

7) Batzordeak egiaztatu du abeltzainek eta toki entitateek erdi bana parte hartutako kudeaketa-eredua ez zela ezartzera iritsi, eta gauzatzera iritsi zenak ukitutako udalen parte-hartze publikoa baztertu zuela.

8) Batzordeak egiaztatu du sekula ere ez zela mankomunitate bat sortu Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalen artean. Egiaz, “kudeaketa mankomunitate” aurrera eramanen zela ikusarazteko asmakizun administratibo bat izan zen.

9) Batzordearen ustez, “kudeaketa mankomunitate” horrek xede bakarra zuen: Ultzamako Udalari modua ematea Toki Garapenerako Departamentuaren diru-laguntzatik 250.000 euro lortzearen ordezkari, urte bakoitzean 1.000.000 euro lortzeko; betiere, Alkatetzak ongi zekien horren azken helburua zela diru-laguntza hori amaierako onuradunari transferitzea, alegia, merkataritza-sozietate jakin bati, zeinak bestela ezin izanen zituen lortu, zeren eta diru-laguntza horiek soilik toki entitateek eskuratu baitzituzkete.

10) Batzordearen ustez, zalantzarik ez dago biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua Pérez Arregui jaunak zuzenean eta kontrataziorako inolako administrazio-prozedurarik gabe adjudikatu zizkiola Aierdi Ingenieros SL enpresari.

11) Batzordeak egiaztatu du Levenslager SLk parte hartu zuela biogas plantaren administrazio-emakidaren eta obretarako kontratua adjudikatu aurreko prozesuan, zehazki aurreproiektuan eta zehazki aztertutako aukeren artean erabakitako konponbidean, zeren eta aurreproiektuaren 1. eranskina idatzi baitzuen, honako izenburua zuela: “Digestio anaerobikoko eta biogas produktzio sistemaren deskribapena”.

12) Batzordearen ustez, dokumentu hori Levenslager Aierdi Ingenieros SLrentzat egindakoa, hala aurreproiektuan nola proiektuan, plantan biogasa ekoizteko ereduari buruzko erreferentzia tekniko nagusia da. Ez da digestio anaerobikoko prozesuaren deskribapen informatzailea, aurreproiektuaren atal banaezina baizik, eta bertan Ultzamaren zuzeneko aipamenak daude, Ultzamarenak soilik.

13) Batzordeak uste du Levenslager SLk aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketan izan zuten parte-hartzea irregulartasun oso larri bat dela, zeren eta erabakigarria baitzen proiektu teknikoaren funtsezko zati baten diseinuan, are gehiago merkataritza-sozietate hori aurrerago biogas plantaren administrazio-emakidarako eta obren exekuziorako kontratuaren adjudikazio-hartzaile suertatu

zenez, bere eskaintzan aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketan aurkeztutakoaren eduki berdina zuen txosten bat aurkeztuta.

14) Batzordearen ustez, Levenger SLk Bio-energiá Ultzama SAri 2009ko ekainaren 25ean egindako faktura, 27.500 eurokoa –BEZik gabe–, “Proiektuen prestaketarako aholkularitza teknikoa, Aierdi Ingenieros SL enpresarentzat” kontzeptuan, aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketaren hasierako lankidetzat horri dagokio.

15) Batzordearen ustez, dokumentazio egokia Landa Garapeneko Departamentuan 2008ko ekainean zehar aurkeztu beharko zela eta, Udalak “formalizatuta” eduki behar zuen 2007an inolako kontratazio prozedurarik gabe egin zuen adjudikazioa, adjudikazio hori kontratazio araudiaren arabera Departamentu horren aurrean justifikatu ahal izateko.

16) Batzordearen ustez, kontrataziorako hiru prozedura erabili ziren Pérez Arregui jaunak zuzenean adjudikatuak zituen aurreproiektuaren eta proiektuaren adjudikazioei estaldura formala emateko.

17) Batzordeak egiaztatu du ezen, nahiz eta hiru prozedura horietako pleguetan ezartzen zen “bazter utziko zirela adierazitakoaz gorako prezioa aurkezten zuten eskaintzak”, horietan guztietan Aierdi Ingenieros SLz gainera parte hartutako bi ingeniarietarako aurkeztutako eskaintzetan lizitazio-prezioa gaintzen zela; hala eta guztiz ere, eskaintza horiek ez ziren baztertu, onartu egin ziren, eta baloratu ere bai.

18) Batzordeak egiaztatu du ezen kasuan kasuko espedienteetan agertzen diren hiru eskaintzek 2007ko data dutela (martxoa, aurreproiektuaren kasuan, eta uztaila plantaren proiektuaren kasuan eta hobien proiektuaren kasuan), nahiz eta prozedura hori 2008an garatu zen; eta horietako bakarrean ere ez da ageri zein egunetan sartu ziren Udalaren erregistroan, ez eta udaleko arduradunei nork entregatu zizkien.

19) Batzordeak uste du Ultzamako Udaleko idazkari ohiak ez zuela egia esan 2018ko otsailaren 9an eta martxoaren 2an egindako agerraldietan, zeren eta egiaztatuta geratu baita ez zela inongo administrazio-prozedurarik egon 2007an zehar biogas plantaren aurreproiektu eta proiektu teknikoak kontratatzeke; alabaina, urte horretan Aierdi Ingenieros SLk bete egin zituen aipatutako laguntza-kontratu horiek.

20) Batzordearen ustez hiru kontratazio prozedura izapidetzearekin, bat bakarra izapidetu beharrean, kontratuaren xedea zatikatu nahi izan zen,

haren zenbatekoa murrizteko eta publizitateari buruzko betekizunak edo zegokiokoen prozedura, hau da, prozedura irekia, saihesteko. Era horretara bai Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 22. artikulua bai 73.3.d) artikulua urratu ziren. Izan ere, zatikatu gabeko zenbatekoak 90.000 eurotik gorakoa izanen zen eta, ondorioz, galarazi eginen zuen kontratazioa egitea jarraitu omen zen prozeduraren bidez, hots, Europar Batasuneko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez; alabaina, prozedura irekia erabiliz egin beharrekoa zen.

21) Batzordeak egiaztatu du Pérez Arregui jaunak Alkatezaren 74., 75. eta 76. ebazpenak, 2008ko apirilaren 24koak eman zituela. Horien bidez Aierdi Ingenieros sozietateari adjudikatu zitzaizkion, hurrenez hurren, Ultzaman gasa eta elektrizitatea sortzeko planta mankomunatuaren aurreproiektua eta proiektua eta planta horretako hobien obra zibilaren eta eraikuntzaren proiektua, guztira 145.000 eurotan, BEZa barne. Alabaina, horiek urtebete lehenagotik erredaktatuta zeuden, hark berak haiek adjudikatu baitzituen, prozedura administratibo oro alde batera utzita.

22) Batzordearen ustez, Pérez Arregui jaunaren jokabide hori prebarikazioko delitu jarraitua izan zitekeen. Batzordeak uste du Alkateak gerora –biogas plantaren aurreproiektua eta proiektua adjudikatu eta urtebetera– egin zuena, hau da, hiru prozedura negoziatu izapidetzea publizitaterik gabe eta atzeraeraginezko ondoreekin, alkateak berak ezagutzen zuen egoera irregular bat ezaltzeko ahalegina izan zela, zeinean alhora utzi baitzen ezarritako prozedura eta horren guztiaren jakituna izaki.

23) Batzordearen ustez, 2008an egindako plantaren proiekturako kontratuaren adjudikazioa kontratazio publikoaren araudiaren arabera izateari buruz Udaleko egungo idazkariak eman zuen ziurtagiria guztiz irregularra da; izan ere, idazkari horrek ederki zekien Alkatezaren 2008ko apirilaren 24ko 74., 75 eta 76. ebazpenen bitartez egindako adjudikazioak egin zirela hain zuzen ere 2007an egindako legez kanpoko kontratazioari estaldura formala emateko.

24) Batzordeak egiaztatu du ez zela inolako prozedurarik bete obra-zuzendaritza adjudikatzeke. Hala ere, egiaztatuta dago Aierdi Ingenieros SL arduratu zela obra-zuzendaritza. Ultzamako Udalak kontzeptu horrengatik 63.681,94 euro ordaindu zituen BEZik gabe.

25) Batzordearen ustez, diru-laguntzak kobratzeko dokumentazioan ageri den idazkariaren ziurtagiria, non adierazten baitu plantaren proiektura-

ko kontratuaren adjudikazioa kontratazio-araudien arabera dela, nahiz eta badakien Alkatezaren 2008ko apirilaren 26ko 74., 75. eta 76. ebazpenen bidez egindako adjudikazioak egin zirela 2007an egindako kontratazio irregular bati estaldura formala emateko, egia esaten ez duen ziurtagiri bat da eta guztiz irregular eta zalantzagarria da.

26) Batzordearen ustez, Pérez Arregui jaunaren jokabide hori ere prebarikazioko beste delitu izan zitekeen. Kasu honetan, adjudikazio-prozedura bat ez izatearen helburua zen kontratazio publikoaren araudiaren kontrolak saihestea; izan ere, obra zuzendaritzaren adjudikazioari ekin zion ezarritako prozedurei jarraitu gabe eta haiek aurrez hautatutako kontratistari adjudikatu zizkion.

27) Batzordearen ustez, 2008ko urriaren 8ko saioan Osoko Bilkurak biogas- eta elektrizitate-sorkuntzarako jarduera edo zerbitzua udaleko-tzeko jarraitutako prozedura juridikoa legez ez da bidezkoa; izan ere, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 205. artikuluan aurreikusitako prozedura erabili beharko zen, eta ez 209. artikulukoa.

28) Batzordearen ustez, Ultzamako Udalean gehiengo politikoa zutenek, Pérez Arregui jaunaren zuzendaritzapean, erabaki zuten araudi horretan ezarritako legezko prozedura ez errespetatzea, zeren bai baitzekiten hura errespetatzeak berekin zekarrela, ezinbestez, maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Legean ezarritako epea ezin betetzea eta 2008ko abenduaren 20a baino lehen ezin aurkeztea plantan obrak egin izanaren justifikazioa. Batzordearen ustez, jokabide hori irregulartasun larri bat da.

29) Batzordeak uste du Ultzamako Udalak Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 205. artikuluan ezarritako prozedura ez betetzea erabaki zuela 420.000 euro jaso gabe ez geratzeko, horixe baitzen Landa Garapeneko Departamentuak emandako diru-laguntzaren lehen urteko zenbatekoa.

30) Batzordearen ustez, biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunaturako obra-kontratuaren eta geroko ustiaketaren emakidarako adjudikazio kontratuaren prozedurak Levenger SL kanpo utzi behar zuen lizitatzailerak, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 20.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, zeren eta esku hartua baitzen kontratuaren zehaztapen teknikoak erabakitzerakoan.

31) Batzordearen ustez, Pérez Arregui jaunak batzorde horretako lehendakari gisa izan zuen jarduketa gaitzesgarria da, zeren eta entitate lizita-

tzaileetako baten bateraezintasuneko egoera hori ezagututa, ez zioten horren berri eman Kontratazio Mahaiari, entitate hori bazter zezan.

32) Batzordearen iritziz, ikuspuntu juridikotik nahiz etikotik onartezina da elektrizitatea sortzeko biogas plantaren proiektuaren baldintza teknikoak zehazten eta abeltzaintzako hondakinak jarduera horretarako tratatzeko eredu definitzen parte hartu zuen enpresa bat izatea, azkenean, planta hori eraikitzeko eta ustiatzeko administrazio-emakidaren kontratuaren adjudikazioa jaso zuena.

33) Batzordeak uste du Udaleko arduradun politikoei eta proiektua idatzi zuen ingeniariak enpresak kontratazio prozedura zuzendu eta kontrolatu egin zutela, enpresa jakin batek, Levenger SLk, jaso zezan proiektuaren adjudikazioa.

34) Batzordeak uste du kontratazio mahaiko kide izan ziren Aierdi Ingenieros SLko bi ingeniariak, Mariñelarena jaunak eta Cerdán andreak, Levenger SL enpresa prozeduran parte hartzen ari zela jakin zutenean, mahaiaren eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeari utzi behar ziotela, lankidetzaren profesionaleko harreman zuzenak izan zituztelako enpresa eskaintzaileetako batekin.

35) Batzordearen ustez, Mahaiak Levenger SLren eskaintza kontratazio-prozeduratik baztertu behar izan zuen, zeren eta ez baitzen iristen kaudimen ekonomikoaren gutxienezko atalasea. Atalase horretara iristeko, enpresa eskaintzaileen baliabide propioak lizitazio-prezioa baino % 20 txikiagoak izan zitezkeen. Baliabide horiek, Levenger SLren kasuan, % 1,24koak izan zitezkeen.

36) Batzordearen ustez, alkate Pérez Arregui jaunak ez zituen sinatu behar enpresa emakidatunarekin sinatu zituen lau kontratuetako bakarra ere, zeren eta enpresak jarri gabe baitzuen 195.320,50 euroko behin betiko bermea; horrekin, izan ere, ez zituen betetzen kontratuan araututako baldintzak, horixe ezartzen baitzuten.

37) Batzordeak uste du Pérez alkate jaunaren jarduketa hori irregularra dela eta gaitzesgarria ere bai, bazekielako legezko eta kontratuzko betebeharra zela adjudikazio-hartzaileari behin betiko bermea jar zezala eskatzea, eta bere ardura zela-ko berme hori eskatzea.

38) Batzordeak egiaztatu du Ultzamako Udalak ez zuela inolako kontrolik egin Levenger SLk eskaintutako azpikontratatuen gainean, eta bereziki obra zibila egin behar zuen enpresaren aldatutako gainean; horrekin, kontratazioari buruzko araudia urratu zen.

39) Batzordearen ustez, azpikontratatuen aldatuta horrek berekin ekarri behar zuen adjudi-

kazio-hartzaileak lizitazio-prozedura bat egin behar izatea obra zibila azpikontratatzeko; izan ere, 6/2006 Foru Legearen arabera, prozedura irekia jarraitu behar zen, lizitatuzaileen lehia askearekin.

40) Batzordeak egiaztatu du ezen, prozedura ireki hori egin beharrean, obra zibila zuzenean kontratatu zela Construcciones José Luis Tornaría Bengoetxea SLrekin, modu mankomunatuan, 1.639.780,91 euroko prezioan. Bada, familia-lotura garrantzitsuak zeuden azpikontratista horren administratzaileen eta orduan zinegotzia zen Tornaría jaunaren artean; azken hori, izan ere, Bioenergía Ultzama SAren bazkide sortzailea eta haren Administrazio Kontseiluko kidea izateaz gainera, haren ordezkaria izan zen obra kontratua sinatzerakoan.

41) Batzordearen ustez, 2009ko otsailaren 4an sinatutako kontratuan ezarri zen bereizkuntza artifiziala, “adjudikazio-hartzaile”aren (Levenger SL) eta “emakidadun”aren (Bioenergía Ultzama SA) artekoa, fikzio bat izan zen, errealitatearen itxura emateko Ultzamako Udalaren eta Levenger SLren artean existitzen ez zen kontratazio bati, zeren eta azken horrek jada emakida administratiboa lagata baitzion Bioenergía Ultzama SAri.

42) Batzordeak uste du kontratu horretan ezarritako fakturazio gurutzatuaren sistemak “adjudikazio-hartzaile”aren (Levenger SL) eta “emakidadun”aren (Bioenergía Ultzama SA) arteko bereizkuntza hori eskatzen zuela, zeren eta Levenger SLk Udalarari aurkeztutako faktura hori existitu ezean, azken horrek sekula ere ezin izanen zuen Landa Garapeneko Departamentuan egiaztatu obren exekuzioa eta diru-laguntzen eskaera, zeina 2008ko ekainean aurkeztua baitzuen, eta horrenbestez diru-laguntza horiek sekula ere ez zituen jasoko.

43) Batzordeak uste du 2009ko otsailaren 4ko kontratu horretan fakturazio gurutzatuko artifizio juridiko bat baliatu zen, zeinak helburu bakarra baitzuen Ultzamako Udalak Nafarroako Gobernutik jasotzea bestela lortzerik izanen ez zuen diru-laguntza bat; hartara, izan ere, ezin izanen zizkion funts horiek merkataritza-sozietate pribatu bati, Bioenergía Ultzama SAri, eskualdatu.

44) Batzordeak uste du horrek guztiak agerian uzten duela benetako lege-iruzur baten aurrean gaudela, zeren eta Udalak, toki entitate gisa, Landa Garapeneko Departamentuaren 2008rak deialdi bat erabili baitzuen funts publikoak transferitzeko, horretarako erabiliz legez bidezkoak ez ziren faktura batzuk –faktura horiek existitzea ezinbesteko baldintza zen berak enkargatu

gabe zituen obra batzuk justifikatu ahal izateko; izan ere, haien exekuzioa emakidaren adjudikazio-hartzailearen kontratuzko betebeharra zen hain zuzen.

45) Batzordeak uste du fakturazio gurutzatuaren sistema honekin Ultzamako Udalak eta, bereziki, bere alkatetzak bere burua eskaini zutela fikzio juridiko hori sortzeko, helburu bakar batekin: funts publikoak eskualdatzea haiek jasotzea ez zegokion merkataritza-sozietate bati. Inongo errealitate ekonomikori erantzuten ez zion faktura bat zirkulazioan jarri zen (zeren eta plantako obra teknologikoa Viktovice Power Engineering ASk egin behar zuen eta obra zibila, berriz, Construcciones José Luis Tornaría Bengoetxea SL egiten ari zen, Bioenergía Ultzama SAren enkarguz) eta horrekin aukera eman zen fikzio ekonomiko eta juridiko bat sortzeko, diru-laguntza horiek 2008an eta 2009an lortzeko gai zena.

46) Batzordearen ustez, Ultzamako Udalak Bioenergía Ultzama SAri 2008ko abenduaren 31n igorritako fakturak inolako legezko estaldurarik ez zuen, zeren eta bi entitate horien artean inongo harreman juridikorik ez baitzegoen.

47) Batzordearen ustez, bai faktura hori bai Levenger SLk Udalarari 2008ko abenduaren 19an aurkeztutako 709.920 euroko fakturak agerian uzten dute alde aurretiko plangintza bat bazegoela Ultzamako Udalaren, Levenger SLren eta 2008ko abenduaren 12an Bioenergía Ultzama SA eratu zutenen artean, azken horrek amaierako hartzaile gisa jaso ahal zezan bestela –Udalak “adjudikazio-hartzaile”aren eta “emakidadun”aren arteko fikzio juridiko hori ontzat eman ezean– sekula egokituko ez zitzaiokeen diru-laguntza bat.

48) Batzordeak egiaztatu du ezen, Levenger SLk emakidaren kontratazio-prozeduran aurkeztutako eskaintzan ezartzen bazen ere proiektuaren talde sustatzaile bat egonen zela, AYZAS Sk, Levenger SL eskaintzaileak berak, abeltzainek eta Udalak osatua, proiektua kudeatzeko sortuko zen sozietate hori ez zela sekula ere gauzatzera iritsi, eta aipatu berri ditugun eragileek parte hartutako sozietate emakidadun bat eratu beharrean, merkataritza-sozietate bat sortu zela (Bioenergía Ultzama SA), zeinean Udalak ez baitzuen inongo parte-hartzerik izan, nahiz eta adjudikazio-hartzailearen eskaintzan halaxe aurreikusten zen.

49) Batzordearen ustez, udal espediente osoan inongo txosten juridikorik edo ekonomikorik ez dago justifikatzen duenik Udalak udalekotutako jardueraren edo zerbitzuaren ematea administrazio-emakida baten bitartez eman behar zenik, nahiz eta 6/1990 Foru Legearen 206. artikuluan

ezarri udalekotutako zerbitzuak nagusiki toki entitatearen parte-hartze eskusiboa edo partziala duen sozietate baten bitartez emanen direla.

50) Batzordearen ustez, deigarri gertatzen da Bioenergía Ultzama SAREN eraketan parte hartzea, adjudikazio-hartzaile suertatu zen enpresaz –Levenger SL– gainera, Ultzamako udalbatzako kide Francisco Tornaría Iguelz, Agustín Ancizu Elizondo eta Francisco M^a Iribarren Altuna jaunek, bai eta Aierdi Ingenieros SLko administratzaile bakar José M^a Mariñelarena Saralegui jaunak ere.

51) Batzorde honen ustez, Berdices jaunaren jarduketa, Levenger SLren administratzaile gisa, engainu bat izan zen agertutako gainerakoentzat; horien artean zeuden merkataritza-sozietateko gainerako bazkideak eta Udalaren ordezkaria bera. Izan ere, Bioenergía Ultzama SARI administrazio-emakidaren lagapenaren truke 20.000 euro kobratzeko faktura bat egin zuen, nahiz eta egun berean merkataritza-sozietate horren eraketan agertua zen eta notario aurrean adierazia zuen emakida hori doan lagatzen zuela. Berasain jauna.

52) Batzordearen ustez, Ultzamako biometanizazio plantaren prozesu osoa diseinatu zutenek, hasierako planetik eta negozio-planetik hasi eta kudeaketaren hasierara arte, zalantzarik gabe jaso zuten finantzaketaren atal oso garrantzitsu gisa Nafarroako erakundeetatik jaso zitezkeen diru-laguntza eta laguntza publikoak. Eta Batzordeak daukan dokumentazioari jarraituz, esan dezakegu ezen, diru-laguntzen kopuru ahal den handiena lortzeko, pertsona horiek beraiek –Udaleko arduradunek, proiektua erredaktatu dutenek eta enpresa-proiektuan parte hartutakoek, nola baitira abeltzainak eta Levenger SL– sistema edo egitura bat diseinatu zutela obra edo inbertsio bakar batengatik Nafarroako Gobernu departamentu desberdinen gainfinantzaketa bat lortzeko.

53) Batzordeak egiaztatu du bi diru-laguntza kobratzeko plangintza egin zutela, teorikoki xede desberdinetarakoak baina inbertsio berari buruzkoak zirenak; hartara, bi departamentu desberdinetan eskatu ziren, eta, gainera, haietan aurkeztutako dokumentazioan kontzeptu desberdinak erabili zituzten inbertsio bera aipatzeko: “atxikitze anaerobioko biltegiak” eta “biogas produkzioarako instalazioa”.

54) Batzordeak egiaztatu du diru-laguntzak eman zitzaizkien inbertsioek, zeinak gainfinantzatuta egon zirela jotzen baita, jatorri bikoitza izan zutela: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Ultzamako Udalari eman eta ordaindutakoak, abeltzainen tokiko azpiegituren

hobekuntza diruz laguntzera bideratutakoak, eta orduko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Bioenergía Ultzama SA enpresari eman eta ordaindutakoak

55) Batzordeak egiaztatu du bi departamentu desberdinen laguntzak lortu zirela, deialdi desberdin batzuen babesean: horrela lortu zen gainfinantzaketa hori, Kontuen Ganberak egiaztatu duen bezala; izan ere, konprobatu du digestio anaerobioko biltegiei buruzko faktura batzuk badaudela, 965.900 euro (obra horren kostu osoaren % 65i dagokio) eta 1.486.000 euro (biltegien kostuaren % 100) egiten dutenak, bi enpresa desberdinek eginak; hau da, % 165eko gainkostua finantzatu zen.

56) Batzordeak ondorioztatzen du kontzeptu berarengatik hornitzaile desberdinen fakturak erabili zirela, eta haiek urte desberdinetan ordaindu, kontabilizatu eta aurkeztu zirela, diru-laguntzak lortzeko egiaztagirri gisa; hain zuzen ere, modu honetara:

a) Ultzamako Udalak 965.900 euroko fakturak (BEZik gabe) aurkeztu zituen gastuaren justifikazio gisa, Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntza bat lortzeko. Faktura horiek Levenger SL enpresak igorri zizkion Ultzamako Udalari, eta azken horrek, aldi berean, zenbateko beragatik fakturatzen zion Bioenergía Ultzama SARI, eta Udalak merkataritza-sozietate horretatik kobratzen zuenean, Levenger SLri ordaintzen zion.

b) Bioenergía Ultzama SAK Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari aurkeztutako fakturei dagokienez, Vitkovice Power Engineering AS enpresak igorri zituen, 2.500.000 euroko zenbatekoarekin; kopuru horretatik, 1.486.000 euro (1.350.909,00+% 10eko gastu orokorrak eta mozkin industrialak) digestio anaerobioko biltegien kontzeptuari dagozkio, eta 1.014.000 euro, berriz, kogenerazioko instalazioaren kontzeptuari (921.818,18+% 10eko gastu orokorrak eta mozkin industrialak). Horixe ondorioztatzen da Batzordearen esku dagoen dokumentaziotik, zeinean baieztatu daiteke Garapen Ekonomikorako Departamentuak “makineria” gisa aurkeztutako zenbatekoa –2.500.000,00 euro– bat datorrela 2009ko maiatzaren 15eko kontratuaren –“Bioenergía Ultzama” sozietateak eta “Vitikovice Power Engineering AS” enpresak sinatutako kontratuaren– zenbatekoarekin, eta bat dator, halaber, “01.01 Biogasaren produkzioarako instalazioa” eta “01.03 Kogenerazioko instalazioa” kontzeptuen pean Garapen Ekonomikorako Departamentuaren aurrean 2008ko ekainean aurkeztutako aurrekontuan ageri den zenbatekoari % 10 (gastu orokorren eta mozkin industrialaren kontzeptuan) gehi-

tuta ateratzen den zenbatekoarekin. Vitkovice Power Engineering AS enpresak egindako fakturak, berriz, lagapen-hartzailearen eta teknologia emailearen arteko kontratuan daude oinarrituta. Azken horrek biogas plantaren instalazioa eta muntaketa egin eta martxan jarrita emateko konpromisoa zuen, "giltza eskura" hornidura kontratuztat. Faktura horiek Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari aurkeztu zitzaizkion, gastuaren justifikazio gisa, eta inbertsio industrialerako % 30eko diru-laguntza bat eragin zuten.

57) Horrenbestez, Batzordeak ondorioztaten du enpresa desberdinek "digestio anaerobioko biltegiak" kontzeptu berarengatik bi aldiz fakturatu eta kobratu zutela, zehazki % 165.

58) Batzordeak uste du azterketa bera egin daitekeela Landa Garapeneko Departamentuan Levenger SLren fakturekin eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan beste faktura batzuekin –bakarra ere ez Levengerrena edo Ultzamako Udalarena– justifikatutako obra zibilari dagokionez.

59) Batzordeak uste du argi utzi behar dela fakturazio bikoitza ez dela gertatzen Levenger SLren eta Ultzamako Udalaren eta Bioenergía Ultzama SAren artean ezarritako zirkuituan –zeina diseinatu baitzen Landa Garapeneko Departamentuaren diru-laguntzak kobratzeko; izan ere, Batzorde honek zalantzan jartzen du haien jatorria–, baizik eta zirkuituaren hiru partaideen artean egindako fakturen eta Vitkovice Power Engineering AS enpresak Bioenergía Ultzama SAri egindako fakturen artean.

60) Batzordearen ustez, biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunitaturako obraren 1. ziertagiriak, 2008ko abendu-koak, Aierdi Ingenieros SLk eman eta Pérez Arregui jaunak sinatuak, ez zion erantzuten egiazki egindako obra bati, eta helburu bakar batekin egin zen: ez galtzea Landa Garapeneko Departamentuak emandako diru-laguntzaren 2008ko urteko ordainketari zegokion 420.000 euroko kopurua.

61) Batzordeak, honako hauetan oinarritzen du kontsiderazio hori: ziertagiriaren beraren edukian; Bioenergía Ultzama SA izatean, modu ukaezinean, 2009ko maiatzean Vitkovice Power Engineering AS-rekin kontratatatu zuena plantaren hornidurarako, "giltza eskura", horren barne direla atxikitze anaerobioko biltegiak; enpresa txekiar horrekiko kontratuan, zeinean fabrikazioa hasteko gutxi gorabeherako data bat ezartzen baita kontratua sinatu eta hilabete batzuen buruan; eta Arpa Abogados-asesores enpresaren Negozio Planean,

zere eta 2009ko irailean aholku-etxe horrek adierazi baitzuen teknologia berehala erosiko zela.

62) Batzordeak 2008ko abenduko ziertagiri horri buruz eta, bereziki, Levenger SLk egindako fakturari buruz, ondorioztatu du Levengerren faktura horrek ez diola inongo merkataritza-errealitateri erantzuten, eta berariaz sortu zela aipatutako xede horrekin, alegia, Landa Garapeneko Departamentuan inbertsio bat egin izana justifikatzea 2008ko abenduaren 20a baino lehen; izan ere, merkataritza-sozietate horrek ez zuen inoiz inorekin kontratatatu atxikitze anaerobioko biltegien hornidura, eta hori guztia inbertsio berarengatik bi diru-laguntza lortzeko –eta, gainera, kostuaren % 165ean– egindako iruzurrezko amarruaren zati bat zela.

63) Batzordeak egiaztatu du beste faktura bat badagoela baieztapen horiek guztiak agerian jartzen dituen. Faktura hori –2009ko otsailaren 4ko kontratuan sortutako fakturazio gurutzatuaren sistemaz haratago– Bioenergía Ultzama SAk egin zuen 2008ko abenduaren 31n Levenger SLren aurka. Haren kontzeptua (atxikitze anaerobioko biltegiaren hornidura) merkataritza-sozietate horrek 2008ko abenduaren 19an Ultzamako Udalari fakturatu zionaren berdin-berdina da, eta alde bakarra prezioa da: Levenger SLk Ultzamako Udalari 612.000 euroko faktura egon zion bitartean, BEZik gabe (gastu hori Udalak Bioenergía Ultzama SAri fakturatu zion), azken horrek Levenger SLri 572.000 euro fakturatu zizkion, hau da, 50.000 euro gutxiago.

64) Batzordeak uste du 50.000 euro horiek, Levenger SLren esku geratu zirenak, izan litezkeela Bioenergía Ultzama SAk merkataritza-sozietate horri egindako ordainketa, Udalari bere faktura egiteagatik; izan ere, faktura horrek inongo errealitaterik ez zuen, zeren eta ez baitzuen atxikitze anaerobioko inongo biltegirik hornitu.

65) Batzordeak egiaztatu du, 2008ko abendu-ko 1. ziertagiriari dagokionez, faktura horiek zirkulu moduko bat osatu zutela; honako hau, hain zuzen:

1.- Levenger SLk Ultzamako Udalari 612.000 euro fakturatu zizkion; 2.- Udalak faktura hori Bioenergía Ultzama SAri igorri zion obraren 1. ziertagirian, eta Levenger SLri ordaindu zion; 3.- merkataritza-sozietate horrek 612.000 euro horiek Ultzamako Udalari ordaindu zizkion. 4.- bere alde-rik, beste faktura bat egin zuen Levenger SLren kontra, 572.000 eurokoa, Ultzamako Udalari ordaindutako guztia, ken 50.000 euro, berreskuratze aldera; 5.- eta, azkenik, toki entitate horrek Bioenergía Ultzama SAri eman zion Landa Gara-

peneko Departamentutik –Levenger SLk egindako jatorrizko fakturarekin justifikatutako diru-laguntzaren lehenengo urteko ordainketaren kontzeptuan– jasotako 420.000 euroko kopurua.

66) Batzordearen ustez, gaitzesgarria eta guztiz irregularra da Pérez Arregui jaunaren jarduketak; izan ere, Ultzamako Udaleko alkate karguan zegoela, 2008ko irailaren 26an Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan inbertsio industrialerako laguntzen eskaera aurkeztu zuen, “eratzte bidean zegoen sozietate” baten izenean.

67) Batzordeak egiaztatu du Pérez Arregui jaunak eskaera hori aurkeztu zen egunean, Udalak ez zuela inongo erabakia harturik zerbitzua udalekotzeari buruz, ez eta haren kudeaketa-moduari buruz ere eta, administrazio-emakidarako inongo prozedurarik ez zegoen abiaturik; hori dela eta, eskaeraren sinadura jartzeak eta “enpresan” harremanetarako pertsona bere izateak agerian uzten dute alkateak ezagutzen zuela eta bere garaian administrazio-emakida lortzeko eta ahal ziren diru-laguntza publiko gehien lortzeko, baita diru-laguntza bikoitza ere, egindako plangintza hori, eta hartan partaidea zela.

68) Batzordeak egiaztatu du Pérez Arregui jaunak inbertsio industrialerako laguntzen eskaeran diru-laguntza eskatzen zuen instalazioaren datu teknikoak jaso zituela, eta datu horiek soilik Levenger SLk eman ahal zizkion; horrek, izan ere, agerian uzten du zuzeneko lankidetzan ari zela Levenger SLren interesen alde eta azken horrek Espainiar Estatuan ordezkartzaren eskusiba zeukan enpresen alde egiteko gauzatutako plangintza osoan.

69) Batzordeak uste du Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren azaroaren 10eko 488/2009 Foru Aginduaren bidez onetsitako enpresa-inbertsiorako laguntzek –foru agindu haren oinarri arautzaileak, berriz, Enpresako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2603/2009 Ebazpenaren bidez onetsi ziren–, Bioenergia Ultzama SArri emandakoek, laguntzen araubide horretarako baimendutako intentsitate handienagatik eman zirela; hori dela eta, aipatutako oinarriaren arabera, beste laguntza batzuekin bateraezinezak ziren.

70) Batzordeak egiaztatu du inbertsio babesgarriaren guztizkotik, 3.020.027,91 euro, 1.320.857,75 euro bat datozela atxikitze anaerobioko biltegiengatik eta obra zibilarengatik faktorekin. Kopuru hori bat dator Kontuen Ganberaren txostenean, Udalak Levenger SLri atxikitze anaerobioko biltegien eta obra zibilaren kontzeptuan ordaindutako faktura gisa, adierazitakoa-

rekin (965.900 +172.770+% 16ko IVA= 1.320.857 euro).

71) Batzordearen ondorioa da aurrekoaren guztiaren ondorioz digestio-plantaren obra zibilaren % 140ko gainkostu bat badagoela, eta Bioenergia Ultzama SAK hornitzaileen zerrenda bati guztira, BEZa kenduta, 545.027,91 ordaindu dizkiela obra zibileko lanak egiteko.

72) Batzordeak egiaztatu du diru-laguntzak eman zirela Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren azaroaren 10eko 488/2009 Foru Aginduaren arabera halakoak jasotzeko modukoak ez diren kostu batzuegatik; izan ere, 488/2009 Foru Aginduaren 4. artikuluan diruz lagundu zitezkeen kostuen artean aktibo materialetan eta ez materialetan egindako inbertsioak ageri dira, eta materialak honela definitzen dira: “lurrei, ekoizpenari loturiko eraikinei, instalazioei, makinei eta ekipoei dagozkienak”.

Bioenergia Ultzama SAK aurkeztu eta Departamentuak onartu zituen gastuak aztertuta, ondoriozta daiteke batzuk ez datozela bat diruz laguntzekoak diren kostuen gisara definitutako aktibo materialen kontzeptuan; adibidez, administrazio-emakidaren lagapenagatik ordaindutako ondare eskualdaketen gaineko zergaren ordainketa (14.705,99 euro dira) Aierdi Ingenieros SLren obra-ziurtagiria (6.263,12 euro), AINek emandako laguntza teknikoa (62.000 euro), Ultzamako Udalarari ordaindutako EIOZa (84.813,92 euro) eta beste batzuk.

73) Batzordeak ondorioztatu du inbertsioaren gainfinantzaketa publiko bat ikus daitekeela, zeren eta biltegien % 65erako eta obra zibilareko diru-laguntzak bi aldiz eman baitziren; izan ere, dokumentazioa eta eskura dauden datuak aztertuta, uste du honako hau izanen litzatekeela gainfinantzaketaren kalkulua:

- Garapen Ekonomikorako Departamentuak emandako diru-laguntza: biltegien eta haien obra zibilaren % 100aren % 30 = $0,30 \times (1.486.000 + 427.937) = 574.181,10 \text{ €}$.

- Landa Garapenerako Departamentuak eman behar zuen diru-laguntza doitua, Landa Garapenerako Departamentuaren diru-laguntza ezagututa: azken horrek diruz lagundu ez duen zatiaren % 30 = $0,30 \times 0,35 \times 1.486.000 + 0,30 \times (427.937 - 172.770) = 232.580,10 \text{ €}$

- Balizko gainfinantzaketaren balorazioa: $(574.181,10 - 232.580,10) = 341.601 \text{ €}$.

74) Batzordearen ustez, balizko gainfinantzaketaz gainera, dokumentazioaren azterketak agerian uzten du atxikitze anaerobioko biltegien

eta obra zibilaren kontzeptu berarengatik enpresa desberdinei ordaindutako fakturak badaudela, % 165 eta % 140, hurrenez hurren, egiten dutenak.

75) Batzordeak ondorioztatzen du Batzordeak ondorioztatzea Bioenergía Ultzama SAK (Ultzamako Udalaren bidez) biltegien % 65 ordaindu ziela Levenger SLri 2008an eta 2009an, eta, bestalde, biltegien % 100 2009an eta 2010ean Vitkovic Power Engineering ASri. Halere, beste behin adierazi beharra dago Bioenergía Ultzama SAK 572.000 euro berreskuratu zituela Levenger SLren kontra egin zuen faktura baten bitartez.

76) Batzordearen ustez, laguntza horiek kobratzeari buruz eta gainfinantzaketa hori lortzeko egindako plangintzari buruz aipatutako guztia Zigor Kodearen 308. artikuluko diru-laguntzen arloko iruzur-delitu bat izan daiteke, ikusita, gainera, haien arteko bateraezintasuna, hain zuzen ere inbertsio berarengatik biak batera ezin hartzeari dagokiona.

77) Batzordearen ustez, gainfinantzaketari buruz aipatutako guztiaz gainera,

eta kontuan hartuta bidegabera zela Ultzamako Udalak diru-laguntza horiek lortzea –zeren eta modu irregularrean jaso baitziren, horretarako fakturazio gurutzatuaren sistema erabiliz, zeinarekin dirua jaso eta ordaindu behar ez zituen faktura batzuk ordaintzen baitzituen–, ulertu beharko litzateke faktura irregular horiekin justifikatuta toki entitateak jasotako diru-laguntza guztiak anomaloztat hartu beharrekoak direla.

78) Batzordeak egiaztatu du Nafarroako Gobernuak eta Ultzamako Udalak interpretazio juridiko desberdina egiten dutela Landa Garapeneko Departamentutik 2010eko deialdian jasotako diru-laguntzetan, biltegiratzerako hobei buruzkoetan, instalazioak 5 urtez mantentzeko epea bete izateari buruz, aldeetako bakoitzak interpretatzen duenaren arabera; hona hemen interpretazio horiek:

– Batzuek ulertzen dute instalazio horiek inbertsio bakar baten zati bat direla eta inbertsio hori ezin dela zatitu, nahiz eta posiblea izan plantatik modu independentean erabili; hori dela eta, bidezkoa da jasotako laguntzak bueltatu behar izatea.

– Beste batzuek, ordea, ulertzen dute urteko deialdi desberdinak direla, eta haietako proiektuak ere desberdinak direla, eta proiektu horien erabilerrari eutsi egin zaiola, etenik gabe, gaur arte; hori dela eta, haien edukia ez da bidezkoa.

79) Batzordeak egiaztatu du dokumentazio guztian ez dagoela jasota obrak aldatzeko inongo

proposamenik, eta ez dagoela jasota, ezta ere, Ultzamako Udalaren osoko bilkuren aktetan obran egindako aldaketak, nahiz eta ugari izan ziren.

80) Batzordeak egiaztatu du ezen emandako dokumentazio guztian obra-amaierako ziurtagiri bakar bat agertzen dela, 2010eko urriko data duena, obra-harreraren akta baten antza duena baina ezin pareka daitekeena Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legean araututako dokumentuarekin; azken horretan, izan ere, exekutatu diren proiektuko obra-unitateak adierazi behar dira, beren prezioarekin; eta, horrenbestez, obraren amaierako kostua ere adierazi behar da; izan ere kostu hori ez da inongo dokumentutan ageri.

81) Batzordearen ustez, nabarmendu beharra dago ezen, obra-ziurtagiri bat bazegoen ere, “2008ko abenduko” data zehatzarekin, obrak egiteko epea baldintza arautzaile ekonomiko-administratiboetan gehieneko gisa ezarritako hamabi hilabeteko epea baino luzeagoa izan zela; ez dago jasota Ultzamako Udalak kontratuaren ez-betetze hori baloratu ere baloratu zuenik, ondorio-rik ba ote zuen zehaztu ahal izateko.

82) Batzordearen ustez gaitzesgarria eta arbuigarria da Ancizu, Iribarren eta Tornaria zinegotzien jokabide larria; izan ere, aipatutako gaiak aintzat hartzeko eztabaidetan abstenitu behar zuten, beraian interes publikoak eta pribatuak batera biltzen zirelako, baina halakorik ez zuten egin, eta horrekin erraztu zuten Udalak hartzea bestela hartzerik izanen ez zituen erabaki batzuk, modu horretan beren interes pribatuak aldeztuz.

83) Batzordearen ustez, Ancizu eta Iribarren jaunek bere abstentziorako betebeharra aitortu ondoren “argudiatuta etikoki eta moralki, Bioenergía Ultzama SA enpresako partaidea izan denez, botoa ematea ez zaiola etikoa iruditzen”, aipatutako zinegotziek aitortzen zuten berdin jokatu ez zuten Osoko Bilkuretako izapidetzeetan eta hartutako erabakietan abstenitzeko betebeharrak juridikoa, ez soilik morala, bazeukatela; izan ere kontziente ziren beraiek abstenitu izanak arriskuan jarriko zuela beraiek parte hartu zuten eta irabazteko asmoa zuen entitate pribatu baten interesak aldezteko egindako plangintza osoa.

84) Batzordearen ustez Paymacotesek 2014ko urrian egindako txostenak helburu bakarra zuela: Ultzamako Udalak zainpeari buruz hartu behar zuen erabakia justifikatzea; izan ere, justifikatu beharra zegoen plantaren jardura mantentzea ekonomikoki bideragarria zela, eta hori behar zen azterlanaren bidez justifikatu behar zen, nahiz eta

planta ekonomikoki errentagarria izateko agertokiari buruzko aurreikuspenek errealismorik ez izan gako ziren diru-sarrera batzuei zegokienez –baporearen salmenta–; izan ere, gehiegizko kalkula jasotzen zuen, eta horrekin galeren beste agertoki bat bilakatzen zuen agertoki hori.

85) Batzordeak egiaztatu duenez, plantaren egoera penagarria zela eta, baldintzak berrezartzeko jarduketetarako kalkulaturako kostuak, hura produkzioan jartzeko egoerara eramanez, 902.210 euro ingurukoak izan lirateke, horixe baloratu baitzuen Paymacotasek 2014ko abenduko bere txostenean, edo 930.000 eurokoak, Albatros 2014 SLk 2015eko uztailaren 31n kalkulaturakoaren arabera.

86) Batzordeak egiaztatu du ezen, plantaren funtzionamendu normalera itzultzeko inbertsio horretaz gainera, milioi bat euro inguruko inbertsio bat egin beharra zegoela.

87) Batzordeak egiaztatu du “Ultzamako biogas plantari buruzko ebaluazio-txostena, hura minden eta FORU/MCPen baterako digestiorako planta bihurtzeko” izeneko azterlanak, Nafarroako Industria Elkartek Iruñerriko Mankomunitatearentzat egin eta 2015eko urtarrileko data daramanak, bost agertoki aurreikusten zituela, zeinetan desberdinak baitziren egin beharreko inbertsioak (merkeena 8.345.400 eurokoa zen eta garestiena 9.421.650 eurokoa). Plantaren emaitzak, ordea, negatiboak izan ziren horietatik lautan (6.228 eurotik 273.360 eurora bitarteko galerak) eta positiboak, berriz, bakar batean (162.719 euro).

88) Batzordeak egiaztatu duenez, txosten horren emaitza positiboaren agertokian, beharrezkoa zen ibilgailuetarako biogasaren salmentak 724.769 eurokoak izatea, baina kontuan eduki gabe zenbaterako inbertsioa egin beharko lukeen Mankomunitateak bere hiri-autobusen flota egokitzeko gas hori kontsumitu ahal izateko; hori dela eta, uste dugu diru-sarreraren aurreikuspen hori gutiz irreal zela.

89) Batzordeak egiaztatu du ezen Nafarroako Industria Elkartearen txosten entregatu zenetik, dokumentazioan ez dagoela Iruñerriko Mankomunitateak hartutako inongo erabakirik alternatiba horren exekuzioari buruz; hain zuzen ere, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspuntutik hain interesgarria zen hari buruz. Ez dago jasota, ezta ere, Mankomunitatearen beraren kudeaketarako zerbitzu teknikoek azterlan osagarriak egin izana alternatiba hori ezartzeko.

90) Batzordearen ustez, Ultzamako Udalak, emakidaren zainpe administratiboari amaiera era-

baki zuen unean, egoki haztatu zituen erabaki hori hartzeko garaian aurrean zeuzkan faktore guztiak:

– Emakidadun Bioenergía Ultzama SAren likidazio-egoera.

– Plantako kudeaketaren emaitza ekonomikoa, zainpeak iraun zuen denboran.

– Plantaren bideragarritasunari buruz, zainpeak iraun zuen aldi osoan, egindako txosten tekniko guztiak.

– Planta eskuratzeko hainbat entitatek egindako eskaintzak, lege-arazo guztiekin batera, emakidadunaren konkurtso-egoera eta emakida-kontrata eta haren likidazioa amaitzeari ekin behar izatea barne; izan ere, kasua bazen, kontratazio-prozedura berri bat abiatu behar zen, baina eskaintzak aurkeztutakoetatik bakarrak ere ez zituen beteta formaltasuneko errekerimenduak eta bideragarritasun ekonomikoari buruzkoak...

– Plantaren funtzionamendu egokirako eta ingurumen-araudia epe laburrean bete eta ingurumen baimen integratua lortu ahal izateko epe laburrean egin beharreko inbertsioen zenbatekoa (1.000.000 euro). Plantaren jarduerari eusteko Udalak hasiera batean bere gain hartu behar zituen eta gero, agian, emakidadunari –likidazioan– edo plantaren jarduerarekin aurrera jarraitu nahi zuen entitatearen bati ordainarazi behar zizkion inbertsioak.

– Diru-laguntzak itzultzeko espedienteak irekitzeko aukera, 5 urteko gutxieneko epea ez bete-tzeagatik, eta horrek ekarriko lituzkeen ondorio ekonomikoak, 216.000 euro ingurukoak.

– Abeltzainek plantak lanean jarrai zezen erakutsitako interes eskasa, ia deuseza; izan ere, interes gehiago dute mindak plantan tratatu beharrean baltsetan eta hobietan biltegitartzeko, gero nekazaritzarako alorretan isurtzeko.

– Iruñerriko Mankomunitatearen erabakia, etxebizitzetako hondakinen frakzio organikoa tratatzeko bestelako konponbide tekniko batzuen alde egitekoa, eta plantaren kudeaketa bere gain hartzeko inolako interesik ez izatea.

91) Batzordeak egiaztatu du Bioenergía Ultzama SAko Akziodunen Batzar Nagusi Bereziak 2014ko abuztuaren 29an hartutako erabakiak, zeinak berresten baitzuen “Sozietatea likidatzeko eskaera, Administrazio Kontseiluak 2014ko abuztuaren 19an onetsitako konkurtso-prozeduraren barruan”, hartu zela hari eskualdeko abeltzainak biltzen dituen Aritzalde Kooperatibako ordezkariak emandako baieztokitoari esker.

92) Batzordearen ustez, Ultzamako biogas plantaren inguruan gertatutakotik –biometanizazioaren ideia edo beharra bultzatzea, abere-min-dak biogasa eta elektrizitatea sortze aldera biltzeko jarduera edo zerbitzua udalekotezko prozesua, proiektua kontratatze prozesua, administrazio-emakidarako prozesua eta kudeaketaren kontrol egokia, Bioenergía Ultzama Saren borondatezko konkurtsoaren prozeduran likidazio-egoera deklaratu zen arte eta, horrenbestez, administrazio-emakida zainpean uztea onetsi zen arte– erantzukizun politikoak erartortzen direla.

93) Batzordearen ustez, erantzukizun horien ondorioz, bidezko da kargu publikoak bete izan zituzten eta etapa horietan guztietan parte-hartzea izan zuten pertsonen gaitzespen politikoa deklaratzeko: Francisco Pérez Arregui, Francisco Tornaría Iguelz, Francisco Berasain Gascue, Agustín Ancizu Elizondo eta Francisco M^a Iribarren Altuna.

Azkenik, Batzordeak uste du txosten horren edukia honakoei helarazi behar zaiela:

1.- Iruñeko Instrukzioko 1. Epaitegiari, ezagut dezan eta sar dezan, kasua bada, 318/2017 aurretiatzko eginbideetan. Batzordeak uste du epaitegiari lehendik ikerketaren xede direnez beste egitate berri batzuk jakinarazten zaizkiela, eta horiek prebarikazio-delitu jarraitu bat izan daitezkeela.

2.- Kontuen Auzitegiari, Auzipetze Ataleko Burutzako Aurretiatzko Jarduketan Unitateko instrukziorako ordezkari M^a de los Llanos Castellanos andreari, ezagut dezan eta sar dezan, kasua bada, 119/2017 aurretiatzko eginbideetan. Batzordeak uste du egitate berriak gehitzen direla, ikertutako kontabilitate arloko balizko erantzukizunaren xedea zabalduko luketenak.

3.- Nafarroako Gobernuari, diru-laguntzen onuradun guztien barne kontroleko eta informazioa gurutzatzeko prozesuak hobetu ditzan, departamentu desberdinek egindako laguntzen deialdietan, halakoak zuzentzen direnean antzekoak diren elementuak diruz laguntzera; horrekin saihestu nahi da inbertsio berarengatik bi laguntza jaso ahal izatea. Kopia bidatzen zaie, bereziki, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari, Garapen Ekonomikorako Departamentuari eta, azkenik, Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari ezagut dezaten.

4.- SODENA enpresa publikoari, ezagut dezan.

5.- Ultzamako Udalari, ezagut dezan eta dokumentazioko artxibo-sistemak berrikusteari ekin diezaion, horren bidez hartarako sarbide zuzena bermatzeko eta espediente administratibo guztien kontrol egokia mantendu ahal izateko.

6.- Kontuen Ganberari, ezagut dezan.

